# Goienkaria

2007ko azaroaren 16a > Egubakoitza > VII. urtea > 309. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Bergara izan zen XVIII. mendean gure elkarteko altxor preziatuena"

**Jose Maria Urkia**
Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko presidentea > 09

**G2a** Besaideren 50 urteak liburu batean > 43-44

**ARRASATE**
**Bigarren eskuko jostailuak batzen hasiko dira truke azokarako** > 18

**BERGARAKO MUSIKA BANDA**
**175. urtemugarako egin duten diskoa aurkeztuko dute bihar** > 26

**OÑATI**
**Bihar irekiko dute herritarrentzat kiroldegiko taberna berria** > 33

**ESKORIATZA** > EUSKARA

## Euskara goraka Eskoriatzan

Azkeneko urteetan ia 12 puntu egin du gora euskararen erabilerak > 34

**ENPRESA** > PROTESTALDIAK

## Hitzarmen propioa nahi dute

Gipuzkoako Urak enpresako langileek protestaldia egin dute Bergaran > 07

**ENPRESAK** > MCC

## Kunshango industria gunea irekita

Eguaztenean inauguratu zuten MCCren Kunshango industrialdea (Txina). Lehen fasea da inauguratu dutena eta 15 milioi euro inbertitu dituzte. Industrialdea erabat 2010ean bukatuko dute. Guztira 100 milioiko inbertsioa izango da eta 3.000 langilek egingo dute lan han. > 05

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55

**KIROLA** > REALA KRISIAN

# Realeko zaleek ondo ikusten dute kapital txinatarra sartzea

**ETORKIZUNIK EZ** Realari etorkizun kaskarra ikusten diote eta egoera irauli egin behar dela diote

**DIRU SARRERA BERRIAK** Elkarteak ezinbestez diru sarrera berriak behar dituela diote, lehen mailara itzultzeko

**EREDUA ZALANTZAN** Jabegoa akziodun txiki askoren artean banatzea zalantzan jartzen dute, ez delako egiazkoa > 40-41




**DEBAGOIENEKO OSPITALEAN** Ibar osorako elkarretaratze bateratua egin zuten Osakidetzako langileek ospitale aurrealdean. TXOMIN MADINA

## Ospitalean langileen %75ek egin zuten greba atzo, sindikatuen arabera

Atzo, eguena, hiru orduko lanuztea egin zuten Osakidetzako langileek. Ibarreko anbulatorioetan eta ospitalean egin zuten, lan baldintza hobeak eskatzeko asmoz. Sindikatuen esanetan, lanuztearen helburua ez zen izan hiritarrei kalte egitea: "Alderantziz. Lan baldintzak hobetuz gero, gaixoenganako arretaren kalitatea ere hobetuko da", esan zuten. Gabriel Inclan Osasun sailburuak asteon esandakoa ere salatu zuten. Haien esanetan, Osakidetzak langileen aurkako desprestigio kanpaina jarri du abian. > 06



Kalitatezko ametsak
beds®
Koltxoi dendak
pikolin
BULTEX Tu Futuro Descanso.
KEYTON®
laltoflex
TEMPUR®
Zarugalde 25 / ARRASATE Tel.: 943 77 18 35 • Arrizuri 7 / BERGARA Tel.: 943 76 25 91

Passat Variant Ez utzi emozioek ihes egin dezaten



Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

**URA** > URKULUKO URA EZ DA TOKI GUZTIETARA IRISTEN

# Ibarreko hainbat herrik eta auzok iturburuak erabiltzen jarraitzen dute

**URA, ETXERA** Ur-hornidura sarerik izan ez eta iturburuko ura erabili behar izaten duen etxe asko da oraindik ibarrean, horrek dakartzan arazoekin

**ANTZUOLA** Badira egoera horri buelta eman nahi dioten udalak. Antzuolakoa, esaterako, baserri guztietara ur-hornidura sarea eramateko ahaleginean dabil

**DEBAGOIENEAN BARRENA** Antzuola abiapuntu hartuta, ibarreko beste herriak nola hornitzen diren jakin dugu: iturburuak asko erabiltzen dira



HERRIKO SARERA LOTUTA Arrasateko auzoek herri

**MIRIAN BITERI** > ANTZUOLA

Gure etxeetan ura normaltasunez izatera ohituta gaude. Txorrotak zabaldu eta jarraian azaltzen da gure begi aurrean. Baina batzuek ez dute aukera hori. Ez dago urrutira jo behar horren adibide bat lortzeko: Debagoieneko hainbat tokitan ura izateko arazoak daude, besteak beste Antzuolako baserrietan.

Antzuolako Nekazaritza batzordeko arduradun Jose Mari Iturbek azaldu duenez, herriko kaleetara Urkulutik iristen da ura. Bada, baserrietako egoera oso bestelakoa da. Udalerrian 125 baserri daude eta bakoitzak ahal duen moduan jasotzen du ura. Kale ondoko bederatzi baserriek, adibidez, ez dute inolako arazorik, herriko sarea erabiltzen dute-eta. Urruti daudenek, berriz, beste bide batzuk jorratu behar dituzte.

**EGOERA HOBETZEKO EGITASMOA**

Hala, gehienak betiko iturburuetatik hornitzen dira urez eta baten batek lur azpiko ur bilketa ere egin du. Ur hornidura eta ur zikinen bilketaren gainean, baserritarren beharrak aztertzeari ekin zion aurreko agintaldian udalak. Hala, aurre-proiektua egin zuen arazoari irtenbidea emateko asmoz.

**Galdetegiaren erantzunak jasotzen hasi dira Antzuolan; oraingoz 76 jaso dira eta %20k arazoak dituztela onartu dute: ur gutxi dutela edo kalitatea txarra dela diote**

Urkulu urtegiko ura eramatea eta ur zikinak bildu eta tratatzea aztertzen du horrek. Horretarako, 3.336.616 euro behar dira. Saneamenduak baserrietaraino eramateko aurrekontua 1.860.339 euro da eta baserriak urez hornitzea 1.576.277 euro.

Azken horren harira, bi aukera aurreikusten direla dio Iturbek: Urkuluko ura edo herriko betiko iturburuak erabiltzea. Egokiena zein izan daitekeen aztertzen ari dira, bakoitzaren onurak eta desabantailak sailkatuta. Urkuluko ura erabiltzeak haren tratamendua eskatzen du. Iturburuak erabiltzeak, bestalde, ponpatzea eskatzen du.

Agintaldi honetan gaiari ekin dio berriro udal berriak. Joan den hilean, galdetegi bat banatu zuen 125 baserrietan, bakoitzaren egoera ezagutzeko. Ura nondik jasotzen duen, nahikoa eta kalitatezkoa den eta lehen aipatutako proiektuan interesa duen galdetzen da.

**KALITATE TXARRA ETA URRIA**

Erantzunak jasotzen hasi dira dagoeneko. Oraingoz 76 jaso dituzte. Horietatik, 14 baserritan urarekin arazoak dituztela onartu dute; alegia, %18,42k. Uraren kalitatea txarra dela eta uda partean ur barik geratzen direla diote gehienek. "Baserri batzuek ur gutxi dute", esan du Iturbek.

Emaitza guztiak jaso ondoren, "ebaluazio orokorra egingo da, auzoz auzo sailkatuta", jakinarazi du. Baserritarren interesa ezagutu ondoren, proiektuarekin aurrera jarraitzea edo ez erabakiko da. Udala, bestalde, hasi da dagoeneko egitasmo horren bideragarritasun ekonomikoa eta egon daitezkeen finantzaketa bideak aztertzen. Nekazaritza batzordeko arduradunak aipatu duenez, Gipuzkoako Diputaziotik eta Eusko Jaurlaritzatik laguntzarik jaso ote dezaketen aztertzen ari dira.

**URKULUKO URTEGIA**

Baina iturburuak ez dira Antzuolan bakarrik erabiltzen. Aramaio eta Leintz Gatzaga izan ezik, ibarreko gainontzeko herri guztiak hornitzen ditu Urkuluk. Guztira, Debagoieneko nahiz inguruko 66.000 herritar hornitzen ditu esandako urtegiak. Baina baserri eremu askotan iturburuak erabiltzen dira oraindik. Udalerri bakoitzean modu jakin batean funtzionatzen dute.

Hala, Arrasaten urak biltzeko hainbat leku dago. Esan bezala, Urkuluk udalerri gehiena hornitzen du. Erabiltzen den %90 urtegitik hartzen da. Garagartza eta Gesalibar auzoetan Bostate eta Kobateko ur putzuetatik jasotzeko aukera dute. Meatzerrekako iturburuak, bestalde, izen

DEBAGOIENDARREN EGOERA



**Lorenzo Larrañaga**
Leintz Gatzaga

### "Primeran egongo litzateke herriko sarera lotuta egotea"

AP-1 autobideko lanek Lapikoxuluetako iturburua lehortu zutenean hasi ziren arazoak Gaztainuzketan. Lorenzo Larrañagak sei etxe eta jatetxe baten ardura du. Orain Marototoko iturburuarekin hornitzen dira eta hura uda partean ur barik geratzeko arriskua duela esan du. Horrez gain, ekaitzekin ur-biltegia itxi behar izaten duela dio, "ura lokaztu ez dadin". Larrañagaren ustez, herriko sarera lotuta egotea "primeran egongo litzateke".



**Imanol Lete**
Antzuola

### "Ondoko mendietan ur asko dago, baina metalezkoa da"

Antzuolako Altzeta baserrikoa da Imanol Lete. Beti arazoekin ibili izan direla gogorarazi du: etxe ondoko mendietan ur asko dago, baina guztia metalezkoa da. "Horrekin ezin dugu ezer egin. Animaliei emateko erabiltzen dugu. Etxerako ez du balio. Pentsatu nola geratzen den horrekin arropa". Udan arazoak handitzen direla dio, iturburuak lehortzen direlako. Irtenbidea herriko sarera lotzea dela uste du.



**Mila Elortza**
Bergarako Angiozar auzoa

### "Baliabide propioak erabili beharko genituzke lehenengo"

Mila Elortza Angiozarren bizi da. Auzoan eta ondoko baserrietan saretik hartzen dute ura: "Sarea Elgetara eraman zutenean Angiozartik pasatzeko aprobetxatu zuten", azaldu du. Bada, Zabaletamendi eta Goimendin iturburuak erabiltzen dituztela esan du. Azken horretan, gainera, arazoak dituzte udan. Elortzaren iritziz, "ondo dago sarea izatea, baina baliabide propioak erabili beharko genituzke lehenengo".



ko ur-hornidura sarera lotuta daude, baita Udalakoa ere. GOIENKARIA

**Aramaio eta Leintz Gatzaga izan ezik, Urkuluk hornitzen ditu urez ibarreko gainontzeko herriak; bada, auzo askotan betiko iturburuak erabiltzen segitzen dute**

**AP-1 autobideak arazoak eragin ditu dagoeneko Debagoieneko iturburuetan eta Abiadura Handiko Trenarekin ere gauza bera gerta daitekeela ohartarazi dute**

bereko baserri eremua eta Udala auzoa hornitzen ditu. Udan, baina, iturburuak lehortu egiten direnez, auzo horiek herriko saretik hornitzen direla adierazi du Udaleko Mantentze Saileko buru Alberto Loitik. Aretxabaletan ere berdin funtzionatzen dute. Bakar batzuek beste bide batzuk erabiltzen badituzte ere, udalerri osoa herriko sarera lotuta dago.

Elgetan ere Urkulutik hartzen dute ura. Urtegiak herria eta 20 bat baserri hornitzen ditu. Orain dela hiru urte baserritar horiek sarera lotzearen alde azaldu ziren eta azpiegiturak egin ziren horretarako. Beste 40 baserri inguruk aukera hori baztertu eta iturburuetatik ura hartzen jarraitzea erabaki zuten. Noizean behin, arazoren bat edo beste egoten dela jakinarazi izan dute Udalean. Gaur egun, esaterako, Goimendi auzoko bi baserrik dituzte arazoak urarekin eta Udala irtenbideabilatzen ari da.

Leintz Gatzagako herritarrek, berriz, iturburuen bidez lortzen dute ura. Biltegi batean bildu eta sare baten bidez herritik banatzen da. Baserri bakoitzak, bestalde, bere iturburua du.

### AP-1 AUTOBIDEAGATIK ARAZOAK

Dena den, Eibar-Gasteiz autobidea egiteko lanak hasi zirenetik, ur hornidura arazoak daude Leintz Gatzagan. Gaztainuzketa horren adibide da. Lapikoxuluetako iturburuak hornitzen zuen hura urez, baina autobideko lanen ondorioz, iturburu hori lehortu egin da.

Marotoko iturburua egokitu zuen orduan Udalak Leintz Gatzagan, baina hark ere ez du behar beste ur ematen. Udan kamioi zisternekin ibili behar izan dute. Udala irtenbide bila dabil; hain zuzen, ura herriko ur hornidura saretik Gaztainuzketara eramatea edo inguruan beste iturburu bat bilatzea aztertzen ari da.

Eskoriatzako herriak eta elizate batzuek ere urtegitik hartzen dute ura. Bi biltegi ditu Udalak horretarako: Bolibar eta Apotzagakoa. Lehenak Eraña eta Aitzorrospen dauden biltegietara ponpatzen du ura eta ondoren, inguruetako elizateetan banatzen du. Eskoriatzako Udalak, gainera, hitzarmen bat du Aretxabaletakoarekin. Azken horrek Gellao elizatea hornitzen du eta trukean, Aretxabaletako Arkarazo auzora ura eramaten du. Marulanda, Castañares, Zarimutz eta Marinek biltegi propioa dute, inguruko iturburuetatik jasotako urarekin.

Ibarreko herri gehienetan gertatzen den moduan, Oñatiko herria ere Urkulu urtegiak hornitzen du. Baina auzoek beste bide batzuk erabiltzen dituzte. Arantzazuko bizilagunei, adibidez, ondoan dagoen iturburu batetik iristen zaie ura. Hango baserritarrak gustura daude, ur arazorik ez dute-eta izaten, ez ta udan ere.

Bergarako Nekazaritza teknikari Joseba Aizpuruak azaldu duenez, bestalde, tratatutako ura udalerriko %90ra iristen da. Elosu eta Angiozar auzoetara herriko saretik ponpatzen du Udalak ura. Bada, Basalgon ez dago herriko urik. Betiko bideak erabiltzen jarraitzen dute han eta baserri batzuetan araztegi txiki batzuk jarri dituzte.

Aramaion Leintz Gatzagan moduan funtzionatzen dute. Iturburuetako ura biltegietara bidaltzen dute eta handik herritarrei banatzen zaie. Auzoetan ere gauza bera egiten dute. Udan arazoren bat edo beste gertatzen bada ere, oraindik larritzeko arrazoirik ez dagoela dio Udalak.

### ABIADURA HANDIKO TRENA

Aramaioko Zerbitzu batzordeko arduradun Joseba Jauregi, hala ere, kezkatuta azaldu da AHTak udalerrietako iturburuetan izango duen eragina dela-eta. Bost auzo kaltetuko ditu horrek: Suña, Untzilla, Azkoaga, Zabola eta Barajuen auzoetan eragin zuzena izango du. Kaletarrei arraroa irudituko zaie agian egun ur-hornidurarekin arazorik duen debagoiendarrak daudela jakitea, baina etxean ura izateko arazo larriak dituzten herritarrak badira.

SSANGYONG ACTYON 4x4 BERRIA
Mercedes-Benz Motorrarekin: 200 Xdi 141 ZP


SSANGYONG
VERTIZ MOTOR
Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10
Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66
Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99


AHORRONET ›GO
5 % U.T.B.
lehenengo urtean
Aparteko tipo bat
Hileroko aurrezki txikietarako Aurrezki Kontua
• Gutxienezko diru-sarrera: 30 € hilean
• Gehienezko diru-sarrera: 300 € hilean
• Kuota hilero sartzen da AhorroNet>Go-n eta bezeroak edozein unetan aldatu dezake kopurua.
• Interesak urtean behin ordaintzen dira.
• Kuotarik sartzen ez bada, ez da komisiorik edo penalizaziorik izango.
• Urteko interesa: % 5 (% 5eko U.T.B.)
• Eskaintza 2007/12/31ra arte egongo da indarrean.
• Internetetik bakarrik, eta 18-30 urte bitarteko gazteentzat.
Euskadiko Kutxak gazteen alde egin duen apustua
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
08001161/08-07




INAUGURAZIOA Aldekoa, Agirre eta Kunshango alkatea, inaugurazio ekitaldian, zinta mozteko momentuan. MCC

ESALDIA

**"Erreferente egokia da Txinako lehen esperientzia hau; baliteke etorkizunean horrelako industria-guneak egitea Indian, Errusian edo garatzeko bidean dauden beste herrialde batzuetan"**

**J. M. Aldekoa** > MCCko lehendakaria

**"Elkarlanari dagokionez proiektu honek duen balioa azpimarratu nahi dut; Euskadiren zatitxo bat ordezkatzen du MCCren proiektuak Kunshanen"**

**Ana Agirre** > Industria sailburua

**ENPRESAK** > MCC-REN KUNSHANGO INDUSTRIALDEA

# MCCk Kunshango industrialde berria inauguratu du Txinan

MCC taldeko lau enpresa dagoeneko hasi dira lanean industrialde berrian

Ana Agirre Industria sailburuak eta MCCko lehenkariak parte hartu zuten ekitaldian

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Eguaztenean egin zuten MCCren Kunshango (Txina) industrialdearen inaugurazio ofiziala. Hantxe parte hartu zuten MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakari Jose Mari Aldekoak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburu Ana Agirrek, Kunshan hiriko alkate Ai Guo Guanek eta Kunshango beste hainbat agintarik.

Jose Mari Aldekoa MCCko lehendakariak eskerrak eman nahi izan zizkien Txinako zein EAEko agintariei, eskainitako laguntasunagatik. Bestalde, hauxe adierazi zuen etorkizunari begira: "Txinako lehen esperientzia hau erreferente egokia izan daiteke etorkizunean horrelako industriaguneak eraikitzeko Indian, Errusian edo garatzeko bidean dauden beste herrialde batzuetan". Eta hau gaineratu zuen: "Gure nahia da hemengo langileak MCCn partaide eta protagonista sentitzea eta proiektuko kide izateaz harro egotea".

Ana Agirrek, berriz, gogorarazi nahi izan zien Txinako agintariei elkarlanerako prest dagoela Eusko Jaurlaritza.

**2009RAKO AMAITUTA**

Oraingo astean inauguratu dute Kunshango industrialdea izango denaren lehendabiziko fasea. Lehenengo fase horretan, 85.000 metro koadroko lursaila urbanizatu dute eta 15 milioi euro inbertitu. Lau enpresa kokatu dira: Orbea, Oiarso, Orkli eta Wingroup-Dikar. Guztira, 650 langilek dihardute hantxe gaur egun.

Bigarren fasean 200.000 metro koadro gehiago urbanizatuko dituzte; Fagor Industrial, Fagor Arrasate eta Batz enpresek dihardute lantegiak eraikitzen. Arduradunek espero dute bigarren fasea amaitzea 2008ko lehenengo sei hilabeteen barruan.

Hirugarren faseari dagokionez, datozen bi urteotan egingo dituzte eraikinak. Aurrez ikusten dute bost enpresa kokatuko direla eraikin horietan. Aurtengo urrian izenpetu dute hirugarren fase horretarako beharrezko diren 200.000 metro koadroak erreserbatzea.

**3.000 LANGILE**

Kunshango industrialdea Shangaitik oso hurbil dago, industria nagusi den inguru batean. Aipatu ditugun hiru faseak amaituta, 2010. urtean 3.000 langile inguruk jardungo dute industrialdean lanean. Guztira, 100 milioi eurotik gorako inbertsioa egingo dute, lusailak erosten, urbanizatzen, eraikinak egiten eta lantegiak hornitzen.

Industrialde horrekin, MCCren helburua da kooperatibei laguntzea Txinan kokatzen, horrela, Txinako zein Asiako merkatuei arrakastaz heldu ahal izateko.

**EUSKAL BASERRIA KUNSHANEN**

MCCko lau enpresen ondoan, Kunshango industrialde berrian bertan, baserri eder bat ere egin dute, Anaitasuna Enea izena duena; 1.200 metro koadro dauzka eta hiru solairu. Baserri horretan daude gerentziaren bulegoak, biltokia, 100 lagunendako jangela eta bisitariendako hamar logela, besteak beste.

Ondoko eraikin batean, bestalde, 40 lagunendako egoitza bat eta bi bazkari txandatan 1.200 lagun hartzeko lekua duen jangela jarri dituzte.

DATUA

**15**
**MILIOI EURO**

Lehenengo fasean 15 milioi euro inbertitu dituzte. Hiru faseak amaitzerako, aurrez ikusten dutenaren arabera, 100 milioi euro izango dituzte inbertituta. Hori izango da 2010. urtean.

MCC TXINAN

## Hamar lantegi dauzka Txinan MCCk

Irizar luxuzko autobusen enpresak Tianjin du lantegia eta 250 langile dauzka; Coprecik etxetresna elektrikoetarako osagaiak ekoizten ditu eta Zhuhain 85 langile dauzka; Dikar-Ningbo Wingroupek kanpin dendak egiten ditu eta 100 langile dauzka Txinan. Fagor Automationek Beijingen 40 langileko lantegia dauka; Fagor Cookware eltzeen enpresak 270 langile dauzka Shangain eta Nantong Huarong eraikuntzarako sistema industrializatuak ekoizten dituen enpresak 100 langileko lantegia dauka, Dongchenen. Eta horiei gehitu behar zaizkie Kunshango industrialdean kokatu dituzten lau enpresak. Guztira, 1.500 langile.



BASERRIA Anaitasuna Enea baserria egin dute industrialdean eta hantxe izan zen eguazteneko inaugurazio ekitaldia. MCC




OSPITALEAN Lanari laga zioten ospitaleko langileak -%75, sindikatuen datuen arabera- sarreran egon ziren elkartuta. TXOMIN MADINA

**OSASUNA** > OSPITALEAN ETA ANBULATORIOETAN PROTESTA EKITALDIAK

# Osakidetzako langileek lanuztea egin dute

Atzo, eguena, hiru orduko lanuztea eta kale agerraldia egin zituzten Debagoieneko Osakidetzako langileek

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE

Atzo, lanuztea egin zuten 08:00etatik 11:00etara Osakidetzako langileek. Ibarreko anbulatorioetan eta ospitalean egin zuten protesta ekitaldia. Kale agerraldi bakarra egin zuten, eskualde ospitalearen aurrean. Sindikatuen esanetan, ospitalean langileen %75ek laga zioten lanari.

ELA, LAB, SATSE, CCOO, UGT, ESK, SAE eta UTESE sindikatuek egin zuten deialdia; langileen %90 ordezkatzen dituzte sindikatu horiek.

**OSAKIDETZARI SALAKETAK**

Zuzendaritzarekin hainbat hartu-eman izan eta gero, gatazkak aurrera jarraitzen du eta sindikatuek gogor salatu dute Osakidetzako zuzendaritzaren jarrera. Sindikatuek argitara eman duten idatziak hauxe dio: "Osakidetzako egungo zuzendaritzak hainbat estrategia finkatu ditu gatazka honetan, eta horietako bat da hiritarrak langileen aurka jartzea. Izugarrizko soldata igoerak eskatzen ari garela diote, pribilegiatuak garela... Osakidetza gezurretan dabil. Sindikatuok ez dugu inoiz %40 inguruko soldata igoerarik eskatu".

Herritarrengana zuzentzen dira sindikatuak: "Lanuztearen helburua ez da inola ere hiritarroi kalte egitea. Alderantziz. Lan-baldintzak hobetzen badira, gaixoei ematen zaien arretaren kalitatea ere hobetuko da". Bestalde, salatzen dute Osakidetzak uko egin diola negoziatzeari.

**SAILBURUAK ERE BERBA EGIN DU**

Gabriel Inclan Osasun sailburuak agerraldia egin du asteon Eusko Legebiltzarreko Osasun batzordean; hantxe, ukatu egin ditu sindikatuen salaketak. Hauxe adierazi du: "Sindikatu guztiekin egon gara harremanetan. Negoziazioetarako mahai sektorialak zazpi batzar egin ditu". Bestalde, demagogia alde batera lagatzeko eskatu zien sindikatuei: "Herritarrendako kalitatezko zerbitzua bilatzen dutela esanda, euren lan aldarrikapenak hornitu nahi dituzte". Azkenik, iragarri zuen azaroaren 23an batzarra egingo duela sindikatuekin.

SINDIKATUEN ESKAERA BATZUK

**> LANGILE GUZTIENDAKO**
"Hobekuntzak langile guztiendako izatea, finkoa izan ala ez".

**> LAN ERRITMOA**
"Lan erritmoa eta kargak murriztea, arreta egokia eskaintzeko".

**> SOLDATAK**
"Soldaten arteko aldeak ez izatea geroago eta handiagoak".

**> EUSKARA**
"Euskarazko arreta bermatzea".

SAILBURUAK ESANDAKOAK

**> NEGOZIAZIOAK**
"Sindikatu guzti-guztiekin egon gara harremanetan".

**> SOLDATAK**
"Soldaten arteko aldea da ezagutzen dudan txikiena".

**> LAN-ORDUAK**
"Asteko 35 ordu; urtean, 1.550".

**> LAN-BALDINTZAK**
"Oso onak dira, Estatuko onenak eta pribatukoak baino hobeak".

> OSASUNA

### Gaur da gripearen aurkako txertoa jartzeko azken eguna

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina gaur amaituko da. Irailaren 24an hasi zen eta, hasiera batean, urriaren 31ra arte irautea aurreikusita zegoen. Bada, epea luzatu egin dute eta gaur izango da txertoa jartzeko azken eguna.

65 urte beteak dituzten pertsonek nahikoa dute ohiko osasun zentrora joanda, txertoa jartzeko. Pertsona diabetikoei edo gaixotasun kronikoren bat dutenei ere gripearen aurkako txertoa ipintzeko gomendatu die Osakidetzak.

> AHT

### AHTren gaineko konferentzia izango da bihar Hernanin

Biharko, zapatua, AHTren inguruko egun osoko konferentzia antolatu du AHT Gelditu! Elkarlanak, Hernaniko Sandiusterri aretoan. Proiektu horrek ingurumenean eta gizartean eragingo dituen kalteen gaineko eztabaida piztu gura dute.

Bestalde, Bergarako AHTren kontrako taldeak hilaren 22an, 23an eta 24an egingo duen AHTren aurkako asteburua dela-eta, irratsaio berezia izango da Txapa Irratian hilaren 21ean, 22:00etan.

> EUSKARA

### Topagunearen jardunaldietan izena eman daiteke oraindik

Datorren azaroaren 23an Topaguneak VII. jardunaldiak egingo ditu Donostian, Miramon parke teknologikoan. *Euskara elkarteak ibilian* lelopean egingo diren jardunaldietan parte hartzeko epea hilaren 19ra arte luzatu du Topaguneak.

Euskara elkarteen gainean jardungo dute Donostian. Izena emateko orria euskaratzeko *www.e2ibilian.org* webgunera sartu behar dira interesatuak.

**OSASUNA** > MINGAIN URDINAREN GAITZA

## Diputazioa mingain urdinaren gaitzaren aurkako txertoak ipintzen hasi da dagoeneko

Ardiei txertoa jartzen hasi ziren eguaztenean eta urtea amaitu bitartean iraungo du mingain urdinaren aurkako kanpainak

**GOIENKARIA** > BERGARA

Mingain urdinaren gaitza dela-eta, urtea amaitu bitartean Gipuzkoako 165.000 ardiri txertoa jarriko diete, tartean ibarrekoei ere. Hala jakinarazi zuen eguaztenean Landa Garapenerako Departamentuko buru Rafael Uribarrenek. Kanpaina abian jarri dute dagoeneko. Txertoa jarritako lehenengo animalia horiei beste dosi bat eman beharko zaie lau asteren buruan.

Mingain urdinaren gaitzak behiei ere eragiten die, eta, beraz, haiei ere txertoa jarriko dietela azaldu zuen Uribarrenek. Kanpaina hiru aste barru hasiko da. Txertoen kostuak Diputazioak hartuko ditu bere gain.

0 km
ESKAINTZA BEREZIAK
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

**ENERGIA** > ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

# Kontsumo txikiko bonbillak eman dituzte

Arrasateko Seber Altube plazan kontsumo txikiko bonbillak opari egin zituzten martitzenean, etxean energiaren kontsumoa murrizteko asmoarekin


ARRAKASTA Jende asko joan zen oparia jasotzera. MIREN ARREGI

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE/EVE) energia aurrezteko beharraz kontzientziatzeko kanpaina jarri du abian. Hain zuzen ere, kontsumo txikiko bonbillak opari egiten dizkiete herritarrei, etxeetan energiaren kontsumoa murrizte aldera. Hala, joan den martitzenean Arrasateri egokitu zitzaion kanpaina hori hartzea.

Arrasateko Udalarekin lankidetzan, 75 watten baliokide diren kontsumo txikiko bonbillak banatu zituzten Seber Altube plazan, goizez eta arratsaldez. Eta horrekin batera, etxeko argia aurrezteari buruzko gida bat, ibilgailuendako biokarburanteen eta autoen doako gidatze-ikastaroen gaineko bi informazio-liburuxka.

**ARRAKASTA**

Ekimena arrakastatsua izan zen, egun osoan zehar etengabe sortu ziren-eta ilarak Seber Altube plazan. Eguerdirako, gainera, arratsaldean banatzeko gordeta zeuzkaten bonbillak opari egiten hasi ziren.

Opariak jasotzeko nortasun agiriren bat erakutsi behar izan zuten interesatuek. Batek baino gehiagok, gainera, bi opari sorta eskuratu zituen, pertsona bakoitzari bere eta beste norbaiten nortasun agiriarekin joateko aukera eskaini zioten-eta.

Arrasaten ez ezik, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste zenbait herritan ere kanpaina bera egiteko asmoa dago.

**LANA** > LANGILEEN PROTESTAK

## Gipuzkoako Urak enpresako langileek eskatzen dute lan hitzarmena sinatzea

Enpresako buruek diote langileen eskaerak onartzeak %60 handituko lituzkeela kostuak eta ezin dutela onartu

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Gipuzkoako Urak enpresako langileek protesta ekitaldiak egiten dihardute. Eguaztenean, Bergarako San Martin plazan egin zuten kale agerraldia; ekitaldi zaratatsua egin zuten, txistuka jardun zuten, ozen, euren haserrea adierazteko.

**HITZARMEN PROPIOA HELBURU**

Enpresako langileen batzordea osatzen dute ELA sindikatuko bost ordezkarik eta LABeko lauk. Batzorde horrek eskatzen du langileen lan-baldintzak arautuko dituen hitzarmena negoziatzea; batzordeko ordezkarien esanetan, negoziazioak blokeo egoeran daude eta enpresako zuzendaritzako kideek ez dute blokeo egoera horrekin amaitzerik nahi.

Egunero lan-jardunean sortzen zaizkien arazoak konpontzea da batzordearen helburu nagusienetakoa; besteak beste, langileen bajak betetzeko eta egin beharreko guardiak egiteko arazoak izaten dituzte eta guardia asko egin behar izaten dituzte, euren esanetan.

Enpresako zuzendari Iñigo Elosegik adierazi du langileen eskaerak onartzeak kostuen %60ko igoera ekarriko lukeela eta hori inola ere ezin dela onartu: "Hala ere, enpresako administrazio kontseilua prest dago negoziatzeko, baina, betiere, zentzuzko marko baten barruan", gaineratu du.



PROTESTA Kale agerraldia, Bergaran.



## gure artekoak

**VOLKSWAGEN PASSAT** > Merkatuan aspaldi dauka bere lekua hartuta Volkswagen etxearen automobilik osoenetakoak, Volkswagen Passatek, hain justu. Bergarako Aseginolazan izan gara automobila ezagutzen.

**Inma Gomez** > Aseginolaza kontzesionarioko komertziala

# "Segurtasun sistema osoa eskaintzen du Passatek"

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Automobil dotorea dotorerik bada. Horrelakoxea da Volkswagen Passat automobila. Dotorea, ederra, osoa, erosoa, baina, batez ere, segurua. Horrexeri ematen dio berebiziko garrantzia Aseginolaza etxeko Inma Gomez komertzialak: "Segurtasun sistema osoa eskaintzen du Passatek eta merkatuko automobilik seguruenetakoa da. Horixe da, nire ustez, automobil honek eskaintzen duen gauzarik garrantzitsuenetakoa".

Serietik ekartzen ditu segurtasun sistema guztiak, ESP sistemaren barnean.



Inma Gomez, Aseginalaza kontzesionarioan, Passat automobilarekin. A.I.

**SERIETIK, ZERBITZU GEHIENAK**

Segurtasun sistemez gain, gainerako zerbitzu gehienak ere serietik ekartzen ditu, aparte ordaindu beharrik gabe: bi zonako airegirogailua, Tempomat (abiadura kontrolatzeko sistema), ordenagailua, irrati-CDa, 10 airbag, hagunak (llantak), leihoak automatikoki zabaldu eta ixteko sistema, ateak ixteko sistema zentralizatua, urrutiko agintedun giltza eta alarma, besteak beste.

Segurtasunarekin jarraituta, aipatzekoa da automobilaren txapa galbanizatua dela; txapa hori oso gogorra da eta babes handiagoa ematen du.

### VW Passat 2.0 Tdi 140 ZP Advance

| | |
|---|---|
| Prezioa | 29.730 euro |
| Luzera | 4,76 metro |
| Zabalera | 1,82 metro |
| Maletategia | 565 litro(1) |
| Kontsumoa | 5,8 litro /100 km(2) |
| Abiadura | 209 km/h(3) |
| Otik 100era | 6,9 seg. |
| CO2 isurketak | 158 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**PUNTAKO TEKNOLOGIA**

Volkswagenek puntako teknologia darabil. Automobilak ez dauka eskuko balaztaren palankarik. Botoi bat sakatzea nahikoa da autoa geldi lagatzeko. Segurtasunagatik, sistema hori indargabetzeko ez da nahikoa botoia sakatzea; hankarekin balazta zapalduta izan behar da eta gero botoia sakatu. Bestela, segurtasun uhala jarri eta azeleratzeko palanka zapaltzen dugunean, automatikoki indargabetzen da. Azkenik, aipatzekoa da automobila martxan jartzeko giltza ere berezia dela, txartel antzerakoa.

## etxeko leihotik



**Eneko Azkarate** > GOIENKARIAko zuzendaria

# Kooperatibak Txinara eta txinatarrak Realera?

De la Peñak dimisioa aurkeztu du eta urtarrilaren 3rako agindu ditu hauteskundeak. Agur Denon errealekoei eta haien biurteko beltzari. Agur? Ikusi behar.

Reala krisian dago. Egitura eta eredua bera daude krisian. Noraezean dabil futbol talde nagusia eta zorrak handituz doaz. Kirol Sozietate Anonimoen garaian, denon artean banatu nahi dugu jabegoa, akziodun atomizatuekin. Demokratikoagoa eta geurekoagoa delakoan. Baina horrela zaila da goian jardutea. Gainera, ez da erreala. Kimera bat. Gogora ezazue Fuentesek dimisioa aurkeztera bultzatu zuen auzia.

Eta orain? Azkargortak dioen moduan, "arduratu gaitezen bigarren mailara eroan gaituztenengatik eta ez txinoengatik". Ze, batzuk asaldatu egin baitira kapital txinatarra duen enpresa bat Realeko akziodun handiena izan daitekeela entzun dutenean. Eta surrealista iruditu zaie. Nik, ostera, uste dut hori dela irtenbidea eta zalantzan jarri beharko genituzkeela oraingo eredua..., eta ondorioak: kudeatzaile eskasak, diru zor handiak, diru sarrera berriak sortzeko baliabide eta alternatiba gutxi, beti *aita-diputazioaren* babespean...

**"Zalantzan jartzekoak dira Realeko oraingo eredua..., eta bere ondorioak"**

**> Iñaki Badiola enpresa txinatarraren buruak aurpegia ez du erakutsi oraindik eta Realarendako dituen asmoak ezagutarazteko hedabide jakin bat erabili du. Gardentasunik ez. Hasiera txarra.**

**> Alternatiba gutxi geratzen zaio Realari. Badiolarena da bakarrenetakoa. Santosen izena entzun da, baina hark orain arte agintean egon direnen babesa beharko du. Horrek esan nahi du oraingoarekin jarraitzea.**

## begi-bistan



### Ondartzako loratегia (Bergara)
**2007/11/15**

**Argazkia:** Aintzane Irizar.
**Testua:** Aintzane Irizar.

Ondartzako biribilguneko loretegia hankaz gora dago, baina dotore-dotore jarriko dute laster. Loretegi bitxia egingo dute; harri zati handiak jarri dituzte eta orain, loreak jartzea falta da.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



### Benito Cantero
ARGAZKILARIA

Zarauzko Torre Luzea kultura aretoan XV. Nazioarteko Argazki Mostra antolatu dute.

Azaroaren 9an zabaldu zuten eta argazkiak ikusgai egongo dira abenduaren 9ra arte. Bost argazkilariren lanak jarri dituzte ikusgai, tartean Benito Cantero bergararrarenak.



### Jokin Labaien
BERTSOLARIA

Hala Bedi irratiko *Bertxoko* irratsaiotik sortutako Bertxoko txapelketa jokatzen dihardute. Aurreko astean, lehen kanporaketan, finalerako sailkatu zen Arrasateko Jokin Labaien. Biharko Etxabarri-Ibiñako kanporaketan parte hartuko du Manex Agirre aramaioarrak.



### J. M. Velez de Mendizabal
IDAZLEA

Doke antzerki taldeak iaz estreinatu zuen Pedro Ignacio de Barrutia (1682-1759) aramaioarraren *Actto para la Noche Buena*. Berriro eskainiko dute aurten; Aramaion, abenduaren 17an. Velez de Mendizabalek moldatu zuen testua gaur egungo euskarara.

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak (EAE) 'Ilustrazioa, ilustrazioak' izeneko nazioarteko kongresua egingo du azaroaren 14tik 17ra. Atzo, elkarteko 80 kide inguru batu ziren Bergaran. Elkarteko presidente Jose Maria Urkiarekin berba egin dugu kongresuaren, elkartearen eta Bergarako herriak elkartean izan duen garrantziaren gainean.

**Jose Maria Urkia** > Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko presidentea

# "Bergara izan zen XVIII. mendean gure elkarteko altxor garrantzitsuena"

JASONE ZABALA > BERGARA

**Atzo, azaroak 15, izan ziren Euskalerriko Adiskideen Elkarteko kideak Bergaran, bertan egin zen kongresuan parte hartzen. Nazioarteko hainbat aditu bildu ziren eta hainbat gairi buruz hitz egin zuten. Hain zuzen ere, elkarteko presidente Jose Maria Urkia donostiarrarekin hitz egin dugu.**



Jose Maria Urkia, Euskalerriko Adiskideen Elkarteko presidentea. JASONE ZABALA

**Zergatik erabaki duzue kongresua Bergarara ekartzea?**

Guretzako Bergara Azkoitia bezain garrantzitsua da. Elkartea 1764. urtean sortu zen eta Bergaran 1769an ezarri zuen egoitza. Bergaran elkarteak gauza asko ditu. Alde batetik, Peñafloridako kondea Bergaran hil zen. Eta esan beharra dago hemen eman zela ezagutzera elkartearen proiektua. Baina zergatiaren arrazoi garrantzitsuena Bergaran sortu zuten Bergarako Mintegi Aberkoia da (Seminario Patriotico de Bergara). Punta-puntako gune zientifiko ospetsuena zen Bergara XVIII. mendean, eta Espainia eta baita Europa mailan garrantzi handia izan zuen, aitzindaria izan zen. Erakunde honetako kide ziren Olasotarrak, esate baterako.

**Zer esango zenuke eman diola Bergarako herriak EAEri?**

Herri bezala babes handia eman zion elkarteari. Xabier Maria Munibe,Peñafloridako kontea, Azkoitia utzi eta Bergarara joan zen bizitzera, eta hemen hil zen. Bergarako lagunekin eman zuen ezagutzera elkartea kondeak. Erakundeen aldetik, Errege Mintegia eta orain ere hemen dagoen artxiboa elkarteko aberatsenetakoa da. Beraz, bai herriak eta baita bertako kideek eman diote zerbait elkarteari.

**Zein garrantzi du Bergarako Errege Mintegiak elkartearen sorreran eta hazkundean?**

Seguru aski Errege Mintegia gauzarik garrantzitsuena izango da. Bergara izan zen XVIII. mendean elkarteko altxor garrantzitsuena, eta urtetan zeharreko historia ospetsuena beti Bergararekin lotzen da.

**XVIII. mendean Bergaran hainbat asmakizun egin zituzten. Zer ekarpen egin dute asmakizun horiek gerora?**

Hain zuzen ere, wolframioaren aurkikuntza eta platinaren aldakortasuna ere lortu zen. Bergara XVIII. mendean zientziaren gune bihurtu zen.

**Bergarak kultura erreferentzia izaten jarraitzen du?**

Bergarak kultura aldetik baditu historikoki hainbat ikur eta eraikin historiko. Momentu honetan UNED akademia zentroa ere badu. Bergaran sortu zen 1850. urtean lehenbiziko ingeniari eskola. Espainia guztian lau kokatu ziren. Bergaran lehenengoa, eta beste hirurak Madrilen, Bartzelonan eta Sevillan. Beraz, ikus daiteke Bergarak zein garrantzi izan duen.

**Europa mailan zein balio eman dio jendeak Bergaran egindako aurkikuntzei, ikerketei...?**

Nire ustetan, zientifikoki maila handiena. Jendeak jakin badakielako wolframioa Bergaran lortu zela. Kimikan erreferentzia handienetako bat da Bergara.

**Zure ustez elkarteak hasieran zeuzkan helburuak gaur egun lortu egin dira?**

BERGARA

**"Herri bezala, Bergarak babes handia eman zion elkarteari; Bergara izan zen XVIII. mendeko altxor garrantzitsuena"**

ERREGE MINTEGIA

**"Seguru aski elkartearen sorreran Errege Mintegia gauzarik garrantzitsuena da"**

ERRONKAK

**"Azkoitiko Insausti jauregia martxan jartzea eta Bergararekin lotura sendoagoak lortzea dira gure erronka nagusiak"**

Garai hartan aurrerakuntza handia izan zen. Gehienbat enpresa munduan, baina baita ikaskuntza mailan ere; eta gaur egun aitzindari izaten jarraitzen du gure elkarteak.

**Zergatik *Irurac bat*? XVII. mendean zeukan esanahi bera mantentzen jarraitzen duela uste duzu?**

Nik uste dut oso barrukoa den gauza bat dela. Garai hartan aldundiek indar handia zuten eta probintzia bakoitzak bere bizitza egiten zuen, bere nortasuna zuen.

Gaur egun, ordea, konturatzen zara zein zaila den hiru herrialdeak adostasunetara heltzea, eta honek nik uste dut badaukala gaurkotasun bat. Izan ere, *Irurac bat,* azken baten, Euskal Herria sendotu eta osatzea da. Garai hartan amets hori bazegoen hor, eta gaur egun ere hori lortzeko egin beharreko lanak badaude, gure herriak, txikia izan arren, nortasun handia daukalako.

**Zein da Bergarako kongresuaren helburua?**

Bergaran zientzia arloan kokatu dugu kongresua, eta honen gainean aztertuko dugu; izan ere, Ilustrazio garaian, Bergara zientziari zuzendutako ikerketetan izan zen garrantzitsua.

**Nortzuek osatzen duzue elkartea?**

Pertsona eta pentsamendu asko daude elkartean, baina badute elkarrekin antzekotasun bat: denek Euskal Herriaren eta bertako kulturaren alde lan egiten dute.

**Zeintzuk dira EAE elkartearen etorkizuneko erronkak?**

Erronken artean Azkoitiko Insausti jauregia martxan jartzea dago, elkartearen egoitza izateko; bigarrenik, ikerkuntzaren erreferentzia zentroa egitea; hirugarrenik, Bergararekin lotura sendoagoak lortzea; eta azkenik, arlo horretan aitzindaria izango den gune bat sortzea.



zabalik

Urko Lopez

# Petrolio gehiago?

Energiaren Euskal Erakundeak EAEk behar duen energiaren %70 produzitzen duela esan du. Hala eta guztiz ere, berri honekin batera beste hainbat ere agertu dira. Honela, azaroaren 7an, Nazioarteko Energia Erakundeak 2015. urterako krisi bat aurreikusi zuen petrolio horniketan, herrialdeek petrolio eskarian neurriak hartu ezean. Energia alternatiboen erabilera eta dauden energia iturrien kontsumo arrazionalagoa hartu beharrezko neurriak bihurtzen dira testuinguru honetan.

Azaroaren 9an, aldiz, Brasilek, hedabideen arabera, petrolio gehiago aurkitu zuen Tupi eskualdeko uretan. Honekin, herrialdea munduko petrolio herrialde produktore eta esportatzaile handienen artean kokatuko litzateke, modu horretan, dituen estutasun ekonomikoak murriztuz. Printzipioz, petrolio gehiago egon beharko luke merkatuan.

Dena den, honek ez du esan nahi arazoak konponduta daudenik, eta are gutxiago guretzat. Garraioari dagokionez menpekotasun handia dugu petrolioarekiko. Brasileko aurkikuntza honek, dugun kontsumo hazkorrarekin, urte batzuk besterik ez du atzeratuko petrolio hornidureren krisia.

> **"Gizakia beti izan da oso aditua gaitzei konponbidea bilatzen, baina gehienetan pairatu ostean"**
>
> **"Ez da logikoa beti erregai fosilen sorgune berriei itxaron behar izatea"**

Gizakia beti izan da oso aditua gaitzei konponbidea bilatzen, baina gehienetan gaitza pairatu ostean. Honela, energia iturri berriak garatzea inoiz baino beharrezkoagoa bihurtzen da, horniketa arazoei aurre egiteko.

Ez da logikoa beti erregai fosilen sorgune berriei itxaron behar izatea. Gobernuek energia iturri berrietarako I+G jarduerak bultzatzen dituzte. Halere, autogintzari loturiko enpresek ere pausoak eman behar dituzte, petrolioarekiko dugun morroitza murriztu nahi badugu behintzat. Denborak esan beza.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Aintzane Irizar, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## GAIZKI APARKATZEAGATIK JARRITAKO ISUNENGATIK KENDUKO DUTE PUNTURIK?

**Bergarako irakurle bati isuna jarri diote asteon eta orduan piztu zaio zalantza: gaizki aparkatzeagatik jarritako isunagatik gidabaimeneko puntuak gal ditzaket?**

Kasu gehienetan ez. Puntukako baimena da sistema bat sortu dutena batik bat zigortu gabeko errepideko segurtasun-gabeziaren kontra egiteko. Hala, bakarrik kenduko dituzte bi puntu aparkatzea egiten denean honako lekuetan: bihurguneetan, aldapa-gainaldeetan, tuneletan, azpiko pasabideetan, bidegurutzeetan edo zirkulazioarendako edo oinezkoendako arriskutsua izan daitekeen beste edozein lekutan aparkatzeagatik.

Baimendu gabeko lekuetan aparkatzea edo gune urdinean ordaindu barik aparkatzea puntutako gidabaimenaren penalizazio zerrendatik kanpo geratu dira. Bigarren lerroan aparkatzea eta bestelako aparkaleku araugabeak ere ez dira zigortuko, baldin eta ez badute lehen esandako arriskurik sortzen.

Hala eta guztiz ere, balda salbuespen bat. Bada arriskurik eragiten ez duen arren bi puntu galtzea dakarren aparkatze mota ere: garraio publikoaren zein urbanoaren erreian aparkatzea edo geratzea, hain justu ere. Gidari batek gidabaimena gal dezake baldin eta sei aldiz egiten badu hori –edo lau, gidari berria bada–.

Furgonetarekin diharduten banatzaileek eta taxi gidariek ere errespetatu beharko dituzte arauok.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## ZARZUELARAKO SARRERAK SALTZEN HASI DIRA?

**Arrasateko irakurle batek oso gustuko du zarzuela. Jakin badaki Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak urtero egiten duela zarzuela bat Gabonen atarian. Hori horrela, jakin nahi du aurten ze obra eskainiko duten, noiz eta sarrerak saltzen noiz hasiko diren.**

Bada, bai, aurten ere Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko kideek zarzuela antzeztuko dute Arrasaten, eta buru-belarri jardun dute hainbat hilabetez guztia prestatzen. Hain zuzen ere, *El duo de la africana* obra egingo dute.

Azaroaren 24an, 25ean, 30ean eta abenduaren 1ean izango da Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren zarzuela, Amaia antzokian, ohi bezala, eta dagoeneko jarri dituzte salgai sarrerak. Arrasate Musikalen hasi dira saltzen, hain justu ere, 12 euroren truke, bazkideendako. Gainontzekoek 15 euroren truke erosi ahal izango dituzte Amaia antzokian, azaroaren 19tik aurrera. Azaroaren 19an 17:00-20:00 ordutegian eta gainerako egunetan –abenduak 1era bitartean– 18:00-20:00 ordutegian.

marrazkiz

Unai Busturia




blog

## Abortion is Killing

**Edorta Arana**
www.goiena.net/blogak/hamaika

Opus Deiren kanpaina baten spota zela pentsatu nuen, lehen aldiz entzun nuenean. .

*Live is life* gainera abortuaren kontrako eslogan egokia iruditu zitzaidan, non eta Nafarroan, noiz eta Osasunbidean "kontzientzia" eragozpena onartzen zaienean medikuei bezeroen eskubideak errespetatzen ez diren bitartean eta zeinek eta Sanzen gobernuak emakumeei EAEra ala Errioxara "enbarazuez" libratzeko "bidaia" ordaintzen dienean, inongo traba moralik gabe.

Benetan, jainkoa testigu, Opusen obra zela pentsatu nuela!

Baina ez, *Life is live* Gaztearen promozio kanpainaren barruko ekitaldia da. Azaroaren 17an, Bilboko La Alhondigan grabatzekoak ei diren promorako deia.

Eta Opus Deik ez duenez zerikusirik izan kantaren aukeraketan, nori otu zitzaion Opus musika talde plasta horren kanta topiko, metxeroa-piztu-eta-denok-batera-besoak-astindu eta ñoñoa aukeratzea Gaztearen webguneari bultzada emateko?

La if is la if!

## Euskararen apologista erdaldunak

**Asier Azpilikueta**
www.berria.info/blogak/azpilikueta

Manuel Larramendiren eta antzeko apologisten jokabidea ez dut sekula gustuko izan. Beharrezkoa

plazara

Jateko ohituretan izan diren aldaketak, ariketa fisiko gutxi egitea... Hainbat dira umeen loditasunean eragiten duten faktoreak. Geroago eta ume lodi gehiago dagoela errealitatea da eta oso kontuan hartu beharrekoa, gainera. Mireia Alberdi dietistak loditasunak umeengan izan dezakeen eragin kaltegarriez dihardu eta nabarmen azpimarratu du gurasoak direla umeek jaten dutenaren erantzule.

**Mireia Alberdi ***

# Umeen loditasuna goraka doa

Azken denboran asko hitz egiten da loditasunaren inguruan eta asko ere umeen artean gertatzen ari den arazo honen inguruan. Baina egia al da gaur egungo umeak lodiak direla? Eta hala bada, zer? Arazo bat da? Zerk eraman gaitu egoera honetara? Noren esku dago arazo honi irtenbidea ematea?

Datuak argiak dira: umeen artean loditasuna goraka doa azken urteetan oso modu kezkagarrian. Estatu Espainoleko datu batzuk emango ditut adibide gisa: 1980an umeen loditasuna %5ean zegoen; hamar urte geroago, 1990ean, %6an; eta 2004. urteko datuetan %14an!!! Lehen, progresioa aritmetikoa zen; orain, berriz, dagoeneko geometrikoa da.

Baina zer dela eta gorakada ikaragarri hau? Faktoreak asko dira, eta elkarren artean lotura dute. Kasu gehienetan loditasuna agertzen da beharrezkoak direnak baino kilokaloria askoz gehiago hartzen direlako.

Gaur egun umeek ariketa fisiko askoz gutxiago egiten dute, adibidez: asko eta asko eskolara autobusez joaten dira, telebista aurrean orduak pasatzen dituzte, beraien jolas moduak lehengoak baino sedentarioagoak dira, jolas egiteko lekuak herrietan asko murriztu dira... Hori gastuari dagokionez.

Eta bestalde jateko modua erruz aldatu da azken urteetan. Duela 20 urte etxe gehienetan ez zen jaki prekozinaturik sartzen; bolleriak ere ia ez zuen tokirik (ogia eta Maria galletak jaten genituen); bazkal eta afalorduan menu bakarra zegoen eta ez




MIKEL ARROIABE

bakoitzari gehien gustatzen zitzaiona; ospakizunak ez ziren horren sarri egiten, eta janaria sari bezala ez zen horrenbeste erabiltzen.

Zer-nolako ondorioak ditu loditasunak umeen bizitzan? Gehienbat osasun arloan egingo dut nik aipamena, nahiz eta beste batzuek psikologikoan ere baduela onartzen duten arren.

Loditasunak eta diabetesak oso lotura estua dute; bihotzeko arazo gehiago izateko arriskua nabarmen handitzen da, nagusiak izatean lodiak izateko aukera gehiago dago, tentsio altua, hiperkolesterolemia, arnas arazoak, arazo ortopedikoak... Azken finean, umearen bizi kalitatean eragina izango duten osasun arazoak.

**"Kasu gehienetan loditasuna agertzen da umeak beharrezkoak dituen baino kilokaloria gehiago hartzen duelako"**

**"Gure umeak plater 'hori' ez duela nahi esaten badigu, pasa hurrengora; baina inoiz ez eskaini beste bat"**

Eta honen guztionen aurrean zer egin dezakegu? Ba al da konponbiderik?

Lehenik eta behin, ziur egon behar dugu egiten ari garenaz eta zertarako egiten ari garen. Gaur egun arazoa ez datza gabezian, kontrakoan baizik. Gehiegi jaten dugu eta, gainera, kalitate txarrekoa. Horregatik, egun baten gure ume batek ez duela plater "hori" jan nahi esaten badigu, lasai eta pasa hurrengo platerera. Baina inoiz ez eskaini beste zerbait. Etxean menu bakarra dago, gustuko izan edo ez.

Batzuetan beraiei ere sukaldean aritzeko eta platerak prestatzeko aukera ematen diegunean, errazago egiten zaie jaki horiek jatea, beraiek ikusi dutelako nola prestatzen diren eta ze osagai eramaten dituzten.

Zerbait gustuko ez dutenean plater handi bat eskaintzen badiogu ziurrenik ez dute probatu ere egingo, baina agian beste plater batean, erdi kamuflatua edo guarnizio bezala aurkeztuz gero, beraiekin goilarakada pare bat negozia ditzakegu...

Argi dagoena zera da: ume batek ez dauka gaitasunik zer komeni zaion erabakitzeko. Hori guraso (edo beraien arduran dauden helduen) esku dago. Eta hau argi eta garbi esan behar da. Ume batek ezin du erabaki zer jan behar duen eta zer ez. Hori helduon esku dago.

*Mireia Alberdi, dietista-nutrizionista da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Ondo deritzozu txinatarrek Reala erosteari?

| | |
|---|---|
| BAI | %100 |
| EZ | %0 |

**> BAI**
Realak zerbait behar du zulotik irteteko. Sekulako zorra du eta horri buelta emateko zerbait egin behar du eta irtenbidea txinatarren dirua baldin bada, bada, aurrera.
**Mikel**

**> ALDAKETA BEHARRA**
Garbi daukadana da gaur egungo zuzendaritzak kalte besterik ez diola egin Realari. Gestioa oso txarra izan da. Hortaz, guztiak kanpora! Bestalde, zorra oso handia da eta horrek zalantza jartzen du taldearen etorkizuna. Horren aurrean ongi etorri izan dadila txinatarren dirua.
**Aitor**

**> BAI**
Dirua beti da ongi etorria. Lan bila Txinara joaten baldin bagara zergatik txinatarrei Realean inbertitzen laga ez? Egin beharko luketena da proiektua ahalik eta azkarren aurkeztu. Agian horrela susmo txar asko isilaraziko lituzkete.
**Xabier**

**DATORREN ASTEKOA: Etxeko lanak ordaindu egin beharko lirateke?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

ikusten dut euskararen aldeko apologia egitea (eta haren aurkako erasoak salatzea), baina apologia hori beti gaztelaniaz egitea euskararen aurkako bertze erasotzat har genezake.

Nafarroan, euskal alderdi abertzaleek prentsa-oharrak gaztelaniaz bidaltzeko ohitura dute. Badira mailak, noski, eta batzuek euskarazkoak ere bidaltzen dituzte. Konparazio batera (Euskal Herrian Euskarazen azterketa sakonago baten esperoan), Aralarrek gaztelaniaz bidaltzen ditu Iruñeko bulegotik ateratzen diren gehienak (euskarari buruzko batzuk izan ezik); aldiz, ele bitan ailegatzen zaizkigu Iruñera Gasteiztik edo Nafarroako iparraldetik bidaltzen dituztenak. Batasuna saiatzen da elebitasunari eusten, baina askotan ez du lortzen –gaztelaniaren mesedetan beti, jakina–; nahiz eta, egia den, euskarari buruzko oharrak euskaraz izaten diren. EAE-ANVk, ordea, bere izenari gorazarre eginez, ele bitan bidaltzen ditu ohar guztiak (Iruñeko udal taldetik ailegatzen zaizkigunak, bederen). EAJk, beti gaztelaniaz. Batzarrek ere bai (tira, horrek ez du bere burua "abertzaletzat" jotzen). Eta Eusko Alkartasunak… Ai… Alderdi guztien artean apologistena da; salatzen duen horretan gehien erortzen dena ere.

Prentsa ohar guztiak gaztelaniaz bidaltzen ditu EAk. Ez gaztelania hutsez, oharren bukaeran "Prentsa bulegoa" euskarazko hitzak sartzen baitituzte. Eusko Alkartasunaren aldetik, ohikoa da Nafarroako Gobernuari elebitasuna exijitzen dioten oharrak bidaltzea (ez-dakit-zein errepidetako seinaleak gaztelaniaz daudela, hango eta hemengo eskuorrietan euskarazko hitzik ez dagoela...). Ohar horiek beti gaztelaniaz bidaltzen dituzte. Antza, ez dute batere kontraesanik ikusten jardun horretan. (...)

koplak

**Irati Agirreazaldegi**

## Erregea erreta errietan

Zarzuela jauregitik
dator notizia.
Ez, ez, ez dago berriz
haurdun Letizia.

Maritxalar omen da
separatzen dena;
ohean horren ona
ez ei da Elena.

Ohe kontuak hobe
ez ditzagun aipa;
publiko egitea
delitua baita.

Eguenez marraztea
ei da delitua;
ta ixilaraztea,
a ze meritua!

"Ixil hadi behingoan,
ixil hadi, Chavez".
Hori esatearren,
horrenbeste babes.

Notizia asteon
*gure* erregea;
berori ixiltzea,
ez al zen hobea.

## Hileta zibilak gure artean

**Iñaki Barrutia**
Arrasate

Malen joan zen eta agerian gelditu dira geure kide ideologikoak agurtzeko ezkertiarrok ditugun hutsuneak. Malenek zuen bere inguruan jende konprometitu mordo bat eta horrek bere agurra antolatzea erraztu zuen.

Gure gizartean gero eta agnostiko gehiago dago eta, beraz, hala nahi duten guztiek aukera izan beharko lukete hileta alternatibo bat izateko; hau da, hileta zibila normaltasunez egitera iritsi beharko genuke. Hileta zibila egitea eskubide hutsa izatetik ohitura izatera pasatu behar da, eta ezkertiarrei dagokigu erronka hori gainditzea. Heriotzari naturaltasunez aurre egitea oso zaila da, bai norberarena bai lagun batena bada. Egoera horretan, ez dakigu zer esan, zer egin ezta zelan osatu azken agurra. Azken agurra biguntzeko harremana heldua eta izerdituta izan behar da.

Pertsona bat hiltzen denean beharrezkoa da azken agurra egitea. Azken agur hori, normalean, intimitatean sortzen da, baina jendaurrean ere egitea beharrezkoa da, era publiko batean nolabait esatearren. Agur sozialak dolua garatzeko balio du eta doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko tresna egokia da. Hau da, azken agurra sentimenduak azalarazteko eta harremanen hausturak eragindako hutsunea osatzeko izan beharko litzateke. Azken agurrak testuinguru pertsonala eta soziala behar du.

Lekua testuinguru kuttunen azken borondatearen menpe dago, baina agurtzeko leku sozial bat izatea udalaren ardura izan beharko litzateke. Agurrak beharrezkoak dira sentimenduak bideratzeko eta sentimenduari laguntzeko batzuei bertsoak dagozkie, beste batzuei aurresku, poema edo abesti bat. Agurra eduki lagungarriaz betetzea senitarte eta lagunen betebeharra da, baina horretarako leku apropos bat behar dugu gure herrian eta hori udalari dagokio.

Azkenean mezuak testuinguruarekin lotuta egon behar du, sinestunak elizan, meskitan edo bere erlijioaren arabera dagokion lekuan. Sinestun ez garenok era publikoan gure azken agurrak edo omenaldiak egiteko eskubidea dugu eta eskubide hori paperean idatzitako dokumentua besterik izan ez dadin, hileta zibila ohitura izatea bultzatu behar dugu. Sinestun ez garenok agur soziala antolatzeko leku bat behar dugu eta erritual egin ahal izateko tresnak ere bai. Mezuak testuinguruarekin lotuta egon behar du. Udalari dagokio leku eta baliabideak martxan jartzea eta guri, berriz, lekua eduki pertsonalaz janztea. Azken agurrak sinbolo esanguratsuak behar ditu, trapu beltz, gorri, arrosa edo hiru koloretakoa, bertsoak, poemak, abestiak, aurreskua, txalaparta hotsa edota ukabila altxatzea.

Sinbolo horiek hiletari zentzu berezi bat emateko balio dute eta baita emozioek testuinguru sozial esanguratsu bat izan dezaten. Beraz, hasi gaitezen leku egoki bat topatzen eskaera honek izen eta leku propio bat eduki dezan. Agur, Malen.

## Joan dira... jarraitzen dute

**Joseba Rodriguez** > Arrasate

Joan zen Fuentes..., baina jarraitu zuen De la Peñak. Badoa De la Peña..., baina jarraitzen du Lartzabalek. Lartzabal joango da..., baina jarraituko du Santosek. Zeinen babesarekin? Fuentesek, De la Peñak eta Lartzabalek batzen zuten akzioen babesarekin, gehiengoarekin. Eta erakunde publiko eta Gipuzkoan agintzen duten alderdi politikoen babesarekin.

Hau da, betikoek jarraituko dute agintzen, akzioen gehiengoa dutelako eta aire fresko berriari, Badiola eta txinatarrei, ez diete lagako Realean sartzen. Penagarria da, baina horrela da. Eta urtebete barru, berriro ere krisia, istiluak, hauteskundeak... Lotsa eta nazka ematen du, baina hala da. *Quo vadis* Real Sociedad.

Aukera bakarra Badiolaren egitasmoa da. Akziodun handi bat, txiki asko beharrean. Eta? Akziodun asko batzen dituen bakarra baino hobe ez da? Garbiagoa ez da? Norena da Reala? Guztiona eta inorena. Hipokrisia gutxiago, mesedez.

## ZUZENKETA

Joan den asteko GOIENKARIAn argitaratu genuen albiste bat, telebistako orrian, non aipatzen baikenuen Pirritx eta Porrotxek Eskoriatzan eman behar duten emanaldirako (*Eskerrik asko* ikuskizuna) sarrerak zozkatzen zituela GOITBk. SMS dei bat egin behar zela aipatzen genuen bertan. Zenbakia, ordea, okerra zen. Hauxe da zuzena: 5767. Barkamena eskatu nahi diegu okerreko zenbakira deitu zutenei.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33 20570 BERGARA** | **Telefonoa: 943 25 05 01** | **Faxa: 943 25 05 13** | **Posta elektronikoa: goienkaria@goiena.com**

ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

zahaRRak BERRI



NOIZ: azaroak 21 eta 22
NOR: Larraitz Ugarte
Bitart abokatu bulegoa
GAIA: Testamentuaren garrantzia

Zure intereseko **elkarrizketak, erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!
Deitu programan zehar 943 00 08 34 telefonora

Goitb Goiena Telebista

Ikustekoa!

Babeslea: kutxa URREZKO ZERBITZUA


Eskaintza honek azaroaren 15etik 24ra balio du
37. Urteurrena
%37ko
DESKONTUA
ehundaka produktutan
(*) 37. urtemugako sustapenean seinalatutako produktuetan
Eta gainera, preziorik onenak
bazarrean, etxetresna elektrikoetan eta ehunkietan
EROSKI
zurekin


"Denok onar dezagula, naturaltasunez, Ionen elbarritasuna".
Ane, Elgeta.
Zuk horixe nahi duzu, eta gu horrexetarako ari gara lanean. Kutxan ongi asko dakigulako gaur esaten diguzuna entzuten, bihar zure nahiak gauzaturik ikusi ahal izan ditzazun. Zuri esker ari baita, egunero, gorantz egiten kutxaren Gizarte-Ekintza.
zer nahi duzu bihar?
kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza
76 milioi euro
1.200.000 onuradun
4.300 jarduera Gipuzkoan
Osasuna
Gizarte-Laguntza
3 milioi, mendekotasuna duten pertsonentzako proiektuak abian jartzeko
Elkartasuna
Hezkuntza
Ikerkuntza eta Enplegua
Kultura
Aisialdia
Ingurumena
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa



**> ARRASATE**
Sahararrei laguntzak bideratzeko ekimenak **> 19**



**> BERGARA**
Umeen kantuak, ipuinak eta jolasak lantzeko ikastaroa antolatu dute **> 25**



**> ARETXABALETA**
Gabonetan egingo duten presoen aldeko azokarako deia **> 32**



**> ESKORIATZA**
Gari Kortazarrek bederatzi hilabeteko bidaiari ekin dio **> 35**

**ARRASATE** > ERDI AROKO ARRASATE EZAGUTZEN

# Arrasate historikoa ezagutzeko ibilaldiak AED elkartearen eskutik

**IBILALDIAK**
'Harutze eta honutze, Mondrauen' izenburupean, Arrasate historikoa ezagutzeko aukera

**ARRAKASTA** 105 lagunek hartu zuten parte zapatuko ibilaldian

**INDUSTRIALIZAZIOA**
Udaberrian egingo dute hurrengo irteera




**ERDI AROKO ARRASATE** AED elkarteak antolatutako ibilaldian 105 lagunek hartu zuten parte aurreko zapatuan. Anabel Ugalde irakasleak egin zituen gidari lanak. AED

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

*Harutze ta honutze, Mondrauen* izenburupean, AED euskara elkarteak Arrasate historikoa ezagutzeko irteerak antolatu ditu. Lehenbizikoa aurreko zapatuan egin zuten. Anabel Ugalde Historia irakaslearen eskutik, Erdi Aroko Arrasate ezagutzeko 105 lagun batu ziren: 40 goizeko txandan eta 65 arratsaldekoan. Ordu eta erdi inguruko ibilaldia egin zuten.

Jon Azkoaga AED elkarteko teknikariaren hitzetan, "herriko historia eta herria bera ezagutzea da ibilaldi horien helburu nagusia. Azken baten, askotan ez ditugu ondo ezagutzen gure herriko kontuak eta adituen laguntzarekin gauza interesgarri asko eta bitxikeria ugari ikasteko aukera daukagu. Zapatuan uste baino erantzun hobea izan genuen, eta horrek erakusten du jendeak horrelako gaiekiko interesa baduela. Ziurrenik udaberri partean egingo dugu hurrengo irteera, herrian izandako industrializazioa hobeto ezagutzeko. Oraindik ez dugu irteera horren data zehaztu. Dena den, jendea elkartu ahala sortuko dira ideia berriak eta hortik tiraka jarraituko dugu noizean behin irteera historiko hauek antolatzen".

**ERDI AROKO ARRASATE**
Esan bezala, Erdi Aroko Arrasate ezagutzeko aukera izan zuten aurreko zapatuan eta horretarako Anabel Ugalde arrasatearraren laguntza izan zuten. EHUn Artearen Historiako irakaslea da eta Arizmendin ere badabil. Haren hitzetan, "Zarugaldeko Atean hasi eta Beheko Portalan amaitu genuen ibilaldia. Nahiz eta Erdi Arotik eraikin berriak egin izan diren, oraindik badago orduko aztarnak topatzeko aukera: etxeen eta kaleen neurrian, zabaleran, handitzeko egindako lanetan eta abar. XIII. mendean Arrasate sortu zenean ondo planifikatuta egin zuten eta nabaria da hori. Oso gustura ibili ginen gauza horiek deskubritzen eta partaideek harriduraz jaso zituzten hainbat azalpen. Era berean, pozgarria izan zen adin ezberdineko jendea etortzea".

## 'Mugarriz mugarri', gaztetxoei zuzendutako egitasmoa, azaroaren 25ean abian

Arrasateko AED elkartea orain dela 10 urte inguru hasi zen gaztetxoei zuzendutako irteerak antolatzen. *Mugarriz mugarri* egitasmoaren barruan irteera ugari egin dituzte mugarrietara, lagunartean Arrasateko auzoak eta baserriak hobeto ezagutzeko helburuarekin. Joan zen urtean, bi irteera egin zituzten eta batez beste 50 neska-mutiko inguruk hartu zuten parte. Leintz Eskola Kirolak eta AEDk elkarlanean eramaten dute aurrera *Mugarriz mugarri* egitasmoa. Ikasturte honetako lehenengo hitzordua hurrengo domekan, azaroaren 25ean izango dute.
Ohikoa den moduan, Unai Bergaretxe AEDko kideak egingo ditu gidari lanak. Arbolapetan elkartuko dira egun horretan, 09:00etan. Zalantzarik gabe, ibiliz, galdetuz, gelditu eta atseden hartuz, lagunartean gozatuz, ezagutzen dira ondoen herri bat eta inguruak. Arrasaten, AEDk irekitako bidea jarraitzea besterik ez dago.



Gaztetxoendako irteerak ere antolatzen ditu AED elkarteak.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 16 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Zapatua, 17 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 18 | Corcuera | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 19 | Irizar | Erguin 15 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 20 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 21 | Español | Araba Etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Eguena, 22 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 16 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Zapatua, 17 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 18 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 19 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 20 | Urritikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 21 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 22 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 16 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Zapatua, 17 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 18 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 19 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 20 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 21 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 22 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Egubakoitza, 16 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Zapatua, 17 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 18 | Anitua Arriola | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 19 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 20 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 21 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 22 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 17**
Zapatuan ez da aldaketa handirik gertatuko. Goizean leku gehienetan leia eta zerua urdin. Egunaren bukaeran mendebaldetik erdi mailako hodeiak agertuko dira.



**Domeka, 18**
Zerua ez da zapatuan bezain garbi egongo domekan. Goizaldean izotza izateko arriskua. Tenperaturak gora egingo du pixkanaka.

### EUSKAL HERRIAN

Orokorrean eguraldi ona izango dugu oraingo aste bukaeran. Tenperatura hotzak, hala ere. Zapatuan goizaldea are hotz handiagoa, baina maximoek gora egingo dute apur bat. Domekan laino batzuk izango ditugu eta goizean izotza izan daiteke protagonista.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Domeka, 11 — **0 ºC**

**MAXIMOA** Egubakoitza, 9 — **17 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **6,9 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 7** | 16 ºC | 4 ºC | -- l/m² |
| **Eguena, 8** | 15 ºC | 2 ºC | 0,3 l/m² |
| **Egubakoitza, 9** | 17 ºC | 3 ºC | - l/m² |
| **Zapatua, 10** | 14 ºC | 3 ºC | - l/m² |
| **Domeka, 11** | 16 ºC | 0 ºC | - l/m² |
| **Astelehena, 12** | 12 ºC | 1 ºC | 0,2 l/m² |
| **Martitzena, 13** | 12 ºC | 4 ºC | 6,4 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA AZAROAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **1** | **11** | **17** | **24** |

## oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA
**> Txikilandian parte hartzeko dei egiten die Txatxilipurdik begiraleei**
Txikilandiara lanera joateko dei egiten die Txatxilipurdik begiraleei. Urtarrilaren 2tik 5era bitartean izango da. Interesatuek izena eman dezakete astelehenean hasi eta abenduaren 10era bitartean, Txatxilipurdin. Curriculuma eta argazkia eraman behar dira. Ohiko begiraleek, berriz, izena ematearekin nahiko dute.

ELGETA
**> Lennart Green magoa ikusteko sarrerak salgai**
Abenduaren 15ean Lennart Green Suediako mago handiak ikuskizuna egingo du Espaloia antzokian. Besteak beste, munduko txapelduna da kartomagian. Sarrerak dagoeneko salgai daude 15 euroren truke –12 bazkideendako–.

BERGARA
**> Jardun elkarteak koordinatzailea behar du**
Berriketan proiekturako eta haurren euskara errefortzuetarako koordinatzailea behar ditu. 8 orduko jarduna da. Beharrezkoak dira euskara menderatzea eta harremanetarako erraztasuna izatea. Interesatuek bidali curriculuma Jardun elkartera (Errotalde jauregia, z/g, 20570 Bergara), hilaren 23a baino lehen. Argibide gehiago: 943 76 36 61.

ARRASATE
**> Zarzuelarako sarrerak salgai jarri dituzte**
Izaskun Murgia elkarte lirikoak azaroaren 24an, 25ean eta 30ean eta abenduaren 1ean *El duo de la africana* zarzuela antzeztuko du Amaia antzokian. Hala, bazkideek dagoeneko eskuragarri dituzte sarrerak 12 euroren truke Arrasate Musikalen. Gainerakoek azaroaren 19tik aurrera erosi ahal izango dituzte, 15 euroren truke, Amaia antzokian, 17:00-20:00 ordutegian. Gainerako egunetan eta abenduaren 1era arte 18:00-20:00 ordutegian egongo dira eskuragarri.

DEBAGOIENA
**> Arrikrutzera bisita Zahar Berri eta Berriketan taldeekin**
Ikasturteko lehenengo irteera izango da eta joango dira Oñatiko Arrikrutz koba ikustera, hilaren 17an. Hitzordua egin dute Arrasateko Arbolapetan eta Bergarako autobus geltokian, bietan ala bietan, 09:15ean. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu: 943 77 12 28 (Zahar Berri) 943 76 36 61 (Berriketan).

BERGARA
**> 1946ko kintoek afaria egingo dute**
Azaroaren 24an egingo dute, Zumelaga jatetxean (21:00etarako egin dute hitzordua jatetxean). Izena eman behar da azaroaren 17a baino lehen, Zumelagan (943 76 20 21).

BERGARA
**> 1981ekoek kinto ospakizuna egingo dute**
Azaroaren 24an egingo dute. Izenematea da azaroaren 21a baino lehen, Euskadiko Kutxan.

ARAMAIO
**> Ezker abertzaleak herri batzarra deitu du**
Bihar, hilak 17, izango da, 10:00etan, kultura etxean. Batzarrean jorratuko dituzte ildo politikoa eta herriaren egoera.

BERGARA
**> 1957an jaiotakoek afaria egingo dute**
Azaroaren 24an egingo dute, Tartufo jatetxean. Hitzordua Fraiskozurin egin dute, 20:30ean. Izenematea da Intxortan, 10 euro aurreratuta.

BERGARA
**> 1966an jaiotakoek afaria egingo dute**
Azaroaren 24an egingo dute, Torrekua jatetxean. Izena emateko jo Ariznoara azaroaren 19a aurretik –10 euro aurreratu behar dira–. Afari egunean 19:30ean elkartuko dira Ariznoan.

BERGARA
**> 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute**
Zumelaga jatetxean egingo dute, azaroaren 25ean, 14:30ean. Izena emateko 12 euro aurreratu behar dira Euskadiko Kutxan azaroaren 20a baino lehen.

BERGARA
**> 1943an jaiotakoek afaria egingo dute**
Azaroaren 24an egingo dute, Azpeitxin. Izena emateko deitu 943 76 16 13 (Arantza Askasibar) edo 943 76 53 22 (Juan Antonio Fernandez) zenbakira azaroaren 22a aurretik.

ARRASATE
**> Baratzezaintza ekologikoaren gaineko ikastaroa egingo du Itsasmendikoik Arrasaten**
Arrasateko Udalaren laguntzarekin antolatu du ikastaroa Itsasmendikoik. Baratzezaintza ekologikoaren hastapen urratsak irakatsiko dituzte. Eskolak izango dira Udala auzoan dagoen Ingurumen Eskolan, azaroaren 24an eta abenduaren 1ean eta 15ean, 09:00-13:00 ordutegian. Izena emateko deitu: 943 69 21 66.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Zirkulazio seinaleak ez ditugula errespetatzen uste duzu?



**Izaskun Larrañaga**
Langilea
Antzuola

Jende askok ez ditu errespetatzen; horregatik, oso ondo ikusten dut Udalak martxan jarri duen kanpaina. Askok nahi duten guztia egiten dute, ez dagoelako ez udaltzainik, ezta isunik ere.



**Nekane Arratibel**
Langilea
Antzuola

Noizbait denok hautsi ditugu arauak eta zirkulazio arazoak sortu. Nik uste dut ondo egin duela Udalak kanpainarekin. Gainera, isunek baino funtzio hezitzaileagoa du oharrak jartzeak.



**Bihotza Esnaola**
Langilea
Antzuola

Askotan, ez. Ondo ikusten dut Udalaren kanpaina; izan ere, arauak errespetatzen ez baditugu, gaizki gabiltza. Nik uste dut denborarekin eraginkorra izango dela kanpaina.



**Balendin Zabalo**
Langilea
Antzuola

Herrian zirkulazioarekin gertatzen dena desastre hutsa da; aspaldi egin behar zen zerbait. Kanpaina eraginkorra izango da, baina, denborarekin, isunak jartzen hasi beharko dute, bestela...



**Edu Iñarra**
Langilea
Antzuola

Denerako jendea dago, baina guztiok egiten ditugu arau-hausteak noizbait. Nire ustez, kanpainak balio izango du jendeari pentsarazteko, baina batzuek beti bezala jarraituko dute.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

## Bergarako patinatzeko pista

Bergarako gazte batek ondorengoa salatu du: "Urriaren 7an Bergaran ospatu zen Kilometroak jairako, Bergarako Labegaraieta kiroldegian dagoen patinatzeko pista kendu egin zuten, eta hilabete oso bat behar izan dute bere tokian ipintzeko. Horretaz gain, pista erabat zikina egon da, eta, bide batez, esan beharra dago patinatzeko argi gutxi dagoela.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 0°

Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera, 0ºC-ko tenperatura izan genuen domeka goizaldean. Uda osteko hotzena izan da. Aurrerantzean ohikoagoak egingo zaizkigu tenperatura hotzak termometroetan ikustea.

usteak uste

Aintzane Irizar

## 'Pixka bat es poco' eta kitto

Euskaltegietako irakasleak Jaurlaritzako itzultzaileak baino hobeak izango direla espero dut. Izan ere, pixka bat beti izan da *poco* eta kitto.

Hizkuntza normalizaziorako bidean asko falta zaigula banekien, baina, Jaurlaritzak abiarazi berri duen kanpaina ikusita, benetan, gaizki ikusten dut egoera.

Bere hizkuntza euskara duen herrian, *arratsaldeon* esan beharrean *Arantxaleon* esaten duenari txalo egin behar baldin badiogu eta sekulako meritua aitortu behar baldin badiogu, sekula ez dugu aurrerapausorik egingo.

Egia da euskara ikasten dabilenari laguntasuna eskaini behar diogula, gaizki berba egin arren errespetua erakutsi behar diogula. Baina hortik esatera pixka bat *mucho* dela, bada, ez.

Geure herrian geure hizkuntza normaltasunez erabili ezin dugun honetan, Jaurlaritzaren jarrera eta jokaera azkenaldian zeharo harrigarria da. Eta kanpaina batekin nahikoa ez eta hor ikusten dut egunkarietan beste iragarki bat: *Justizian ere euskaraz*. Zer? Eta bitartean bat baino gehiago dago auzipetuta auzitegietan euskaraz jarduteagatik.

5 galdera...

## Maite Osa

Arrasateko Mayte loradendakoa

**1. Udazken garaian egonda, jendeak ez ditu balkoiak udaberri edo udan bezala apaintzen. Zein uste duzu dela arrazoia?**

Jendeak uste duelako loren garaia udaberri edo uda aldean bakarrik dela eta neguan garestiagoak direla. Eta esan behar zaie neguan ere lore oso politak daudela etxeetako balkoietan ipintzeko, baina jendeari gehiago kostatzen zaio balkoira ateratzea, hotzagatik-edo. Esate baterako, pentsamenduak eta udaberri-lore goiztiarrak, horiek merkeenak dira. Beste batzuk ere badaude neguko izotzak ederki asko jasaten dituztenak: ziklamenak, baina garestiagoak dira.

**2. Zein garaitan eta zein lore mota saltzen duzue zuek gehien?**

Udaberria da lore gehien saltzen den garaia. Lore motei dagokienez, geranio, sesamo eta surfiniak saltzen dira gehien.

**3. Badaude egon, beraz, negu garaian etxeak ederki apain ditzaketen loreak. Zeintzuk dira horiek?**

Ziklamen, azalea eta primulak, *Pluma de Santa Teresa* ere deitzen dena (*Ripsalis* da haren benetako izena). Azken lore horrek negurako zein udarako balio du, kaktusa bezala da eta kolore ugari izaten ditu.

**4. Loreek denbora luzean polit iraun dezaten, zeintzuk dira jarraitu beharreko pausoak?**

Batez ere hiru dira jarraitu beharreko pausoak: batetik, loreak orientazio egokia izan behar du; bestetik, landareak beti garbi egon behar du, hau da, alboko belar zaharrak kenduta; eta azkenik, loredun landareetan, 10-15 egunean behin ongarria bota behar zaio.

**5. Zein da oraingo garai honetarako gomendatuko zenukeen lorerik ederrena?**

Oraingo garairako, azaleak. Oso finak eta politak dira eta kolore politak dituzte: gorria, arrosa antzerakoa eta laranja.



**LANA** > ARAZOAK LANGILEEN ETA UGAZABEN ARTEAN

# Bigarren eskuko jolasak batzen hasiko dira

Jostailuen Trukerako Merkatua ekimena abiaraziko du datorren astean Txatxilipurdik, baina merkatua bera izango da abenduaren 15ean eta 16an

**UBANE MADERA** > ARRASATE
"Gabon garaian izaten den kontsumismoa murrizteaz gainera, jostailuen berrerabilpena bultzatzea eta diru gabeko truke eta, besteak beste, hartu-emanen balioa haurrengan sustatzea" da Txatxilipurdik datorren astean abiaraziko duen Jostailu Truke Merkatuaren helburua, elkarteko Maite Uribarrenek argitu duenez.

Hala, bigarren eskuko jostailuak batuko dituzte hiru asteotan, Erguin, Usaetxe, San Andres, Santa Marina eta erdigunean. Egoera onean dagoen jostailuren bat eramaten duen haurrari txartel bat emango diote; eta gero, haurrak txartel hori erabiliko du trukean jostailu bat hartzeko.

Merkatua abenduaren 15ean eta 16an egingo dute, Okendoko ludotekan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Merkatuan edozein jostailu hartu ahal izango dute haurrek lehenago jasotako txartelarekin.

**TXIKILANDIARAKO BEGIRALEAK**
Bestalde, Txatxilipurdik deialdia egin du Txikilandiarako begiraleak lortzeko. Txikilandia urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean ipiniko dute. Goizerako behar dituzte 25-30 lagun eta arratsalderako, berriz, 40 bat lagun.

Bete beharreko baldintzei dagokienez, 18 urtetik gorakoa izan behar da eta "gogoa, gogoa eta gogoa izan. Horrez gain, baloratuko dugu esperientzia, formazioa eta arrasatearra izatea", azaldu du Uxue Zabaletak, Txatxilipurdiko kultura teknikariak. Hark gaineratu du, baina, 18 urtetik beherakoren batek lanerako gogoa badu, hartuko dutela, boluntario moduan lan egiteko, legez ezin dutelako ezer kobratu.

JOSTAILUAK BATZEKO EGUTEGIA

**> AZAROAK 22-23**
Erguinengo Usaetxeko ludotekan eta San Andresko gaztetxokoaren ondoko alkatetzan.

**> AZAROAK 29-30**
Santa Marinako ludotekan.

**> AZAROAK 4-5**
Erdigunean, Okendoko ludotekan.

**> ORDUTEGIA**
17:00etatik 19:00etara eraman behar dira jostailuak.

**Itxaro Artola** > AEDko idazkari orokorra

# "Plan estrategikoaren barruan, auzoetara iristea da gure erronka"

**U.M.** > ARRASATE
**AED elkarteak berbaldia antolatu du datorren eguaztenerako. Julio Ibarra eta Iñaki Ezimendi gonbidatu dituzte, elebitasunaren gainean jarduteko. Arrasaten izango da hitzaldia, baina San Andres auzoko parrokiako lokaletan, eguaztenean, 19:00etan.**


Itxaro Artola. I.B.

**Zer dela-eta hitzaldi hau?**
Izenburua da *No sabemos euskara; ¿cómo podemos ayudar a nuestras hijas e hijos?* Geroago eta sarriago gertatzen da euskaraz apenas dakiten gurasoek euren seme-alabak euskarazko ereduetan eskolaratuta izatea. Egoera horretan, askotan galduta sentitzen dira, ez dakitelako euren seme-alaben heziketan laguntzeko gauza izango diren... Zalantza horiek gainditzen laguntzeko antolatu dugu saio hori.

**San Andresen da hitzaldia erdigunean barik, bada horretarako arrazoiren bat?**
Bai. AEDn aspaldiko kezka zen gure jarduera auzoetara zabaltzea. Arrasaten oso samurra da jendea norbere auzoan zentratu eta gainerakoekin harremanik ez izatea. Auzoetara iristea da gure erronka.


JON BEREZIBAR

## Biterin zenbait xafla zintzilik agertu dira

Biteriko aterpeko goiko aldeko zenbait xafla atzera zintzilik agertu dira egunotan. Obra eta Mantenu Sailetik jakinarazi dutenez, umeak baloiarekin xaflok jotzen saiatzen dira eta bi dagoeneko oso kaltetuta daude. Bihar goizerako lotuko dituzte erdi jausita dauden xaflak eta apurtuta daudenen ordezkoak ere eskatuta daudela azaldu dute Udaletik, baina arriskurik ez dagoela ere gehitu dute. Ez da hau gertatzen den lehen aldia, orain dela hilabete batzuk ere antzerakoa gertatu zela diote-eta.

**HIRIGINTZA** > ZERRAJERAKO ETXEBIZITZAK

# Kutsatutako lurrak garbitu beharko dituzte Zerrajeran

Legearen irizpideak aldatu direla-eta, orain arte garbia kontsideratzen zutena orain kutsatuta dago

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Azaroari dagokion osoko bilkuran jakinarazi zuten Zerrajeran badirela kutsatuta dauden lursail batzuk; hain justu ere, Caixak etxebizitzak eraiki behar dituen gunean. Horren aurrean, Foment Inmobiliariak, etxeok eraiki behar dituen enpresak, Udalari eskatu dio Udalak bere gain har ditzala lurrak garbitzeko gastuak. Jakina, horrek espero ez zen gastua dakar Udalarendako. Halaber, enpresa eraikitzaileak jakinarazi du aurreikusi barik zeuden garbiketa lan horiek egitearen ondorioz etxebizitza horien eraikitze lanak atzeratu egingo direla.

Ino Galparsoro alkateak zehaztu ditu esandako datuok kopurutan. Esandakoaren arabera, 300.000 euro inguru kostako da lurron garbiketa, eta dirulaguntza eskatuko diote IHOBEri. Etxeon eraikitzea, berriz, bi hilabete inguru atzeratuko da.

EXPRES
Ogitartekoak
Errazioak
Pintxoak
Maalako Errabala 8
Arrasate
Tel.: 943 79 85 14

OSORIK PUB
Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

**GIZARTEA** > GABONETAKO OTARREAK ZUBEROAKO IKASTOLEI LAGUNTZEKO

# Laguntza eskaera Zuberoako ikastoletatik

Dirua behar dute Zuberoako ikastolek, umezaintza zerbitzurako langilea hartu ahal izateko; otarreak salduko dituzte dirua batzeko

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Hirugarren urtea da Zuberoako ikastolei laguntzeko Arrasaten Gabonetako otarreak saltzen dituztela. Aurten, gainera, berritasuna izango dute otarreek, produktuak minbrezko otarrean ekarriko dituzte-eta. Ahuski izeneko otarrea bakarrik salduko dute aurten, "gauzak errazteko", antolatzaileen esanetan. Ardi gazta kilo bat, 500 gramo ezti, 200 gramo pate eta biskotxo poltsa ekarriko ditu Ahuski otarreak, 39 euroren truke. Lagun zuberotarrek esandako moduan: "Züen parte-hartzean bermatzen gira, esperantxa dügü hemenko moskinak ontsa gosatüko dütüzüela".

**AZAROAREN 30A BAINO LEHEN**

Aurten batzen duten dirua umezaintzarako langile bat kontratatzeko erabiliko dute; Renee Harbustanek, Zuberoako ikastolako irakasle ohiak, azaldutakoaren arabera, ikastolen kasuan estatu frantsesa ez da arduratzen umezaintzako langileen kontratazioaz; hori horrela, ikastolako ikasleen gurasoek hartu behar izaten dute karga hori.

Zuberoako ikastolei lagundu gura izanez gero, otarreak erosi ahal izango dira azaroaren 30a baino lehen. Honako telefono zenbakian egin behar dira eskaerak: 943 79 20 24 (Renee Harbustan).

Arrasaten, Basaurin eta Usurbilen ipiniko dituzte otarreak salgai. Iaz, 7.000 euro batu zituzten; ikastoletarako mahaiak, koadernoak eta abar erosi zituzten.

**HIRIGINTZA** > GELMAKO ETXEAK

## Gelmako etxeen 'luxuzko itxura' erakusteko etxe pilotua prestatu dute Obenerrekakoek

Horrez gainera, promotorakoek iragarri dute etxeon gaineko webgunea prestatzen dabiltzala, Gabonei begira

**U.M.** > ARRASATE

Etxebizitza pilotua prestatu du Gelmako etxebizitzak eraikitzen dabilen Obenerreka enpresak. Interesa duen edozeinek bisitatzeko moduan ipini dute, erakusteko zelakoak diren horrenbesteko zeresana eman duten etxeak. Haiek bisitatzeko interesa izanez gero, Obenerrekara deitzea komeni da (943 71 27 97). Horrez gainera, iragarri dute badabiltzala prestatzen webgunea etxebizitzen gaineko informazioa eta argazkiak han ipini eta haiek ikusteko ahalik eta erraztasun handien emateko. Webgune hori Gabonetarako izango dute erabilgarri.



**ITXURA** Obenerrekatik argi utzi gura dute kalitate handikoak direla etxeak. JULEN IRIONDO

**GIZARTEA** > SAHARARREKIKO ELKARTASUNA

# Sahararrei laguntza emateko ekimenak abiarazi dituzte

Gabonetako loteria salduko dute lehen aldiz; horrez gain, abendu hasieran Arrasatetik bisitan joango dira

**U.M.**> ARRASATE

Gabonen atarian, sahararren aldeko NUBI elkartea hasi da haiei laguntzeko ekimenak egiten. Egunotan, adibidez, Gabonetako loteria saltzen hasi dira Arrasaten lehen aldiz. Hiru euroren truke eskura daiteke txartela eta gero, hortik 0,60 euro erabiliko dituzte sahararrei laguntzeko. 100 zenbaki atera dituzte eta abenduaren 5a baino lehen saldu gura dituzte guztiak.

**JAKI BILKETA**

Horrez gainera, Agurne Juldain NUBI elkarteko kideak jakinarazi duenez, dagoeneko badabiltza prestatzen aurtengo jaki bilketa. Hasi abenduan hasiko dira Saharako kanpalekuetara bidaltzeko jakiak batzen. Hain justu, hil hasieran jakinaraziko dituzte zeintzuk diren jakiak eramateko egunak eta zein jaki mota eraman behar den.

Hori bai, dagoeneko iragarri dute herriko hipermerkatuetan abenduko azken asteburuan batuko dituztela jakiok eta ikastetxeetan, berriz, urtarrilean.

**ARRASATETIK SAHARARA**

Eta horrez gainera, NUBIk adierazi du abenduan Arrasateko ordezkariak joango direla Saharako kanpalekuetara.

Batetik, abenduko lehen asteburuan harrera familia izandakoak joango dira kanpalekuetara EAEtik. Bi hegazkin aterako dira, 260 lagunekin. Arrasatetik lau familia joango dira.

Bestetik, abenduaren 8tik 15era, NUBI elkarteko ordezkaritza joango da Saharara, datorren ikasturteari begira abiarazi gura dituzten ekimenak lantzen hasteko.

> NEKAZARITZA

### Nekazaritza ekologikoa lantzeko 360 orduko ikastaroa

Itsasmendikoi Fraisorok nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroa antolatu du. 360 ordukoa izango da eta nekazariei eta nekazari ekologikoak izan nahi dutenei zuzenduta dago.

Ikastaroa teoriko-praktikoa izango da eta ikasleek euren proiektua garatzeko aukera izango dute Nekazaritza Ekologikoan hasteko. Ikastaroaren ordutegiari dagokionez, berriz, taldearen arabera ezarriko dute.

Ikastarora joan gura izanez gero, ahalik eta lasterren eman behar da izena, hartuko dituzten ikasle kopurua mugatua daeta. Honako telefono zenbakira deitu behar da: 943 69 21 66.

> NEKAZARITZA

### Baratzezaintza eta frutagintza ekologikoa berbagai Arrasaten

Baratzezaintza eta frutagintza ekologikoaren hastapen-urratsak landuko dituzte datorren astean eta abenduaren 1ean Arrasaten, Udalako Ingurumen Eskolan. 12 ordukoa, ikastaro teorikoa izango da, 09:00etan hasi eta 13:00ak artekoa. Helburua da baratzezaintza ekologikoaren oinarriak ezagutzen hastea.

Hori horrela, besteak beste, baratzezaintza ekologikoaren oinarriak azalduko dituzte: izarren eragina, ilargiaren egutegia, oinarrizko kontzeptuak, baimendutako produktuak, e.a.

Ikastaro horretan parte hartzeko Fraisorora deitu behar da: 943 69 21 66.











'GALIPOTX' Amaia antzokiko taula gainean izango diren antzezlaneko protagonistak. ZTP BANAKETAK

**ANTZERKIA** > 'GALIPOTX' EUSKARAZKO MUSIKALA BIHAR AMAIA ANTZOKIAN

# 'Galipotx', publiko guztientzako ikuskizuna

Golden Apple Quartet eta Kanpingags taldeek elkarrekin ekoiztutako musikala

**A.ARANBURUZABALA** > ARRASATE
Golden Apple Quartet eta Kanpingags taldeek elkarrekin ekoiztutako publiko guztientzako antzerki musikala da *Galipotx*. Bihar Amaia antzokian ikusgai izango da, 18:00etan; sarrerak 4 eurotan izango dira.

Europako erdialdeko ipuin zahar baten oinarritzen da *Galipotx* antzezlan musikalaren istorioaren haria.

Ameslaria den eta irudimen handia duen nekazari baten alaba da protagonistetako bat: Leonor. Aitak sekulako ahalmenak dituela kontatuko dio Leonorrek erregeari; hain zuzen, lastoa urre bihurtzen duela. Erregeak hori entzutean, aita giltzaperatu eta hiru egun emango dizkio esandakoa egia dela frogatzeko. Lastoa urre bihurtuz gero, erregeak aitari zigorra barkatu eta, era berean, Leonorrek Eduardo printzearekin ezkontzeko bidea izango duela agintzen dio. Dena galduta dirudienean, Galipotx iratxoa agertuko da eta lastoa urre bihurtzen lagunduko dio Leonorri; horren trukean, Eduardo printzearekin izango duen lehenengo haurra eskatuko dio.

Ipuin kontalari lanak Tukan txoriak egingo ditu eta koroak, berriz, Golden Apple Quartet laukotearen ahots eta arima duten lau belek egiten dituzte.

**TALENTU GAZTEAK**
Golden Apple Quartet taldeak bultzatu zuen *Galipotx* antzezlana egiteko ideia; izan ere, aspalditik zuten gazteek antzeztutako ikuskizunak ekoizteko asmoa, betiere taldearen umorea eta musika oinarri hartuta. Hain zuzen ere, helburu horrekin jaio zen *Galipotx*.

Hori horrela, *casting*-ean parte hartu zuten 150 kideetatik, honako hauek lortu zuten protagonista papera: Yolanda Pascualenak, Mikel Anterok, Iker Bengoetxeak eta David Roscok.

Zuzendari lanak, berriz, Patxi Barcok egin ditu eta musika arloaren zuzendaritzaren ardura Golden Apple Quartet taldeak izan du.

**GAZTETXEA**

# Gazte eguna antolatu du gaztetxeak biharko

Askotariko ekitaldiak izango dira: pilota partiduak, bazkaria, kontzertuak eta beste

**A.A** > ARRASATE
Bihar, zapatua, gaztetxeak antolatutako I. gazte eguna jaia izango da. Egun osorako egitaraua antolatu dute, goizeko 10etan hasita. Hain zuzen ere, gazteak elkartu, elkar ezagutu eta gaztetxera hurbiltzea da helburua.

Iturripen izango diren pilota partiduekin ekingo diote jaiari. Parte-hartzaileek eguenera bitartean izan dute izena emateko aukera. Ondoren, 14:30ean, gaztetxean bertan prestatutako bazkaria izango da eta 19:00etan kalejira egingo dute.

**HERRIKO MUSIKARIAK**
Herriko musikarien punk kontzertuarekin borobildu ko dute jaieguna: Neallta Fola, Material Rechazado eta The Motherfuckers. Horiek guztiak, gaztetxean, 22:30ean.

**MUSIKA** > ASTEBURUAN BI KONTZERTU 3.60 ARETOAN

# AEBetako skaren aitzindari The Toasters taldea zapatuan

New Yorkeko taldeak 25 urte bete ditu eta Europan barrena bira egiten dihardu

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Asteburuan bi musika emanaldi izango dira 3.60 aretoan. Punk-rock doinuak Silikonay eta Xasta taldeen eskutik gaur, egubakoitza; eta bihar, berriz, ska erritmoak The Toasters eta Deskarats taldeen eskutik. Bi emanaldiak 23:00etan izango dira eta sarrerak dagoeneko salgai daude ohiko lekuetan.

The Toasters oso talde garrantzitsua da skaren alorrean. Robert *Bucket* Hingley ingelesak orain dela 25 urte osatu zuen taldea New Yorken. The Specials, Selecter, Madness eta Beat-en ildoari jarraitu zioten, eta reggae, jazz eta rock ukituekin emaitza aberastu. Horrez gain, taldearen ezaugarri nagusienetako bat da Hingley abeslariak duen estilo berezia. 25 urte bete eta ia 5.000 kontzertu egin ostean, Europan zeharreko bira egiten dabiltza urteurrena ospatzeko.

Alboan Gironako Deskarats ska taldea izango dute. Haizezko instrumentuekin jantzitako taldeak eskarmentu handia dauka.

**EGUBAKOITZEAN SILIKONAY**
Baina gaur, egubakoitza, ere izango da musika ikuskizunik. Gasteiz aldeko Silikonay punk-rock taldeak bere kantuak ekarriko ditu Arrasatera. Kaos Etilikon aritutako bi lagunek sortu zuten taldea, eta dagoeneko bide propioa egin dute. 80ko hamarkadako punka gogora ekartzen dute, baina askoz rockeroagoak dira eta hitzak oso kritikoak.



THE TOASTERS taldeko musikariak. GOIENKARIA

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20
Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak



MENETA taberna
• Eguneroko menua
• Bokatak eta plater konbinatuak aste bukaeretan
• Pintxoak
• Errazioak
Domeka gauetan sukaldea itxita
Gipuzkoa Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 20500 Arrasate

**2x1 eskaintzak:**

- Karibe (bi pertsona **984 eurotik aurrera**)
- Kanariar Irlak (bi pertsona **346 eurotik aurrera**)
- Europa. (bi pertsona **638 eurotik aurrera**)

**Gabonetan oparitu bidaiak:**
aukera ezberdinak eta erakargarriak gabon jaietarako.
*Zatoz eta informa zaitez.*

**Abenduko Zubian elurretara joateko eskaintza:**

**Cauterets:**
8endako 4 gau apartamentua batean eta 4 forfait
**131 euro**.

**La Mongie:**
6endako 4 gau apartamentu batean eta 4 forfait
**156 euro**.

**Grandvalira (Andorra):**
2 izarreko hotel batean 4 gau eta 4 forfait
**323 euro**.



**Abenduko Zubian Zirkuituak Europan:**

**Paris:**
Abenduaren 5ean gauean irteera autobusean, 3 gau hotelean, Paris eta Disneylandia ezagutu, autobusean buelta:
**223 euro**.

**Lisboa:**
Abenduaren 5ean gauean irteera autobusean, 3 gau hotelean, Fátima, Lisboa, Sintra, Cascais, Estoril, ezagutu:
**207 euro**.

**Bartzelona:**
Abenduaren 5ean gauean irteera autobusean, 3 gau hotelean, Bartzelona eta bere inguruak eta Montserrat ezagutu:
**235 euro**.

**AUTOKARABANA ESKAINTZA BEREZIA**
* Eguneko eta pertsonako 20 €-tik aurrera.

- Bizikleta-eramatekoa
- Eski-eramatekoa
- Berria



* prezio hori 6 pertsonek hartutako McLouis 2.11 autokarabanetan

**Aste Santuak baino 30 egun lehenago bidaia erreserbatuz, eskaintza ezberdinak..**

**ZATOZ ETA INFORMA ZAITEZ.**
**AUKERA ZABALA ETA ERAKARGARRIAK ESKU-ESKURA!**

**Arrasate Bidaiak**
CIE 2214
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA
marsans viajes

ARRASATE BIDAIAK • Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE • Tel.: 943 71 25 30 / Faxa.: 943 79 74 45 •E-posta.: d4051@marsans.es

> ATLETISMOA

### Arrasateko atletek kros denboraldia hasiko dute

Domekan hasiko dute Arraten atletismoko kros denboraldia, Bolunburuko memorialarekin. Eta, Arrasateko atletismo taldeak ordezkaritza zabala izango du, bai emakumezkotan eta baita gizonezkotan ere, hainbat kategoriatako korrikalariek hartuko dute-eta esku. 10:00etan hasiko dira lasterketak, eta 13:00ak aldera amaitu.

> ESKUBALOIA

### Ford Mugarrik atseden hartuko du asteburuan

Atzeratu egin dute Fertxu Rodriguezen eta Bernardo Balerdiren mutilek Gure Jorge Fernandez taldearen kontra jokatu beharreko norgehiagoka. Horrenbestez, Arrasatekoek deskantsua izango dute asteburuan.

Etxeko taldeak, gainera, larritasun barik har dezake atseden, joan den asteko hiru puntuei esker Ford Mugarri laugarren da-eta.

> KIROLDEGIA

### Spin bike ikastaroan, goiz eta arratsalde, lekua dago oraindik

Aukea kirol elkarteak aditzera eman du spin bike ikastaroan lekua dagoela oraindik. Martitzenetan eta eguenetan, 07:15eko, 15:00etako eta 17:30eko ikastaroetan dago lekua.

Ikastaro horien gainean interesa daukatenek Musakolako kiroldegian jasoko dute informazio guztia, 943 77 16 77 telefono zenbakian.

**SASKIBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Domekan, zazpigarren garaipena helburu Ocaso Berrio Otxoaren kontura

Oraingo asteburuan, Mondragon Unibertsitateak zapatuan jokatu beharrean domekan jokatuko du, 18:00etan Iturripen




**BALOIA BABESTEN** Kintana Legartziako kontrarioarekin, artxiboko irudian. J.A.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Ikusi egin beharko da ohitura aldaketak Mondragon Unibertsitateari mesede ala kalte egiten dion. Gaitza da mesede zelan egingo dion neurtzea, orain arte MUk jokatu dituen partidu guztiak irabazi egin dituelako. Hori ezin da hobetu; beraz, bi aukera daude: bolada onak dagoenean jarraitzea, zazpigarrena irabaztea; ala denboraldiko lehenengo partidua galtzea.

Iturripeko kantxako ordutegiarekin izandako arazo bat dela-eta jokatu behar dute Iñaki Merinoren mutilek domekan, eta klubetik deialdia egin dute esanez, domeka arratsalde batean ez dagoela MUren saskibaloi partidu bat ikustea modukorik.

**SANTUTXUKO TALDEA BISITAN**

Debagoieneko mutilek gaizki egin beharko lituzkete gauzak Ocaso Berrio Otxoaren kontra, etxean, galtzeko. Joan den astean MUk egindako kalitatezko saskibaloiak erakusten du taldea geroago eta osoagoa dela (103-63); sei partidu jarraian ez ditu edonork irabazten; Arrasateko taldeak etxean jokatzen du; eta, ligako azken sailkatua da bisitan datorrena. Aurrekari horiekin, zale gutxiren buruan sartzen den estropezua izango litzateke domekako partiduan bi puntuak ez eskuratzea.

**ALDAKETAK GOIALDEAN**

MUk sendo jarraitzen du B multzoan, eta garaipen bat gutxiagorekin Cafes Aitonak ez du amore ematen. Oraingo astean, gainera, faborea egin die Baskoniak, Tabirako mendean hartuta Cafes Aitona jarri da-eta bigarren.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Cipris-HLB 108 | **3-6** |
| Abokajarro-THC | **1-3** |
| Iriztu Taberna-Lasagabaster | **3-2** |
| AT Celaya-Equs | **5-2** |
| Cicatrus-Iturriotz Taberna | **4-6** |
| Saukelu Abian-Ekaitz Taberna | **6-2** |
| McAwen Dauen-Kalapatxak | **13-2** |
| Iluntz-Bar Kokots | **9-2** |
| Dublin Irish Pub-Total Disaster | **14-2** |
| Dribling-Betrayer | **6-5** |

**PARTIDUAK**

| **Azaroak 17, zapatua** | **Epaileak** |
|---|---|
| **10:00** Total Disast.-McAwenDauen | **Betrayer** |
| **11:00** Betrayer-Iluntz | **McAwenDauen** |
| **12:00** Dribling-Dublin Iris Pub | **Iluntz** |
| **13:00** Iriztu Taberna-Iturriotz | **Dribling** |
| **16:00** Cicatrus-Kalapatxak. | **Ekaitz Taberna** |
| **17:00** AT Celaya-Ekaitz Tab. | **Kalapatxak** |
| **18:00** Saukelu Abian-Bar Kokots | **AT Celaya** |

| **Azaroak 18, domeka** | **Epaileak** |
|---|---|
| **11:00** Abokajarro-Equs | **Lasagabaster** |
| **12:00** HLB 108-Lasagabaster | **Abokajarro** |
| **13:00** Cipris-THC | **HLB 108** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Dublin Irish Pub | 6 | 2 |
| **2.** | McAwen Dauen | 6 | 2 |
| **3.** | Dribling | 6 | 2 |
| **4.** | THC | 6 | 2 |
| **5.** | Iriztu Taberna | 6 | 2 |
| **6.** | Betrayer | 3 | 2 |
| **7.** | Iluntz | 3 | 2 |
| **8.** | Lasagabaster | 3 | 2 |
| **9.** | Saukelu Abian | 3 | 2 |
| **10.** | AT Celaya | 3 | 2 |
| **11.** | HLB 108 | 3 | 2 |
| **12.** | Iturriotz Taberna | 3 | 2 |
| **13.** | Cipris | 3 | 2 |
| **14.** | Equs | 3 | 2 |
| **15.** | Ekaitz Taberna | 3 | 2 |
| **16.** | Abokajarro | 0 | 2 |
| **17.** | Cicatrus | 0 | 2 |
| **18.** | Bar Kokots | 0 | 2 |
| **19.** | Kalapatxak | 0 | 2 |
| **20.** | Total Disaster | 0 | 2 |

### Zortzi asterako zigorra jaso du Saukeluko batek

Zigor ederra jaso du Saukeluko jokalari batek, zortzi aste egin beharko ditu-eta txapelketatik kanpora. Horrekin batera, Cicatrus taldeko jokalari bat partidu baterako zigortu dute. Eta, honako taldeek abisua jaso dute: Abokajarro, HLB 108, Ekaitz eta Saukelu Scream.

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Bigarren postuan dagoen Ordiziaren bisita izango du Mondrak bihar (16:30)

Kontrario gogorra izango du Mondrak bihar Mojategin: behin bakarrik galdu du Ordiziak

**X.U.** > ARRASATE

Maila politeko kontrarioa izango du bihar arratsaldean Mondrak: partidu bakarra galdu duen Ordizia. Orain arteko preferenteko liderrak joan den asteko hanka-sartzearekin utzi du sailkapeneko postu gorena (0-1 galdu zuten Trintxerperen kontra), eta Real Unionek ez du aukera galdu: eurak daude orain lider. Hala, orain arte izan duten agintea berreskuratu asmoz etorriko da Ordizia Mojategira.

**KANPOAN BERDINDUTA**

Joan den astean arrasatearrak puntu batekin itzuli ziren Euskaldunaren zelaitik (0-0). Orduan, Gordobilek balorazio positiboa egin zuen, besteak beste etxetik kanpora golik jaso ez zutelako. Eta topikoa bada ere, etxetik kanpoko berdinketa ona da baldin eta hurrengo jardunaldian, etxean, irabazi egiten badute. Horrenbestez, hpr du Mondrak erronka, Ordizia mendean hartzea.

**ERRENTAGARRITASUNA**

Datuei begiratuta, preferentean Mondra da partiduetan errentagarritasun txikiena lortu duen taldeetako bat, garaipena eskura izanda, azkeneko momentuan puntu bakarrarekin konformatu behar izan den taldea. Arrasateko taldeak zuku handiagoa atera behar dio futbol zelaian egiten duen ahaleginari, baina esatea da errazena: bost partidu berdindu dituzte –gehien berdindu duen taldea da–, eta azken zortzi jardunalditan behin irabazi dute, Touringen zelaian. Eta horrela ere, Arrasateko mutilak zortzigarren daude sailkapenean.



**AZKEN GARAIPENA** irudian, Ekain Garin, Touringen kontrako partiduan (4-3) J.A.

nire bidaia hura

## Nerea Mondragon

Nikaraguan egon zen > 2007ko abuztuan

# "Nikaraguak nire bizitzako gauzarik ederrena erakutsi dit"

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

**Nereak eta Maitanek joan den uda Nikaragua aldean eman zuten. Mundu Solidarioa Helburu gobernuz kanpoko erakundeko kideak dira, eta erakundeko proiektuak Diriamba hirian garatzen dituzte.**



Nerea Mondragon.

Uztailaren 26an irten ziren Arrasatetik Nerea eta bere lagun Nekane. Garapenerako Mundu Solidarioa Helburu gobernuz kanpoko erakundeko kide dira, eta erakunde horrek Diriamba hirian egiten ditu proiektuak; ezinduentzako gurpildun aulki bi eraman zituzten hara, ezindu fisiko eta psikikokoen eskolarako, hain zuzen.

Heldu zirenean, oporretan zegoen arrasatear batekin elkartu ziren: "Oscar arrasatearra da eta Veronica emaztea Nikaraguakoa. Biak Arrasaten bizi dira, baina oporretan Nikaraguara joaten dira, eta haiek ere erakundeko kide dira, eta Oskar, gainera, erakundearen sortzailea da", aipatu du Nereak. Diriamba oso leku txiroa da, ia ezer ez dagoen tokia, baina ezer gutxirekin ere ongi konpontzen dira hangoak. Izan ere, turismoa egiteko denbora ere izan zuten.

Lehenengo Granada eta Leon, Nikaraguako bi hiriburu bisitatu zituzten, katedral eta eliza ugari daude han. Ondoren, Nikaraguako Managua hiriburua bisitatu zuten, eta, Nerearen arabera, "nahiz eta Managuan izugarrizko lurrikara gertatu zen, oraindik ere badago zer ikusi; Tiskapa dago han, askok sandinismoaren tontortzat hartzen dutena. Han dago Sandinoren profil famatua. Bi katedral daude, zaharra pixka bat zapuztua geratu zen eta berri batzuk egin zituzten".

**HANGOEN ESKUZABALTASUNA**

Hiriburuak alde batera utzita, Rio San Juan eta San Juan del Sur herrietara ere joan zen Nerea: "Hantxe Nikaragua guztian ikusten ez den turismoa ikusten da". Corn Island-en ere egon ziren: "Hura Nikaraguako karibea dela esan daiteke, han dena da lasaia eta dena doa oso poliki. Hizkuntzari dagokionez, ingeles tankerako zerbait egiten dute". Janariarekin gogoratuta, Nereari ahoa ur bihurtzen zaio hango arrain goxoarekin pentsatuta.

Masayan ere egon ziren. Leku hura artisautzagatik da famatua, eta gauza guztiak eskuz eginak daude.

Berriz ere bueltatuko den galdetu diogunean, hauxe erantzun digu Nereak: "Berriz Nikaraguara bueltatuko naizela esaten jarraitzen dut, hango jendeak erakutsi diguten eskuzabaltasuna eta edukazioa izugarriak izan baitira".




Nerea (ezkerretik hasita lehenengoa) eta Maitane (bere ondoan) Nikaraguan.

txutxu-mutxua



MIKEL CASTILLO

## Joan den asteburuan Santa Gadea de Alfozen (Burgos) egon ziren Besaideko Mendizale Elkartekoak

Joan den azaroaren 10ean eta 11n Burgos aldean, Santa Gadea de Alfozen ibili ziren eskalatzen Besaide Mendizale Elkarteko eskalada taldekoak. Arrasateko sei lagun joan ziren, boulder eskalada egiteko asmoz. Besaide elkarteko irteeran parte hartu zuten gehienak Teknifikazio Zentroan aritzen diren gazteak dira. Asteburuan gazteekin batera Joxean Mulas zentroko arduraduna ere egon zen. Bada, Burgoskoa entrenamendu ona izango da gazteentzat, datorren astean Oiartzunen jokatuko den txapelketan parte hartzeko eta baita ere Gasteizen datorren azaroaren 24an eta 25ean izango den Euskadiko boulder txapelketarako.

bere ustez



**Zuriñe Velez de Mendizabal**

# Hemengo euskararekin bueltaka

Nire lana dela eta, ikastetxez ikastetxe joaten naiz Euskal Herriko zazpi probintzietatik barrena. Urtebete daramat horrela, ehunka, milaka kilometro autoan sartuta. Eta toki haietan gazteen artean euskararen egoera zein den ikusteko balio izan dit. Argi dago toki euskaldunagoak aurkitu ditudala, baina ez du esan gura gure hizkuntzaren erabilera hobea denik batean edo bestean. Nire usteak sarri izan dira ustelak. Kasu askotan ustekabe bikaina izan da eta ikasgai ederra hartu dut nik neuk ere.

**"Kasu askotan ezusteko bikaina izan da, eta ikasgai ederra hartu dut nik neuk ere"**

Konturatu naiz ikastetxe batzuetan euskalkia irakasten dutela. Gaur egun asko baitira horren beharra ikusi eta berbeta sustatzeko ahalegina egiten duten eskolak; bai hizketa eta baita idazketari dagokienez ere.

Nire kasuan, hutsune hori sentitu dut aspalditik. Hau da, Arrasateko berbeta egoki jakin ez eta zenbatetan lotsatu naizen hitzak gaizki erabiltzean! Horrek bultzatuta AEDk antolatutako ikastaroan parte hartu nahi izan dut. Euskara gure ondarea delako eta apropos hitz egin beharra ikusi dugulako, lagun koadrila handia animatu gara ikastaro horretara. Animu, bada!

((112))
SOS DEIAK

**UDALA** > EAE-KO ZINEGOTZIEKIN EZTABAIDA

# Victoriano Gallastegi: "Zorpetze maila ia erdira jaitsi genuen 91etik"

Gallastegi alkate ohiak EAEkoen kritikei erantzun zien herenegun, komunikabideen aurrean

"Proiektu guztien finantzaketa planifikatu da eta batzordeetan adostuak izan dira aurretik", esan zuen

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Victoriano Gallastegi Bergarako alkate ohiak prentsaurrekoa eman zuen eguaztenean, EAEko zinegotziek aurreko agintaldiko udal gobernuari egindako kritiken aurrean. *Asteleheneko Goienkaria*-ren 165. zenbakian jaso genituen EAEko ordezkariek esandakoak. Besteak beste, planifikazio eta ikuspegi falta leporatu zion Agurne Barruso alkateak aurreko udal gobernuari. Horren aurrean hauxe adierazi zuen Victoriano Gallastegik eguaztenean, kultura etxean: "Gure planifikazioa, agintaldi guztietan, Bergarak zituen behar handietara egokitutakoa zen: aparkalekuak, industri eremuak, etxebizitzak, Mizpirualde egoitza, zinema aretoa izango zuen auditorioa, liburutegia, urbanizazioak, lur azpiko garajeak, hezkuntzarako azpiegiturak, ekipamenduak eta beste hainbat. Ikusteko dago zer-nolako planifikazioa aurkezten digun udal gobernu berriak". Agurne Barrusok proiektu "faraonikoak" bultzatu izana kritikatu zuen, baina bestelako iritzia du Gallastegik: "Proiektu guztien finantzaketa planifikatu izan da aurretik eta zegokion batzordean adostutako egitasmoak izan dira".

**ZORPETZE MAILA JAITSI**

Herentzian hainbat arazo jaso dituztela kexu zen aurrekoan Barruso alkatea, eta horren adierazle eskolen azpiegiturarekin gertatutakoa ekarri zuen gogora. Gallastegik honela erantzun zion: "Negoziazio guztiak oso aurrera-tu ziren, amaitzea besterik ez zen falta. Eta [Barrusok] bere gobernuan du hezkuntza batzordeko ardura izan zuen pertsona [Iñigo Iñurrategi]".

Era berean, Udalaren zorpetze maila handia dela azpimarratu zuten EAEko zinegotziek. Victorianoren arabera, bera alkatetzara iritsitakoan, 1991n, zorpetzea %22,9 zen eta 2007an %12,4. Ia erdia jaitsi da zorpetze maila. Urtero izan dugu zorpetze maila jaisteko helburua".

Eta gestio "presidentzialista" eraman izanaren akusazioaren aurrean zera esan zuen Gallastegik: "Lehen esandako moduan proiektuak batzorde ezberdinetan adostutakoak ziren eta aktak irakurtzea besterik ez dago aho batez edo gehiengo batez onartuak izan direla ikusteko. Presidentzialista izatea da hori?".

Gallastegik demagogia politikoa egitea leporatu zien EAEko kideei: "Gure herriaren etorkizuna gestionatzeaz arduratzeko. Nahiz eta euren gestio sistemarekin bat ez etorri, ez dut kritikatu, baina operatiboak izan daitezela.

**AZPIEGITURAK**

## AHTren aurkako ekitaldiak

**E.M.** > BERGARA

Abiadura Handiko Trenaren aurkako Bergarako taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu hurrengo asterako, azaroaren 22tik 24ra. Hori dela eta, Txapa Irratiak (FM 97.25) AHTren gaineko irratsaio berezia egingo du eguaztenean, hilaren 21ean, 22:00etan. AHTren proiektuari buruzko hainbat azalpen emango dituzte eta aste bukaerari begira antolatutako ekitaldien berri emango dute.

**BILERA ETA MENDI MARTXA**

Egubakoitzean, hilak 23, bilera irekia izango da gaztetxean, 19:30ean eta aurretik panel informatiboak jarriko dituzte San Martin plazan. Zapatuan mendi martxa egingo dute Angiozarrera 09:30ean eta ondoren herri bazkaria izango da gaztetxean.

## Dendarien zozketa eta Uberako ospakizuna






GOIENKARIA

Herriko merkataritzaren aldeko jaia egin zuen aurreko zapatuan Bedelkar dendarien elkarteak. Egindako zozketan Ezozi Alberdi izan zen saritua. Mari Karmen Sesma Bedelkarreko presidentearen eskutik odoloste eta txorizo sorta bat jaso zuen Alberdik.

Bestalde, erretiratuen bazkaria egin zuten domekan Uberan. Eguerdiko meza eta ondorengo bazkari ederraren ostean, briska txapelketa jokatu zuten: Jose Julian Urtzelai eta Maritxu Egizabal izan ziren irabazleak eta Begoña Arteagak eta Bittori Aranburuk (beheko argazkian) jaso zuten bigarren saria.

> TAILA ESKOLA

### Ikasturte berria hasi dutela eta, gazteei dei berezia egin diete Taila Eskolako arduradunek

Taila Eskolak ikasturte berriko eskolekin hasi da dagoeneko. Eskolak eguaztenetan dira, Zabalotegi dorrean duten egoitzan, 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak bertara joan daitezke izena ematera. Gazteei dei berezia egiten diete eskolako arduradunek.

> LEHIAKETA

### Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteak kartel lehiaketa deitu du; 200 euro irabazlearentzat

Emakumeen aurkako indarkeria salatzeko nazioarteko egunari begira, kartel lehiaketa deitu du BEKEk. Lanak entregatzeko epea azaroaren 20ra arte dago zabalik. Irabazleak 200 euro jasoko ditu. Sari banaketa ekitaldia Pol-Polen egingo dute, azaroaren 25ean.

> KILOMETROAK

### Kilometroetan lanean jardundakoek afaria egingo dute abenduaren 1ean Udal Pilotalekuan

Kilometroak 07ko ospakizunei amaiera emateko herri afaria egingo dute abenduaren 1ean Udal Pilotalekuan, Kilometroetan lanean jardun duten boluntarioekin. Txartelak (25 euro) azaroaren 25era arte eskura daitezke Aranzadi ikastolan, Deportivon, Dixulan, Pol-Polen, Ariznoan eta Jam aretoan.

Estetika zentroa
Igaro
Barrenkale 35
BERGARA
Orain IGAROn kirolarien prestakuntzan espezializatutako profesionalak
Gorputz hezkuntzan titulatua
Kirol kiromasajista eta terapeutikoa • Oinen erreflexologia
Mendi lasterketetan Euskadiko selekzioaren masajista
Elite zein 23 urtez azpiko mailetan hainbat txirrindulari taldetako masajista.
Kirol masajea eta terapeutikoa
Informaziorako: 943 76 17 27





HEZKUNTZA > UMEEN JOLASAK, KANTUAK ETA IPUINAK

# Jolasean eta kantuan ariko dira nagusiak

Umeen jolasak eta kantuak ikasi eta ipuin kontaketa lantzeko ikastaroa antolatu dute


ELKARREKIN Jolasen, kantuen eta ipuinen laguntzarekin, haurrekin dugun lotura indar dezakegu. GOIENKARIA

EDU MENDIBIL > BERGARA

Udaleko Euskara batzordeak, herriko ikastetxeen laguntzaz, umeen jolasak eta kantuak ikasteko eta ipuin kontaketa saioak lantzeko antolatu ditu. Guraso, begirale, zaintzaile, irakasle edo interesa duen edonork har dezake parte eta bi ordutegi izango dira aukeran: aste barruan (eguaztenetan 15:00etatik 16:30era edo eguenetan 18:30etik 20:00etara) eta zapatu goizetan (10:00etatik 12:00etara). Saioren bat umeekin egingo dela adierazi dute antolatzaileek. Ikastaroa 14 ordukoa da eta euskaraz zein gazteleraz egiteko aukera izango da. Irakaslea Ana Carpintero irakasle bergararra izango da, horrelako ikastaroak ematen eskarmentua duena.

**AFEKTIBITATEZKO LOTURA INDARTU**

Ikastaroaren helburua hauxe da: ondo pasatzea eta aldi berean euskal kantuak eta jolasak ikastea, ondoren haurrekin konpartitu ahal izateko. Hain zuzen ere, umeen eta familiakoen afektibitatezko loturak nabarmen indartu daitezke baliabide horien bitartez: elkarrekin jolastuz, kantatuz, ipuinak irakurriz edo elkarri entzunez.

Aste barruko saioak urtarrilaren 10ean hasiko dira eta zapatukoak urtarrilaren 12an.

Izena emateko epea abenduaren 14ra arte izango da zabalik eta matrikulak 24 euro balio du. %85eko asistentzia dutenei ordaindutakoaren erdia ordainduko zaie eta, era berean, grabatutako kantuen CDa eramango dute etxera.

Argibidetarako Udaleko Euskara Zerbitzura (udaletxeko lehen pisura) edo 943 77 91 66 telefono zenbakira jo dezakete interesatuek.

ARTXIBOA > 'ZINEMA ETA HISTORIAREN ARTEKO HARREMANAK'

# Zinema eta historia batu dituen zikloko azken hitzaldia eguaztenean

E.M. > BERGARA

Datorren eguaztenean, hilaren 21ean, Udaleko Artxiboak antolatutako *Zinema eta historiaren arteko harremanak* izenburuko hitzaldi sorta amaituko da. Juan Madariaga Historia irakasle eta hitzaldien koordinatzaileak emango dio amaiera zikloari, *La difícil convivencia de identidades encontradas: Los Balkanes* izenburuko hitzaldiarekin. Hitzordua udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, 18:30ean.


MADARIAGA Zikloaren azken hitzaldia egingo du irakasle oñatiarrak. GOIENKARIA

**IZENEMATEA ZABALIK**

*Zinema eta historiaren arteko harremanak* zikloa urtarrilean jarri zuen abian Udaleko Artxiboak eta ordutik hona zazpi hitzaldia antolatu dituzte; zinemak islatutako historia garai ezberdinak aztertu dituzte. XX. mendeari gainbegiratua emateko balio izan du zikloak, eta Udaleko Artxiboko arduradunak pozik daude hitzaldiok herritarren partetik jasotako harrerarekin.

Madariagak joan den mendean zehar Jugoslavia ohiaren inguruan batutako erlijio eta nortasun nazional ezberdinen gainean jardungo du, hainbat film erreferentzia hartuta.

> UDALA

### Ordenantza fiskalen gainean iradokizunak eta iritziak jasotzeko bilera eguaztenean udaletxean

Ordenantza fiskalei alegazioak aurkezteko epea abenduaren 5era arte dago zabalik. Herritarren iradokizunak eta iritziak jasotzeko bilera egingo du Udalak herritarrekin eguaztenean, hilaren 21ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean.

> JAIAK

### Pintxo eta sukaldaritza lehiaketak datorren zapatuan San Antonion, Gure Ametsaren eskutik

Gure Ametsak antolatuta, patata feria eta pintxo lehiaketa izango dira San Antonion datorren zapatuan, urriaren 24an. Pintxo lehiaketa tabernei zuzendutakoa da eta elkarteendako sukaldaritza lehiaketa deitu dute. Argibideak: 648 01 32 40 (Jesus Jauregi)

> HISTORIA

### Historiako lanak bultzatuko ditu Udalak, eta eskaerak martitzenera arte jasoko dituzte

Herriaren gaineko historiako lanak bultzatuko ditu Udaleko Artxiboak. Historia ikerketaren bat eginda dutenei edo egiteko asmoa dutenei lankidetza eskainiko diete; interesatuek Udaleko Artxibora jo dezakete martitzena baino lehen (azaroak 20). Argibide gehiaho 943 77 91 32 telefono zenbakian.

UNED
BERGARA

Mintzapraktika ingelesez

- Komunikazio gaitasun maila hobetzeko eta aberasteko kurtsoa
- Erdi mailako ezagupena dutenei zuzenduta
- Ikastaroa nagusiki praktikoa izango da.

**Iraupena:** 30 orduko ikastaroa.
**Noiz:** eguaztenetan
**Ordutegia:** 18:30etik 20:30era. **Informazioa:** 943 76 90 33

San Martin Agirre plaza 4 • Bergara • Tel.: 943 76 90 33 / Faxa: 943 76 27 21 • www.uned.es/ca-bergara

**MUSIKA** > SANTA ZEZILIA EGUNA

# Udal Musika Bandaren eta Musika Eskolako ikasleen emanaldiak

Bihar, azaroak 17, eta 22an hainbat ikuskizun eskainiko dituzte musikariek

Udal Musika Bandak bihar egingo du Santa Zezilia eguneko kontzertua, frontoian

**JASONE ZABALA**> BERGARA

Udazken Kulturaleko egitarauaren barruan, eta musikarien eguna –Santa Zezilia– azaroaren 22an dela kontuan hartuta, hainbat ekintza antolatu dituzte herriko musikariek.

**KONTZERTUAREN EGITARAUA**

Bihar, azaroak 17, Alfredo Gonzalezen zuzendaritzapean, Udal Musika Bandak emanaldia egingo du Udal Pilotalekuan, arratsaldeko 20:00etan, eta, horrekin batera, Bandaren 175. urteurreneko diskoa aurkeztuko dute. Egitaraua 4 lanek osatzen dute. Lehenengo lana, *1832* izenekoa Alfredo Gonzalez Chirlaque-k egina, Bandaren 175. urteurrenari eskainia dago eta disko barruan dago; bigarrenik, *Ezpata dantza* deitzen dena, Miguel Gonzalez Bastidak egindakoa, eta hau ere diskoan dago. Hirugarren lana, Ennio Morriconeren *I knew I loved you* izeneko lana da, eta eskainiko duten laugarren eta azken lana, *Tom Sawyer suite*, Franco Cesarinirena. Kontzertuak ordubeteko iraupena izango du gutxi gora behera.

Musika Eskolakoek, ere, azaroaren 19tik eta 22ra Mizpirualdeko zaharren egoitzak antolatzen duen aste kulturalean hartuko dute parte kontzertu ezberdinak eskainiz. Santa Zezilia egunean, azaroaren 22an, askotariko ekintzak egingo dituzte herriko kaleetan zehar. 17:30ean, gazte bandak eta hizkuntza musikaleko ikasleek kalejira egingo dute. Trikitixa eta txistu taldeek ere plaza girotuko dute. Amaitzeko denentzat txokolate banatuko da plazan.



**SANTA ZEZILIA** Udal Musika Bandaren kontzertua gaur izango da. GOIENKARIA

**KULTURA** > DEBAGOIENEKO I. KULTUR ZIRKUITUA

## 'Piano bat bertsotan' ikuskizuna eskainiko dute gaur gauean Pol-Pol tabernan

'Piano bat bertsotan' ikuskizuna gaur, egubakoitza, 22:30ean izango da Pol-Pol tabernan, eta sarrera doan izango da

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Debagoieneko I. Kultur Zirkuituaren ikuskizunen barruan eta Jardun Euskara elkarteak antolatuta, zirkuituari dagokion bigarren ikuskizuna izango da gaur gauean. Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazaranek *Piano bat bertsotan* ikuskizuna eskainiko dute gaur 22:30ean Pol-Pol tabernan, eta sarrera doan izango da. Ansak gitarra joko du eta Astiazaranek, berriz, pianoa.



**AINHOA ETA JAGOBA** Musikarekin inprobisatzeko aukera izango dute gaur. JARDUN

**DENOK ABESTEKO AUKERA**

Gaur gaueko ikuskizunarekin erakutsiko digute bertsolaritzan bezala musikarekin ere inprobisa daitekeela. Gai jartzailea ere egongo da, publikoa bera. Ikuskizuna ikustera doanak entzun nahi dituen kantuak aukeratu ahal izango ditu, eta pantaila handi bat ere egongo da.

**MUSIKA** > DEBAGOIENEAN KANTARI

## Debagoienean Kantariko azken zuzenekoak, Bergaran

Azken emanaldiak Jam aretoan egingo dituzte azaroaren 18an eta 25ean

**JASONE BERGARA** > BERGARA

Datozen bi domeketan, azaroaren 18an eta 25ean egingo dute Debagoienean Kantari ikuskizuna Bergaran, Jam aretoan. Egun bakoitzean lau saio izango dira; hortaz, guztira zortzi. Eta 16:30ean hasiko dira bi egunetako saioak. Abesten 8-12 urte bitarteko haur eta gaztetxoak arituko dira. Hain zuzen ere, 170 parte-hartzaile izango dira, guztira 47 talde. Bergarakoak 46 izango dira eta beste bat Antzuolakoa. Talde bakoitzak kantu bana abestuko du eta sarrera doanekoa izango da.

**AZKEN SAIOA**

Bergarakoa izango da Debagoienean Kantari ikuskizuneko azken saioa, Eskoriatzan, Arrasaten eta Oñatin egindakoen ondoren.

Herran
BERGARA
Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53




GAZTELU
BURDINKI DENDA
Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA





BERGARAKO UDALAREN
UMEENTZAKO AISIALDI ZERBITZUA

Zure seme-alabek ondo pasatzeko,
euskaraz hitz egiteko, lagunak egiteko…

**AGORROSINEN:** ludoteka astelehenetik larunbatera bitartean.
• Egunero: 17:00 – 20:00
• Informazioa: ludotekan bertan **943 77 70 95**

**OSINTXUKO LUDOTEKA:** astelehenetik larunbatera bitartean.
• Astelehenetik ostiralera: 17:00 – 19:00
• Larunbatetan: 10:00 – 13:00
• Informazioa: Osintxuko ludotekan (eskola ondoan) eta Osintxuko liburutegian **943 76 12 21**

**ANGIOZAR:** liburutegia eta haurrentzako ekintzak astelehenetik larunbatera.
• Astelehenetik ostiralera: 16:30 – 20:30
• Larunbatetan: 10:00 – 13:00
• Informazioa: Angiozarko liburutegian (eskola ondoan) edo **943 76 16 19**

***ZATOZ, JOLASTU ETA ONDO PASATU!***

BERGARAKO UDALA



Neurriak
38tik 60ra

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

UDAZKENA
NEGUA

> ESKUBALOIA

## Romoren kantxara joango da asteburuan Bergara

Ligako bigarren garaipena poltsikoan, Bergarak beldur barik egingo du oraingo asteburuan Bizkaira bidaia. Bergarak taularen erdian dagoen Romo izango du aurrean, eta mahoneroak sailkapenean azkenaurreko lekuan badaude ere, lau talde daude puntu kopuru berarekin.

> SASKIBALOIA

## Candyk etxetik kanpora jokatuko du, Oiartzunen

Azkeneko postuan dagoen Oiartzunen kantxan jokatuko du asteburuan Bergarako saskibaloi taldeak. Mahoneroek jarraipena eman gura diote joan den astean Kevian Sporten kontra eskuratutako garaipenari (56-53). Gainera, azkenaurreko lekuan jarraitzen du Bergarako taldeak.

> FUTBOLA

## BTLS taldeak Zestoa hartuko du zapatu arratsaldean (17:30)

Jokatu dituen bederatzi partiduetatik zazpi irabazita, bigarren erregionaleko BTLS taldea aurrean dago sailkapenean. Hala, Bergarako mutilek Zestoa hartuko dute bihar arratsaldean Agorrosinen.

Joan den astean talde horrek 4-3 galdu zuen Gazteak taldearen kontura.

**FUTBOLA** > LEHENENGO ERREGIONALA

# "Bihar Ilintxaren kontra jokatuko dugun partidua tranpaz beteta dago"

Dagoeneko sei aste egin ditu Bergarak partidurik galdu barik; eta azkeneko postuan dagoen Ilintxa izango da bihar Agorrosinen (15:30)



**KAPITAINA** Intxurreren kontrako partiduan. JOSETXO ARANTZABAL

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Entrenatzaileek aparteko beldurra izaten diete azken postuan dauden taldeei: zaleak partidua irabazita dagoela pentsatuz gerturatzen dira futbol zelaira, eta gaitzagoa izaten da jokalariak motibatzea, lasaitu egiten dira.

Bergarako entrenatzaile Manu Diazek, baina, ondo daki biharko kontrario Ilintxa ardiz mozorrotutako otsoa dela: "Tranpaz betetako partidua izango da biharkoa, Ilintxa ez da-eta sailkapenak erakusten duen kontrario makala. Min hartutako jokalari askorekin hasi behar izan dute liga, eta hor dago euren hasiera txarraren arrazoia. Azkenaldian jokatu dituzten partiduetan, baina, beste aurpegi bat erakutsi dute, hiru partiduetatik bi irabazi egin dituzte-eta. Nik oso argi daukat jokalariak errekuperatzen dituztenean sailkapenean erditik gora egoteko taldea daukatela".

**BIDE ONETIK**

Bederatzi jardunaldi jokatu eta gero, seigarren lekuan dago Bergara, eta bost puntura dago liderra: "Txarto hasi ginen, eta orain partiduz partiduko dinamikan sartuta gaude. Alde horretatik, taldean giro ona dago eta polikipoliki talde sendoa osatzea dugu helburu. Badakit jendea sailkapenera begira ibiltzen dela, baina hori ez da gure aurtengo helburu nagusia. Pozik nago egiten gabiltzan lanarekin".

**labegaraieta**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Irish Pub-Tiki-Taka | **4-1** |
| Irubide-Tiki-Taka | **5-8** |
| Irish Pub-Deportivo Oriente | **5-4** |
| Errota-Gain-Komando Piperrak | **6-1** |
| Niu Tim-El Mapet | **6-2** |
| Niu Tim-Komando Piperrak | **3-8** |
| Belengua-Los Blus | **2-2** |
| Carboneros-Hamaika Jintxi | **6-1** |

**PARTIDUAK**

| **Azaroak 17, domeka, barruan.** | **Epaileak** |
|---|---|
| **17:00** Niu Tim-Hamaika Jintxi | **Belengua** |
| **18:00** Belengua-Komando Pip. | **Niu Tim** |
| **Azaroak 17, domeka, barruan.** | **Epaileak** |
| **16:00** Irubide-Deportivo Orient. | **El Mapet** |
| **17:00** Irish Pub-El Mapet | **Deportivo Orient.** |
| **18:00** Errota-Gain-Tiki-Taka | **Carboneros** |
| **19:00** Carboneros-Los Blus | **Tiki-Taka** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | CM Errotagain | 12 | 4 |
| **2.** | Los Blus | 10 | 4 |
| **3.** | Belengua | 10 | 4 |
| **4.** | Tiki-Taka | 9 | 4 |
| **5.** | Irish Pub | 9 | 4 |
| **6.** | Carboneros | 6 | 4 |
| **7.** | Komando Piperrak | 6 | 4 |
| **8.** | El Mapet | 3 | 4 |
| **9.** | Irubide | 3 | 4 |
| **10.** | Niu Tim | 3 | 4 |
| **11.** | Hamaika Jintxi | 0 | 4 |
| **12.** | Deportivo Oriente | -3 | 4 |

## Tiki-Taka eta Niu Tim ez ziren asteburua biribiltzeko gauza izan

Joan den asteburuan jardunaldi bikoitza izan zuten hainbat taldek. Tiki-Takak eta Niu Timek, esaterako, bi partidu horiek irabazita sailkapenean aurrerapauso polita egingo zuten, baina ez ziren sei puntuak eskuratzeko gauza izan. Irish Pub taldeak, berriz, neurria eman zuen: Tiki-Taka taldearen kontra 4-1 eta Deportivo Orienteren kontra 5-4. Sei puntu kolpean.

Eta oraingo asteburuan zer? Batetik, lider dagoen Errotagainek laugarren tokian dagoen Tiki-Takaren kontra jokatuko du. Kontuan hartu behar da hiru puntuko aldea baino ez dagoela bi talde horien artean. Atzealdean daudenen artean, lehia polita izango da Niu Timen eta Hamaika Jintxiren artean.

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA


POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

mingainari tiraka

**Isabel Zafra** > Joxan arrandegikoa

# "Legatza da gehien gustatzen zaidana"

JASONE ZABALA > BERGARA

**Bederatzi urte daramatza Isabel Zafra elgoibartarrak Joxan arrandegian lanean. Betidanik dihardu arrain saltzaile, txikitatik, eta Ermuan ere arraina saltzen ibili ondoren Bergarara etorri zen. Horrela, dagoeneko 35 urte daramatza lanbide horretan. Ez da marka makala gero!**



**Beti izan duzu ogibide hau?**

Betidanik. 14 urte nituela hasi nintzen. Asko gustatzen zaidan lana da. Etxean hamar anai-arreba gara, bost eta bost. Neska guztiok ofizio bera dugu, eta mutil guztiak igeltseroak dira.

**Arrain saltzailearen lana ez da lotuegia?**

Bai, gogorra eta lotua da; baina hala eta guztiz ere, badago aisialdirako denbora. Norberak jakin behar du ez dela zortzi ordu errelebuan lan egitea bezala, goiz eta arratsalde dago zeregina.

**Zeintzuk dira zure zaletasunak?**

Nire adinean gezurra dirudien arren, parranda asko gustatzen zait. Lagunekin ateratzen naiz eguazten gauetan eta asteburu guztian zehar.

**Arrandegi batean lan eginda, zer gustatzen zaizu gehien: arraina ala okela?**

Arraina, inongo dudarik gabe. Legatza gustatzen zait gehien.

**Arraina zerekin: ardo ala urarekin?**

Ardo beltzarekin, eta bereziki bat dut gustuko, Marques de Vitoria.

**Zein da jendeak gehien eskatzen duena?**

Orokorrean gehien saltzen dena legatza da, eta garaiaren arabera badago ezberdintasunik erosteko orduan. Neguan, adibidez, *soldaditos,* lupina eta erreboiloa saltzen dira gehien. Udan, berriz, hegaluzea eta antxoa.

**Bergararrak zorrotzak dira erosteko orduan? Emakumeak ala gizonak joaten dira gehiago dendara?**

Ez dira batere zorrotzak. Eguneroko erosketetara emakumeak etortzen dira, baina larunbatetan gizon gehiago etortzen da.

**Zein izan da arrandegian izan duzuen eskakizunik arraroena?**

Mero zuria. Oso gutxi dagoelako eta, gainera, oso garestia delako.

**Eta arrandegian izan duzuen arrainik bitxiena?**

Sable-arraina. Arrain luze eta gris kolorekoa da, suge baten antzerakoa.

**Zer behar da arrain saltzailea izateko?**

Grazia izatea. Balio egin behar duzu, edozein ezin da arrain saltzaile izan. Gustatu gabe, oso zaila da arrain saltzaile ona izatea.

**Arrain saltzailea ez bazina izango, zer?**

Arraroa iruditu arren, igeltseroa edo garraiolaria izango nintzateke. Gaztetan, igeltsero lanetan aritua izana naiz.

**Familiatik datorkizu arrain saltzaile izatea?**

Bai. Bost ahizpak arrain saltzaileak dira, eta nik ahizpa nagusiarengandik asko ikasi dut.

**Zeinekin jango zenuke legatz eder bat saltsa berdean?**

Mutil eder batekin, duda izpirik gabe.

**Eragin dizue zuei kontserben prezio igoerak?**

Ez. Atunaren garaia joan den arren, beti egon da merke eta berdin-berdin saldu dugu.

bere ustez



Jon Suinaga

## Heldu da, ez dago ihesbiderik

Asko falta da, bai, baina jadanik gainean daude. Ezin dugu ihes egin. Ez… ez nabil txinoak erreala erosi nahiari buruz. Azaltzen hasi dira mamuaren adarrak. Ez… ez dira faxistak bere ikurrinekin. Bere hitzordura leial, urtero gero eta lehenago, heltzen ari dira. Gurekin, berriz ere… Gabonak!

Honezkero, supermerkatuen txoko guztiak Gabonetako erreklamoekin josita daude; turroia, polboroiak, txokolatezko iruditxoak eta abar. Telebistan ere hasi da bonbardaketa; batik bat umeentzako jostailuekin. Zer esan loteriari buruz; aurten ere loteria pila bat erosi behar. Badakigu ez dela tokatuko, baina… eta tokatzen bada? Beste behin, neurrigabeko eta mota guztietako gehiegikeria kontaezinak ospakizunetan. Urtero bezala gorputza bete eta poltsikoa hustu behar.

Urte berriari desio pila bat eskatuko diogu: bizioak kendu, kiloak galdu, gerrekin amaitu … Batzuetan, zoritxarrez, eskaerak egitea erraz izaten da; aurreko urteko eskakizunak ez dira betetzen eta berdinak eskatu ditzakegu. Urrun egon arren, Gabonak gustuko dituzuenoi, zorionak eta ondo pasa. Besteoi, zorionak eta arina izatea espero. Baina…eta tokatzen bada?






azala
AZALAREN
KONTRA

argazki erakusketa

**Argazki erakusketa**
Azaroak **15**etik **30**era Kultur Aten. **Jokin Zaitegi gelan (3.solairuan).**
**Dokumentala**
Asteartero 18:30ean.

kultur: ate:



ARRASATEKO UDALA
Sexologia Zerbitzua www.sexologiazerbitzua.com
GAZTESAREA.NET
www.SEXTABAIDA.NET

BERRIA
943252066
Sexologia Zerbitzua

KAI

KAI BERRI TABERNA
Musika ona eta giro hobea!

INAUGURAZIOA
Igandean 19:00etatik aurrera

Astelehenetik aurrera gosariak
goizeko 9:00etatik aurrera

Aste honetan tostada eta
zukura gonbidatzen zaitugu

*ZATOZTE*
*EZAGUTZERA!*

Kruz Gallastegi 3 Bergara



Herritarrekiko errespetuaren eta Aretxabaletaren normalizazioaren aldeko apustua egin dutela diote

Legearen zirrikituak aprobetxatuz urratsak eman zitezkeela esan diete EAEko kideei

**POLITIKA** > ARALAR ALDERDIAREN AZALPENAK

# EAEri "ausardiarik eza" leporatu dio Aralarrek

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Azken asteotan PSE-EEk eta Eusko Abertzale Ekintzak Aralarren gainean kaleratutako idatziei erantzun gura izan diete Aralarko kideek. Horregatik, prentsaurrekoa egin zuten atzo, eguena.

**NORMALIZAZIOAREN ALDE**

PSE-EEko kideei esan gura izan diete aretxabaletar guztiekiko errespetuaren eta Aretxabaletaren normalizazioaren aldeko apustua egin duela Aralarrek, eta argitu diete: "Eztabaida daiteke bide bat edo beste bat egokia ote den, baina printzipioa bera demokratikoa dela ez dago inolako zalantzarik". Eta Aralarri leporatutakoak oso modu interesatuan egindakoak direla adierazi dute.

Bestetik, Eusko Abertzale Ekintzak egindako salaketei erantzun gura izan diete: "Euskal Herriak bizi duen egoera ikusita, jazarpen eta eraso guztien aurrean kontrakotasuna adierazteko eskatu diogu EAEri, ez dugu uste eman ezinezko pausoa denik". Eta gaineratu dute EAEk nahiago izan duela sinatutako hitzarmenaren gainetik gatazka luzatzea eta herria banatzea. Eusko Abertzale Ekintzak, EAk eta Aralarrek ekainean udal gobernu onerako hitzarmena sinatu zuten: "Legeak jarrita daukan markoaren baitan, legearen zirrikituak aprobetxatuta urratsak emateko aukera eskaintzen zuen hitzarmenak". Hori errespetatu gura izan dutela diote Aralarko kideek, eta hitzarmenak zuen baldintza edozeinek onartuko zukeela: "Aretxabaletan giza eskubide guztiak eta herritar guztienak errespetatzea".




**PRENTSAURREKOA** Azken asteotako idatziei erantzuteko prentsaurrekoa egin zuten Aralarko kideek atzo, eguena. M.A.

**LANERAKO ATEAK ZABALIK**

Eta jarraitu dute esanaz lanak eta konpromisoek hartu behar dutela irain eta deskalifikazioen lekua, eta ateak zabalik daudela Udalean ekarpenak egin, batzordeetara etorri edo parte-hartze prozesuetan esku hartzeko: "Batzuen eta besteen presentziarik ezak desilusioa eragin digu". Eta jarraitu dute esanaz, ondo dakitela gainerakoek ere batzordeak irekiak direla eta herri mailako proiektuetan –zaharren egoitza, kiroldegi berria, osasun etxea…– guztien ikuspegiak eta iritziak gogoz hartuko lituzketela.

Aralarrek Ezker abertzale ofizialaren kolektibo zabala ordezkatua egon dadin lan egin duela esan dute: "Herriko Aralar prest zegoen bere hautagaien zerrenda erre eta Alderdien Legeak kanpoan utzitako kolektiboari bidea eskainiz, Aretxabaletan bizi dugun egoera aukera errealekin gainditzera". Baina EAEk ezetz esan diola aukerari gaineratu dute, eta "ausardiarik ezak gugan desilusioa sorrarazi du". Hala ere, "lanerako asmoa agertzen dutenean" Udaleko ateak zabalik topatuko dituztela esanaz bukatu dute, "eta gu lankidetzan aritzeko prest".

**ELKARRETARATZEA** > LAN ISTRIPUA

# Bañu-Etxeko istripua salatu zuten

Marokoko 28 urteko gazteak bost urte daramatza Bañu-Etxe txatartegian lanean; hanka biak galdu zituen urriaren 31n

**M.A.** > ARETXABALETA

Elkarretaratzea egin zuen LAB sindikatuak Bañu-Etxe txatartegi aurrean astelehenean, hilak 12. Urriaren 31n izandako istripua salatu zuten eta prekarietateak langileak hiltzen dituela esan: "Ez da kasualitatez gertatu. Lan baldintza prekarioak dituzte, langileek ez dute informazio eta formaziorik, eta errudunak patronala eta administrazioa dira; azken hori, ez duelako inspekziorik egiten, ez isunik jartzen".

Txatartegiak 14 langile ditu eta istripu larria izan zuen batek urriaren 31n. Aretxabaletan bizi den Marokoko 28 urteko gazteak hanka biak galdu zituen belaun azpitik. Bost urte daramatza Bañu-Etxen lanean aipatutako langileak, eta paketeak egiteko makinak moztu zizkion hanka biak.




**ELKARRETARATZEA** LABeko kideek istripua salatu zuten astelehenean. M.A.



> IKASTAROA

### Erreflexoterapia ikastaroan izena emateko epea zabalik

Erreflexoterapia ikastaroa egingo dute datorren abenduaren 1ean, zapatua, Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta. Jabi Fernandez adituak egingo ditu gidari lanak eta egun osoko ikastaroa izango da. Oinean zelan eman masajeak irakatsiko du Fernandezek, min fisiko zein psikologikoak antzematen jakin eta osatzeko.

Izenemate epea zabalik dago azaroaren 23a bitartean, eta Loramendi EEra deitu behar dute interesatuek, 943 77 09 70 zenbakira, edo mezu bat bidali ondoko helbidera: *loramendi@topagunea.com*.

> KIROLAK

### Tai txi ikastaroa hasiko dute kirol etxean astelehenean

Tai txi ikastaroa jarriko dute abian datorren astelehenean kirol etxean. Saio bi egingo dituzte goizetan: astelehen eta eguaztenetan, 08:15etik 09:15era. Eta bakarra arratsaldean: eguaztenetan, 20:30etik 21:30era. Kirol etxeko abonatuek 31 euro ordaindu beharko dituzte hilean eta abonatu ez direnek, 37,20 euro.

Hainbat gaixotasuni aurre egiteko Tai txia jarduera egokia dela diote antolatzaileek: estresa, bihotzeko gaitzak, artritisa, bizkarreko eta buruko minak... Edozein adineko pertsonendako egokia dela diote.

**ELKARTASUNA** > AZOKA

# Azoka antolatuko dute presoen alde

Gabonetan egingo dute bigarren eskuko arropa eta bitxien azoka; hil honetan arropak jasotzen dabiltza



**AZOKA** Arrasaten egindako presoen aldeko azoka. UBANE MADERA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Bigarren eskuko arropa eta bitxien azoka egingo dute Gabonetan. Aretxabaletako preso politikoen aldeko Topaguneak antolatu du ekimena, lehenengoz gure herrian, eta dagoeneko arropak jasotzen dabil. Herritarren batek arropak eman gura izanez gero udaletxe zaharrera eroan behar ditu, azaroko eguazten edo egubakoitzetan, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

**EDOZEIN ARROPA ETA BITXIAK**

Praka, soineko, kamiseta eta antzekoak gura dituzte; ume zein helduenak izan daitezke. Eta bitxiak ere jasoko dituzte: eskumuturrekoak, belarritakoak… Hori bai, arropa garbituta eramatea eskertuko dute antolatzaileek. Azokan saldutakoarekin, presoen alde lan egiten duten taldeendako zein senideendako batuko dute dirua. Ez da ekimen berria, Arrasate eta Oñatin antolatu izan dutelako, eta jakinik harrera ona izan duela beti, gurean ere egitea erabaki dute.

Antolatzaileek adierazi digute azokaren data zehaztu barik dutela: "Ez dakigu zenbat arropa batuko dugun, baina seguru asko Gabon egunean, abenduaren 24an, eta Gabon Zahar egunean, abenduaren 31n, egingo dugu. Eta lekua ere oraindik guztiz erabaki barik daukagu".

## "Andereño Kristina, eskerrik asko"

Aste honetan, betiko andereño Kristinak lanaldia bukatu du. Kurtzebarri Eskolako gurasoek –hasiera haietako lehen ikasle izan zirenak– eta gaur egungo ikasleek agur goxoa eskaini zioten astelehenean aurresku eta abesti artean. Gaur, berriz, maisu-maistren txanda izango da; koadrila ederra elkartuko da Mendiolan, afaldu, bertsotan egin, dantzan... Kristinaren oporraldi mugagabea ganoraz ospatzeko. "Maitte zaittugu, andereño Kristina".



KURTZEBARRI ESKOLA

**ZARAIA taberna**

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95



Raijin Tattoo

MANTENDU DEBAGOIENA EDERRA!
TATUATU ZAITEZ!

Iralabarri plaza 1, behea
Aretxabaleta
Tel.: 610 85 91 54
www.myspace.com/raijintatoo

Mobiliario Arenaza

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PIENSOS UNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA

Tel.943 77 00 33/79 42 56

**KULTURA** > KULTURA ASTEA PAKE LEKUN

# Gaur emango diote amaiera Pake Lekuko kultura asteari

Hainbat ekintza egin dituzte asteon Pake Lekun, kultura astearen barruan

**MIREN ARREGI** > OÑATI

Oñatiko erretiratuen elkarte Pake Lekuk II. kultura astea ospatu du aste honetan. Iaz antolatu zuten lehen aldiz kultur astea, Oñatiko San Migel jaien eta Gabonen artean dauden hilabete hutsak –kultur ekintzei dagokienez– betetzeko asmoz. Astelehenean eman zioten hasiera kulturа asteari, Pake Lekuko Aloña eta Ordiziko Umore Ona abesbatzek Santa Anan eskaini zuten kontzertuarekin. Gustura gelditu ziren Aloña abesbatzako kideak kontzertuaren ostean, eta baita abesbatzako zuzendari Loli Ordoki ere: "Abesbatza berria da, duela bi urte bakarrik sortua. Kideak oso gustura eta ilusioz beterik ikusten ditut eta horrek ni ere asko motibatzen nau", zioen Ordokik kontzertuaren amaieran. Ezustekorik ere izan zen, koruko kideen harridurarako; izan ere, Oñatiko konposatzaile Iñaxio Ibarrondok elkarteari eskaini zion *Pake Leku* delako martxari letra ipini dio, abesbatzak abestu ahal izan dezan. Opari ederra.

Beste hainbat ekintzaz ere gozatu ahal izan dute Pake Lekun, eta astea borobiltzeko, elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *Bidaia bat egingo dugu* antzezlana aurkeztuko du gaur, erretiratuentzat, Santa Ana aretoan, 17:00etan, eta abenduaren 21ean egingo dute herritar guztientzat.



**KONTZERTUA** Pake Lekuko Aloña abesbatza, Santa Ana aretoan kontzertua eskaintzen. MIREN ARREGI

> TXANTXIKU IKASTOLA

### 40. urteurreneko azken jaia egingo du gaur ikastolak

16:45ean emango zaio hasiera jaiari etxafuegoen jaurtiketarekin. 17:00etan, plazan herri kirolak umeendako. 18:00etan txosna jarriko dute sagardoa eta gaztaina erreak dastatzeko. 19:00etan, berriz, txorimaloak, trikitilariak eta bertsolariak izango dira giroa alaitu eta animatzeko.

Bestalde, argazki erakusketa zabalik egongo da domekara bitartean, 18:30etik 20:30era, hain zuzen.

> KONTZERTUA

### SKT Sekuentzia taldea Arrano tabernan 22:30ean

Oñatiko Arrano taberna musika areto bilakatuko da gaur gauean; izan ere, Zarauzko Sekuentzia taldeak kontzertua eskainiko du 22:30ean.

Sekuentzia taldekoek diote bizitza sekuentziaz betetako film bat dela eta eurek aukeratutako sekuentziekin osatzen dutela errepertorioa. Hain zuzen ere, bilduma ugari argitaratu dituzte, eta baita disko bat ere: *Hautsetik*, 2006an kaleratua.

**KIROLDEGIKO TABERNA** > ZABALIK

# Zabaldu dute herritarrendako kiroldegiko taberna berria

Eguen arratsaldean zabaldu zuten lehenengoz kiroldegiko taberna berria; astelehenetik domekara bitartean eskainiko du zerbitzua

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Osasun Saileko ordezkarien oniritzia atzo jaso zuen taberna berriak. Hala, behin udal batzordean eskaera onartuta, atzo arratsaldean bertan zabaldu zuten taberna lehenengoz. Bi langile ibiliko dira lanean aste barruan. Aste bukaeran, berriz, beste bi langile arituko dira; guztira lau langile izango ditu tabernak.

**ZERBITZUA**

Roberto Lizarralde tabernako arduradunak esan digu 55 bat lagunendako lekua dagoela. Tabernak 100 metro koadro ditu eta sukaldea, biltegia eta komunak ere baditu. Eskainiko dituen zerbitzuen barruan, pintxoez eta edariez gain, haurrendako ospakizunak ere egiteko aukera egongo dela adierazi digu Roberto Lizarraldek. Merienda horiek, ordea, aurrez enkargatu beharko direla gaineratu digu.

**ORDUTEGIA**

Zerbitzua astelehenetik domekara bitartean eskainiko da. Ordutegia hauxe da: astelehenetik eguenera 09:30etik 21:30era; barikuetan, 09:30etik 00:00etara; zapatuetan, 09:00etatik 00:00etara; eta domeketan, 09:00etatik 14:00etara goizean eta arratsaldean 18:00etatik 21:00etara egongo da zabalik .

Bestalde, pilotalekurako sarrera eta kantxa zaharrerako nahiz kantxa berrirako sarrerak tabernatik bertatik izango dira aurrerantzean.



**KIROLDEGIKO TABERNA** Roberto Lizarralderen taberna berria. MAIDER ARREGI



GOIENKARIA

## Bidegorriaren aldeko lehen ibilaldia

Txirrinka elkarteak gaur, azaroak 16, egingo du lehen bizikleta ibilaldia. 19:30ean irtengo dira, Herriko Plazatik. Ekitaldi hori hileko hirugarren egubakoitzetan egiteko asmoa azaldu du Txirrinkak. Bestalde, Udalak Oñatiko Bizikleta Plana egiteko Bizker enpresa aukeratu zuen urriaren 18ko gobernu batzordean. 19.000 euroko aurrekontua eta sei hilabete izango ditu enpresak.

**EUSKARA** > EUSKARAREN KALE ERABILERAREN NEURKETA

# Euskararen kale erabilera gorantz doa udalerrian

Soziolinguistika Klusterrak egin zuen azterketa apirilean, Udalak eskatuta

Udalerriko hiru puntutan neurtu zuten euskararen erabilera hiru egunean

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Eskoriatzan egiten diren 100 elkarrizketetatik 42 dira euskaraz. Hori da Soziolinguistika Klusterrak, Udalak eskatuta, egin duen euskararen kale erabileraren neurketaren emaitza esanguratsuenetako bat.

Neurketa horren arabera, Eskoriatzako kaleetan apirileko hiru egunean entzundako elkarrizketatik %41,61 izan ziren euskaraz. Behaketa sistema erabilita egin zuten neurketa; hau da, herritarrei galdetu barik.

**HERRIKO HIRU PUNTUTAN**

Egindako neurketetan guztira 1.416 hiztunen datuak jaso zituzten, herriko hiztunen %37,3 litzatekeena.

Helburua da herritarren leku publikoetako hizkuntza erabilera neurtzea; eta horretarako herriko hiru zona aukeratu zituzten: erdigunea, Goiko kalea-Dorleta eta San Pedro.

Goiko kalean jaso da erabilera indizerik handiena (%46,2). Horren ostean, zazpi puntu gutxiagoko erabilera neurtu dute erdigunean (%39,1). Eta azkenik, indizerik txikiena San Pedro-Intxaurtxuetakoa da (%36,7).

**NEURKETA BEREZIAK ERE BAI**

Aipatutako zonez gain, beste bi puntu ere neurtu zituzten: unibertsitate ingurua eta umeen guneak, hain zuzen ere. Unibertsitate inguruan 207 lagun hartu zituzten, eta erabilera %50,7 izan zen; orain dela bi urtekoa baino txikiagoa.

Umeen guneei dagokienez, oso lagun gutxi hartu ahal izan zituzten, 83 besterik ez; eta hori emaitzak kontuan hartzeko ez da nahikoa. Hala ere, 2005ekoarekin aldetuta, erdira jaitsi da.

2003an hasi zen Eskoriatzako Udala neurketa horiek eskatzen; eta horri esker, badago aukera tarteka datuak eta joerak konparatzeko. 2003tik 2007ra orokorrean eskoriatzarren euskararen erabilera 11,7 puntu igo da. Are gehiago, azken bi urteotako igoera handiagoa izan da aurreko bi urteetakoa baino. Bilakaera baikorraren erritmoa azkartu egin da beraz.

**GORANZKO TENDENTZIA**

Adin taldeak bereiztuz gero, Soziolinguistika Klusterrak jakinarazi du umeek, gazteek eta helduek, hirurek gora egin dutela euskararen erabilerari dagokionez. Behera egin duten bakarrak adindunak dira, baina Euskal Herriko tendentzia orokorra ei da hori.

Sexuari dagokionez ere bada alde txiki bat. Alde txikiagatik ez bada ere, emakumezkoek gizonezkoek baino euskara gehiago egiten dute kalean, azterketa horren arabera.

Udaleko Euskara batzordeko arduradunak pozik daude neurketan jasotako emaitzekin. Are gehiago, jakinarazi digute San Pedro-Intxaurtxueta zonan erabileraren gorakada nabarmena izan dela, eta horrek asko poztu dituela. Batez ere, kontuan hartuta orain dela bi urte auzo horrek erabilera-emaitza txikienak eman zituela.




**EMAITZAK** Euskararen kale erabileraren emaitzak eman zituzten komunikabideen aurrean astelehenean. D.V.

## Sukaldaritza begetariano eskolak martitzenetan

Kutxak antolatuta, sukaldaritza begetarianoaren gaineko ikastaroa hasi dute Eskoriatzan. Hamabi bat lagunez osatutako koadrila martitzenero elkartzen da Elizpe elkartean.

Berrizko El Pastor del Gorbea jatetxeko sukaldari Patxi Marina da irakaslea. Oinarrizko osagaiekin jaki oso goxoak egiten ikasten dihardute.



IKER BARANDIARAN



FAGOR

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01

MONDRAGON

Gari Kortazar > Bidaiaria

# "Munduko mendi garaienetara bidean dauden jende eta herriak ezagutu eta grabatu gura ditut"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

**Gari Kortazar eskoriatzarrak atzo, eguena, hartu zuen Perurako hegazkina. Bederatzi hilabetez Hego Amerika, Ozeania eta Asiako hainbat herrialde bisitatuko ditu. Mendi aldera joko du batez ere, eta kamera txiki bat eramango du aldean.**


Kortazar motxila prestatzen harrapatu genuen martitzenean. IKER BARANDIARAN

**Noiz eta zergatik erabaki zenuen bidaia hori egitea?**

Orain dela 8 urte Nepalen egon nintzenean banekien hara itzuliko nintzela. Horrez gain, beti izan dut Patagoniara joateko ametsa. Lantokian, bi aste jarraian besterik ez didate ematen; horregatik, eszedentzia hartzea pentsatu nuen. Eta behin eszedentzia hartuta, ibilbide zabalagoa prestatu nuen.

**Zer ibilbide daukazu aurreikusita?**

Hemendik Perura joko dut. Handik Boliviara, Paraguai, Argentina, Zeelanda Berria, India, Nepal, Tibet, Txina... Eta Pekindik Ulan Batorrera biziklетan joateko asmoa daukat. Guztira bederatzi hilabete eta erdi egingo ditut bidaian.

**Zein da bidaiaren helburua?**

Ahalik eta munduko mendi inguru gehien ezagutzea. Hala ere, nik mendi guztiekin disfrutatzen dut, ez daukat anbizio alpinistarik, nahiz eta ez diodan uko egiten tontor batzuetara igotzeari. Horrez gain, mendi inguruan bizi den jendea eta herriak ere ezagutu gura ditut.

**Lan handia eman dizu bidaia antolatzeak?**

Ez. Hegazkinak One World Ticket txartelarekin hartu ditut, eta Marsans agentziako Anek ikaragarri lagundu dit. Lan handien eman didate txertoak, aseguru medikuak eta kontu horiek guztiek. Gainera, herri askotan kontaktuak ditut zain, neu etxean edo ostatuetan hartzeko prest. Hori hemengo lagun askori zor diet.

**Bidaia bideoan jasotzeko asmorik badaukazu?**

Bai, bideokamera daramat nirekin, eta oinezkoak heltzeko zailak diren lekuak grabatuko ditut. Ohituta gaude mendiaren gaineko dokumentaletan igoeraren gaineko pasarteak ikusten. Nire helburua, ordea, beste bat da: mendi horietara bidean dauden herritxoak, bazterrak eta jendea grabatu gura ditut.

**Internet bidez zure bidaia jarraitzeko aukera izango dugu, ezta?**

Bai. *bidaigari.blogspot.com* bloga zabaldu dut. Hor argazkiak, bideoak... sartuko ditut eta ikusitakoaren gainean idatziko dut, jakina. Horrez gainera, jendeak horra idatzi ahal izango dit, eta gustura hartuko ditut mezuak.

> **"Ez daukat anbizio alpinistarik, baina ez diot uko egingo tontorren bat igotzeari"**
>
> **"Nepalera eta Patagoniara joateko ametsa nuen, eta ibilbidea borobildu dut"**
>
> **"Ezinezkoa da herrialde horiek bi astean ondo ezagutzea; horregatik, eszedentzia eskatu dut"**

**Lortu duzu bidaia egiteko laguntzailerik?**

Bai. Tuclandek mendiko botak eman dizkit eta Ternuak ere eman dizkit arropa batzuk. Iban Arroiaberi eta Iose Uribesalgori zor diet hori. Ez diot inori dirurik eskatu. Bestalde, nik egin behar dudan moduko bidaia jende askok egin du, eta ez da halako berezia.

**Kontatutakoaren arabera, bidaia gehiena mendi aldean egiteko asmoa daukazu...**

Bai, hori da nire asmoa; hiritan-eta denbora laburra emango dut. Denbora luzeen 4.000 eta 5.000 metro artean ibiliko naiz. Hasieran suabe ibili beharko dut, aklimatatu arte; eta jarraian hartuko diot neurria. Hala ere, ibilita nago garaiera horietan: urte eta erdi dela Montblancen, Nepalen ere ondo moldatu nintzen...

**Zeintzuk izango dira bisitatuko dituzun leku kuttunenak?**

Zaila da aukeratzea. Peruko Huascaranen elgoibartar batek Euskal Herria hostala dauka; Paraguain, han bizi den izeba misiolaria bisitatuko dut; Ande ia guztiak zeharkatuko ditut; Aste Santu inguruan Himalaiara joko dut; Mongolia ere ikusteko irrikan nago... Hala ere, zalantza daukat azkenean Pakistanera joango naizen edo ez. Hara heldu bitartean aztertuko dut zer giro politiko dagoen han.

**Itzuleran lanera bueltatu beharko duzu?**

Bai. Halako kapritxoak egiteko aukera gutxi izaten dira; eta eszedentzia bukatuta lanera bueltatuko naiz. Baina bidaiatzeko grina neurri baten aseta.


ROCK HIRUKOTEA Gaur egun hiru kidek osatzen dute taldea. GAZTELUPEKO HOTSAK

MUSIKA > ROCK KONTZERTUAK ASTEBURUAN

# Uek-en disko berria aurkeztuko dute Inkernu tabernan

Egubakoitzean Uek taldearen kontzertua eta zapatuan Acapulco Gold Diggers-ena

I.B. > ESKORIATZA

Musika emanaldiz beteta egongo da asteburua Inkernu tabernan. Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, bi kontzertu egingo dituzte: gaur, egubakoitza, Uek; eta bihar, zapatua, Acapulco Gold Diggers. Biak ala biak 22:30ean izango dira.

Keu Agirretxea Ondarroako musikari bikainaren proiektua da Uek. Keu ezagun egin zen Etsaiak taldean luzaroan ibili zelako eta Fjord taldeko sortzaile ere izan zelako, baina Uek izenarekin ere bost disko kaleratu ditu.

Joan den urtean Uek bere lehentasun bilakatu zen, eta Mikel Arakistain eta Jon Gurrutxagaren laguntzarekin talde egonkorra osatu zuen. Euskarazko rock indartsua egiten du, eta egunotan *Uhinak* diskoa aurkezten dihardu.

**ACAPULCO GOLD DIGGERS**

Bihar, zapatua, berriz, Gasteizko Acapulco Gold Diggers garage taldea igoko da agertokira. Talde berri samarra den arren, gitarra jotzen EH Sukarra taldean aspaldi ibilitako Marc alemana daukagu.

> OMENALDIA

## Zapatuan omenduko dituzte Viteri dendako ardura duten ahizpak

Bihar, zapatua, Udalak omenaldi ekitaldia egingo die Viteri dendako arduradunei. 13:30ean izango da hori. Udalak eskertuko dio Viteri familiari 100 urte baino gehiagotan dendari eutsi izana; eta baita urte hauetan guztietan herriari emandako zerbitzua ere.

Viteri ahizpen ustetan, denda horrek 100 urte baino gehiago ditu, baina saltokiaren gainean dituzten agiri zaharrenak 1907koak dira. Euren aitajaun Prudenciok zabaldu zuen denda, eta hari Maritxu alabak hartu zion lekukoa. Aspaldian, berriz, Prudencioren biloba Mari Karmen eta Mari Mertxek dute dendaren ardura.

Hastapenetan denetatik saltzen zuten, baina gerora Maritxuren sasoian mertzerian eta jantzigintzan espezializatu ziren. Viteri ahizpak erretiratzen direnean denda itxiko egingo dutela jakinarazi dute.

> KIROLA

## Umeendako capoeira ikastaroa hasi dute asteon pilotalekuan

Senzala Euskadi Capoeira elkarteak umeei zuzendutako ikastaroa antolatu du. Herenegun, eguaztena, hasi zuten eta astelehen eta eguazten guztietan egingo dute abenduaren 19ra bitartean.

Arratsaldez egingo dute, 17:00etatik 18:00etara bitartean, pilotalekuko gimnasioan. Urte osorako matrikula 40 euro da, eta interesatuek bi bide dituzte izena emateko: 687 59 22 75 telefono zenbakira deituta edo *senzalaeuskadi@hotmail.com* e-postara mezua bidalita.

Taldea osatzeko zortzi laguneko muga jarri dute antolatzaileek, eta jakinarazi digute oraindik leku batzuk daudela. Irakaslea Tania Gomez arrasatearra da.

Capoeira Afrikako esklaboek Brasilen sortutako arte martzial akrobatikoa da. Musikak, dantzak eta mugimendu erritmikoek osatzen dute.

> ERRETIRATUAK

## Imsersoko bainuetxe programan izena emateko epea zabalik

Imsersok bainuetxe programarako izena emateko epea zabaldu du.

Bainuetxera urtarrilean edo otsailean joan nahi dutenek izena eman beharko dute abenduaren 12a baino lehen. Martxotik abuztura bitartean joan nahi dutenek urtarrilaren 16ra arte dute izena emateko aukera. Azkenik, irailetik abendura bitartean joan nahi dutenek izena eman behar dute maiatzaren 16a baino lehen. Udaleko gizarte langilearengana jo behar da izena emateko.

> UMEAK

## Antton Irusta ipuin kontalaria bihar, zapatua, liburutegian

Bihar, zapatua, umeendako ipuin kontaketa saioa izango da liburutegian. 18:00etan hasiko dute saioa. Antton Irusta ipuin kontalaria etorriko da eta marrazkilari bat izango du laguntzaile, ipuinak kontatzeko. Antton Irusta, ipuin kontalaria izateaz gain, idazlea ere bada. Hainbat ipuin idatzi eta argitaratu ditu, besteak beste *Olentzero, gabonetako ipuina* eta *Txistu eta danbolin*. Gogora ezazue saioa dela 4 eta 10 urte bitarteko umeendako.

> EMAKUMEAK

## Indarkeriaren aurkako plataforma aurkeztuko dute

Arrasateko emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako plataforma aurkeztuko dute datorren eguenean, hilak 21, udaletxeko areto nagusian, 19:00etan.

Aurkezpena eta hitzaldia izango den ekitaldi horretan, plataformaren lanaren eta helburuen berri emango dute; baita udalek egoera horretan dauden emakumeendako eskaintzen dituzten zerbitzuen berri ere.

**IKASTAROAK** > DANTZA, SUKALDARITZA ETA ESKULANAK

# Askotariko dantza ikastaroak egongo dira abenduan hasita

Sevillanak, flamenkoa, dantza modernoa, funkya eta biodantza ikasteko aukera egongo da herrian, abendutik aurrera

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Udalak, berriz, pintxoak eta eskulanak egiten ikasteko ikastaroak antolatu ditu, Eusko Jaurlaritzaren laguntasunarekin; bestalde, hainbat dantza ikastaro antolatzeko laguntza eskaini du. Dantza modernoa eta funkya, sevillanak, flamenkoa eta biodantza ikastaroak egongo dira, abenduan hasita. Ekimen pribatuak dira ikastaro horiek guztiak, baina Antzuolako Udalak laguntasuna eskaini die ikastaro horien antolatzaileei: lokalak laga dizkiete, eta udaletxean eman ahal izango da izena.

**PINTXOAK ETA ESKULANAK**

Udalak pintxo eta eskulan ikastaroak antolatu ditu, Eusko Jaurlaritzaren laguntasunarekin.

Pintxo ikastaroa hasiko da abenduaren 4an, martitzena, eta 20 ordukoa izango da. Martitzenero izango dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara. 20 euro izango da ikastaroaren prezioa.

Eskulan ikastaroa, bestalde, urtarrilaren 12an hasiko da; ikastaro hau ere 20 ordukoa izango da. Eskolak izango dira zapatuetan, 10:00etatik 11:30era. Prezioa da 20 euro.

Informazio gehiago behar duenak edo izena eman nahi duenak udaletxera jo beharko du.

**DANTZA IKASTAROAK**

Askotariko dantzak ikasteko aukera izango da herrian datozen hilabeteetan. Dantza modernoa, funkya, sevillanak, flamenkoa eta biodantza, hain zuzen ere. Biodantza ikastaroa eskainiko dute hilabetean behin, martitzen baten, 19:00etatik 21:00etara. Gainerako ikastaro guztiak eskainiko ditu Blanca Esther Carrasco irakasleak. Dantza moderno eta funky ikastaroa izango da eguaztenetan, 19:00etatik 21:00etara. Sevillana ikastaroak izango dira martitzen eta eguen goizetan, 10:00etatik 11:00etara. Flamenko eskolak, azkenik, martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 19:00etara.

Ikasle kopuruaren arabera zehaztuko dituzte irakasleek ikastaroen prezioak. Udaletxean eman behar da izena.



ANTZUOLAKO UDALA

## Argazki onenak saritu zituzten aurreko domekan

Aurtengo argazki lehiaketan 66 argazki jaso dituzte. Aurreko domekan eman zituzten sariak. 14 urtetik beherakoen mailan, Endika Mataren *Grabitatea* lanak aipamen berezia jaso zuen. 15 eta 25 urte bitartekoen mailan, Ana Peñalba izan zen irabazlea, *Lasaitasuna* lanarekin eta bigarren saria jaso zuen Aritz Elortzak *Zerua sutan* lanagatik. 26 urtetik gorakoen mailan, Ibai Mendiaren *Erlea* argazkia izan zen irabazlea eta bigarren saria jaso zuen Arantzazu Kortabarriak *Bidea* argazkiagatik.

**bere ustez**



Iñigo Ramirez de Okariz

## Oroimena eta ondarea

Proiektu komunei ekiteko bizi dugun garaia ez dela onena aipatu izan dugu. Elkarte-zale baino norbanako-zale bihurtu gara. Hala ere, noizean behin, mirariak egon badaude; izan ere, herrian jende bat prest dago loari, aisialdiari eta familiari ordu batzuk kendu eta hori parrokiaren zaharberritzeari eskaintzeko; txalogarria da hori.

Badakit osatutako batzordean pentsaera ezberdineko pertsonak daudela, baina denok interes komuna dute; hots, egoera larrian dagoen herriko ondare kultural honen etorkizuna ziurtatzea. Herriko baserriak, errotak, ermitak... berreskuratzerakoan, galtzeko zorian dagoen gure izaeraren zati bat berreskuratu nahi izaten dugun bezalaxe, herriko parrokiarekin ere hori lortu nahi izatea miresgarria da.

**"Parrokiaren zaharberritzeari denbora eskaintzea miresgarria da"**

Zoritxarrez, eta oporretan egiten ditugun bidaiak lekuko dira, gureak ez diren kultura edo ondare hegemonikoak direnekin itsutzen gara, geurea baztertuz. Kultura hegemonikoen gainetik, hala ere, herri baten ondarea dagoela, eta parrokia zaharberritzeko arrazoi nagusia hori besterik ez dela azpimarratu beharra dago. Baina badakit, talde horrek laguntza behar duela, antzuolar guztion laguntza, alegia: sinestunena eta ez direnena.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



OSOKO BILKURA Urriko osoko bilkuran onartu zituen udal gobernuak 2008rako ordenantza fiskalak. L.Z.

**ORDENANTZA FISKALAK** > ZERGA IGOERA 'BIDEGABEKERIA' DELA SALATU DU OPOSIZIOAK

# EAJ-EA: "Udalak herritar guztiak zigortzen gaitu"

EAJ-EAk zaborraren tasaren igoera, baserritarrei tasa hori aplikatzea eta etxebizitza hutsei aplikatuko zaien zerga berria gogor kritikatu ditu

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

EAJ-EAk ordenantza fiskalen gainean udal gobernuak egindako proposamenaren aurka bozkatu zuen urriko osoko bilkuran. "Udalak onartutako bidegabekeria elgetarren aurrean salatu nahi dugu", adierazi dute.

Zaborraren zerga %16,1 igoko da Elgetan Udalak zerbitzu berezien bilketa herritarrek ordaintzea onartu baitu. "Salagarria da kontuan hartuta gainontzeko Udalek bere gain hartzen dituztela era horietako gastuak", esan du oposizioko taldeak.

Lehenengo aldiz zerga hori baserriei aplikatzea ere ez du begi onez ikusten EAJ-EAk. "Askotan berba goxoak erabili arren, baserritarren kalterako diren neurriak onartzen ditu Aralarrek".

**ETXEBIZITZA HUTSEI, ZERGA**

Etxebizitza hutsei aplikatuko zaien zerga berriaren harira, Udal gobernua bere kaxa gauzak asmatzen ari dela salatu du oposizioak. "Oposizioan zegoenean hainbeste kritika egindako Aralar taldea da orain elgetarroi gure poltsikoak husteko agintzen diguna". Gaia konplexua dela adierazi dute, azterketa serioa eskatzen duena.

**GAZTAINA ERRE EGUNA**

## Bertsoak eta musika gaur gaztetxean

Espaloian bihar oi! kontzertua eta domekan 'Pizti hezlea' antzezlana

**L.Z.** > ELGETA

Gaztaina erre eguna egingo du gaur, barikua, Elgetako gaztetxeak. Azaldu dutenez, 19:00etan aterako dute lehenengo gaztaina tanda danbolinetik.

Gauerako *Emeki* bertsokabareta dute iragarrita Udalaren eta Kutxaren babesarekin. Iratxe Ibarrak, Onintza Enbeitak eta Oihane Pereak saio esperimentala egingo dute taberna giroan, 22:30ean hasita. Jarraian, Jone bakarlariak hartuko du lekukoa. Kaleratu berri duen *Kateak* izeneko bigarren lana aurkeztera dator. Sarrera doan izango da kasu bietan.

**ESPALOIAN BI HITZORDU**

Oi! musikazaleek bihar, zapatua, dute hitzordua Espaloian. Hiru talde arituko dira azkenean, antolatzaileen esanetan: Donostiako Plan B, Hernaniko Afonia eta Ondarroako Jonnie Gerriwelt.

Umeendako, berriz, *Pizti hezlea* izeneko antzezlana ekarriko dute domekan, 17:30ean, Aitziber Garmendia, Idoia Sanchez eta Kepa Errasti antzezleek antzokira. Iluntasuneko piztien hezle bihurtuko da Eider, beldur guztiak behingoz alde batera utzita.

**bere ustez**



Beatriz Zabalondo

## Galestik bueltan etorrita

Etxetik Loiura nindoala, irratian, Atxaga euskaltzainaren sarrera-hitzaldi ederra. Hauxe zioen, besteak beste: Garikano anai-arrebek duela urte asko lizarrak aldatu zituzten Tolosako zelaitxo batean, Lizardi hara joan ohi baitzen irakurtzera eta. Gaur lizardi eder bat dago.

Galesen ibili gara lau egunez, hango telebistaren 25. urteurrenaren arrimura antolatutako ospakizun-jardunaldietan. Han ezagutu ditut Elin Amezketakoa, George bilbotarra, Aelwyn donostiarra,

**"Galestarrek gure herriaz eta kulturaz nola hitz egiten zuten ikusita, a ze lotsa neure buruaz!"**

Patrick zarauztarra… Euskaldunak guztiak. Galestarrek, oro har, gure herriaz eta kulturaz nola hitz egiten zuten ikusita, a ze lotsa neure buruaz! Aitor dezadan: zer nekien, bada, Galesko herriaz, harakoan? Nire ezjakintasunaren neurria ondo hartuta itzuli naiz.

Loiutik etxerantz, Atxagaren pasartea gogoan, Lizardiren hitzak entzun ditut galestarren ahotan: *Baña nik, izkuntza larrekoa, nahi aunat ere noranaikoa, yakite-egoek igoa; soña zaar, berri gogoa; azal orizta, muin betirakoa*.

Zimiko egiten dit bihotzean: ezin bildurik ikusten ditut gurean izerdi eta arnasa berriak, lizardi bihurtzekoak.

**MENDI IRTEERA** > DOMEKAN, 'ELGETAKO LAU HANDIXAK'

## Bi ibilbide proposatu ditu Egokik, motza eta luzea

Egoki taldeak domekan, irteeran, izena emateko aukera emango du

**L.Z.** > ELGETA

Domekan, hilaren 18an, hitzordu garrantzitsua dute Elgetako mendizaleek. *Elgetako lau handixak* mendi irteera antolatu du Egoki taldeak.

Berez, atzo zen izena emateko azken eguna, baina antolatzaileek aukera hori egunean bertan ere ematea erabaki dute. Ezbaian egon direnek, beraz, domekan irteeran izena emateko aukera izango dute. Bi ibilbide daude aukeran, bata luzea (6 ordu) eta bestea motza (3 ordu).

**IZENEMATEAK DOMEKAN**

Domekan, 08:30ean abiatuko dira ibilbide luzea egitea aukeratzen dutenak. Elgeta, Intxorta, San Roman, Erdella, Aixola, Eguarbitza, Azkonabitza, Azula eta Elgeta da ibilbidea. Antolatzaileek uste dute sei orduan egiteko moduko ibilaldia dela.

Ibilbide motza hiru ordukoa da. Elgeta, Intxorta, San Roman, Erdella, Aixola eta Elgeta. Kasu bietan hamaiketakoa egongo da Aixolan eta Karabietan. Antolatzaileek gomendatzen dute praka luzeak eramatea.

Parte hartzeko azken aukera zabalik dago, beraz. Ibilbide luzean izena emateko epea 08:00etatik 08:30era egongo da zabalik. Ibilbide motzerako, aldiz, 09:00etatik 09:30era.

> UDAL LIBURUTEGIA

### Erabiltzaileei txartel berriak egin behar zaizkie eta liburutegitik pasatzeko eskaera egin dute

Amaitu dute automatizazio prozesua Elgetako Udal Liburutegian. Aurrerantzean, beraz, Internet bidez kontsulta daitezke, besteak beste, liburu katalogoa zein liburuen mailegu egoera.

Hurrengo pausoa erabiltzaileei txartel berriak ematea da. Kode pertsonalizatu bat dute txartel berriek eta nortasun agirien zenbakiekin osatzen da. Hori da, besteak beste, Maria Elena Eztenaga udal liburuzainak behar duen datua. Erabiltzaileei eskatzen zaie, beraz, lehenbailehen Udal Liburutegitik pasatzeko falta diren datuak eman eta txartel berriak jasotzeko.

> PILOTA ETA FUTBOLA

### Pilota txapelketako lau partiduak gaur jokatuko dira eta futbol taldeak domekan jokatuko du Mojategin

Elgetako futbol taldeak domekan jokatuko du asteburuko norgehiagoka. Garaipenak garesti daude elgetarrendako; izan ere, bakarra lortu dute jokatutako bederatzi partiduetan. Domekan, hilaren 18an, Arrasateko taldearen aurka jokatuko dute Mojategin. Partidua 12:30ean hasiko da.

Pilota txapelketari dagokionez, gaur, barikua, jokatuko dira asteburuko lau norgehiagokak. Lehenengoa 20:15ean hasiko da. Jardunaldi interesgarria da; hain zuzen, sailkapeneko lehenengo postuan berdinduta dauden bi bikoteek aurrez aurre jokatuko dute. Asier Morales-Fernando Zenitagoia eta Koldo Goenaga-Roberto Basauri dira.

((112))
SOS DEIAK

**UDALA**

## Ibarrako alkate biak hautatzeko bozketa

Azaroaren 25ean hautatuko dituzte Ibarra auzorako alkate biak

**A. BARRUSO** > ARAMAIO
Azkeneko osoko bilkuran onartu bezala, Ibarra auzorako auzo alkate bi izendatuko dituzte aramaioarrek. Ibargoia, Aita Gabirel J. eta Iturrizuri kaleak eta Bizente Goikoetxea plaza ordezkatuko ditu auzo alkate batek eta Nardeaga eta Pedro Ignacio Barrutia kaleak eta Santa Kruz abadearen plazatxoa besteak.

Auzo alkateak hautatzeko hautestontzi bi jarriko dituzte udaletxeko osoko bilkuren aretoan azaroaren 25ean, goizeko hamarrak eta eguerdiko ordu biak bitartean. Herritar bakoitzak berari dagozkion kaleetako bizilagun baten izena jarri beharko du Udalak Ibarrako etxeetara bidaliko dituen papertxoetan.

**UEMA** > ZUZENDARITZA BERRIA

# EAEko zinegotzi Arriolabengoa, Uemako zuzendaritzako kide

Martin Arriolabengoa EAEko zinegotzia Uemako zuzendaritzako kide izendatu dute

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak urriaren 27an izendatu zituen zuzendaritzako kide berriak

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO
EAEk hartu du Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko zuzendaritza. Urriaren 27an egin zuten batzar nagusian, Uemako herrietako ordezkari politikoek zuzendaritza berria izendatu zuten. EAEko Jon Bollar (Aulesti) da lehendakaria, eta EAko Jesus Maria Goikoetxea (Artea) lehendakariordea. Gainerako kideak dira Miren Aburuza (Aduna), Maria Azpiroz (Leitza), Ainhoa Muxika (Arama) eta Martin Arriolabengoa (Aramaio). Joan den zapatuan egin zuten lehenengo zuzendaritza batzordea, Adunan, eta 2007ko balantzea onartu eta 2008ko egitasmoa landu zuten.

**HELBURUAK**
Uemaren helburu nagusia da herritarrek bizitza sozial eta politikoa euskaraz egiteko urratsak ematea: "Gure helburua da Uemako kide diren udalerriek euskaraz bizi eta lan egin ahal izateko pausoak ematea", azaldu digu Aramaioko zinegotzi Martin Arriolabengoak. Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratu nahi dituzte. Modu horretara, udalerri euskaldun guztiek bat eginda, euskara nagusi izango den lur-gune bat osatzea litzateke beste helburuetako bat.

1991n osatu zen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Estatuko abokatuak haren estatutuak errekurritu egin zituen eta 1995ean aldatu egin zituzten. Beti aldarrikatu izan dute, baina, funtzionamendua ez dela aldatu. Egun, Uema Jaurlaritzako Aholku batzordeko kide da eta udal euskaldunetan egin beharreko plangintzaren diseinuan ari da lanean.

Ipar Euskal Herrira zabaltzea da orain mankomunitatearen hurrengo helburuetako bat. Ipar Euskal Herriko udalerriak mankomunitatean egoteko aukera izan dezaten egin beharreko aldaketa juridikoak aztertzen ari direla azaldu dute zuzendaritzatik.

**EKIMEN POLITIKOA**
Uemaren ekimen politikoa indartzea da zuzendaritza berriaren beste helburuetako bat. Lehendakaritza berriak uste du azken urteotan oharkabean pasatu dela Uemaren lana, eta, hain zuzen, horri bultzada emateko ekimen politikoa berreskuratu gura dute.


**MARTIN ARRIOLABENGOA** Uemako zuzendaritzako kide da. A. INUNTZIAGA

**EAJ-REN ORDEZKARI BARIK**
Lehendakaritza berria osatzeko egindako batzar nagusian EAJk ez zituen bere ordezkariak izendatu. Alderdi horretako hautetsiek alde egin zuten bileran etenaldia egin zutenean. Hala, EAJri dagozkion hiru karguak hutsik geratuko dira, momentuz: "Ez dugu ezer ulertzen, ez zen inolako arazorik egon, baina momentu batean eta azalpenik eman gabe utzi zuten bilera", azaldu du Martin Arriolabengoak.

Hilabetean behin elkartuko dira Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kideak euren proiektuetan aurrera egiteko. Arriolabengoak aurreratu digu urtarrilean Uema Eguna ospatu nahi dutela.

**UDALA**

## Bainuetxe programa abiarazi du Udalak

Pentsiodunek, bainu etxeetara joateko, zabalik daukate izena emateko epea

**A.BARRUSO** > ARAMAIO
Alarguntza edo bestelakoengatik pentsiodun direnek 60 urtetik gora izan beharko dute eta erretiro eta ezintasuna dela-eta pentsiodun direnek bainuetxeetara baldintzarik gabe joateko aukera izango dute. Eskaera egiteko udaletxeko gizarte langilearen bulegora joan beharko dute.

Txandei dagokienez, urtarrila eta otsaila bitartean joan nahi dutenek abenduaren 12ra arte izango dute eskaera aurkezteko epea zabalik. Martxotik abuztura bitarteko hilabeteetan joan nahi dutenek, berriz, urtarrilaren 16ra arte.

Eskaera egiteko ezinbestekoa da aurkeztea NAren fotokopia, hilean jasotako pentsioaren zenbateko zehatza, Gizarte Segurantzako zenbakia eta medikuaren txostena.

## 5. eta 6. mailetako neska-mutikoak Zerainen izan dira astebetez

San Martin Eskolako 19 ikasle Zeraingo barnetegian izan dira aste honetan, Euskal Girotze Jardunaldietan parte hartzen. Mendi irteerak eta denetariko jolasak egin dituzte han. Betiere euskaraz, ondo ibili eta elkarren arteko harremana sendotzea zen irteeraren helburua. Eta irakasleek esan digute primeran ibili direla eta helburua ondo baino hobeto bete dutela.


JUNKAL GARAI

**GIZARTE ZERBITZUAK** > ERRETIRATUAK ETA GAZTEAK

# Imsersoko bainuetxe programan izena eman daiteke

Egonaldiak hamabi egunekoak dira, eta urtarril edo otsailean joan gura izanez gero abenduaren 12rako eman behar da izena

**MIRARI ALTUBE**> LEINTZ GATZAGA
Bideberri Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak jakinarazi gura die Gatzagako erretiratuei, Imsersoko bainuetxe programan izena emateko epea zabalik dagoela.

Hona hemen erretiratuok bete beharreko baldintzak: Gizarte Segurantzako erretirodun edo ezintasun pentsioduna izatea eta alarguntasun pentsioa edo besteren bat jasoz gero 60 urte beteta izatea; gaixotasun kutsagarririk edo buru gaixotasun larririk ez izatea; nor bere kasa moldatzea; eta bainuetxeetako tratamenduak jasotzeko osasun oztoporik ez izatea.

Egonaldi bakoitza 12 egunekoa izango da, eta hauek dira txandak eta izena emateko epeak: urtarril edo otsailean joan gura izanez gero, abenduaren 12rako eman behar da izena; martxotik abuztura bitartean joateko, urtarrilaren 16rako; eta irailetik abendura bitartean joateko maiatzaren 16rako.

Izena emateko edo argibide gehiago gura izanez gero, gizarte langilearengana jo behar da; martitzenetan, udaletxean.

**DROGAREN GAINEKO KANPAINA**
Erretiratuendako ez ezik gazteendako kanpaina ere egiten dabil gizarte zerbitzuak. Drogaren gaineko kontuak ezagutarazi eta prebenitzea du helburu kanpainak, eta gaztetxoen guraso eta gazteei zuzendu diete. Gidak banatu dizkiete, eta gaur, egubakoitza, zinema-foruma izango dute kultura etxean, 20:00etan. Lehenengo filma ikusi eta ostean eztabaidarako tartea egingo dute Sasoia taldeko hezitzaileen laguntzarekin.



M.A.

## Jendea gustura San Milixan egunean

Hotz egin zuen domekan, baina Gatzagara etorritako jendeak agudo berotu zuen giroa. San Milixan jaiaren biharamunean balorazioa egin zigun alkateak: "Jende gutxitxo, baina giro polita; Gatz Museoan jende gehiago ibili den susmoa dut". *Sorginek* gustura jardun zuten lanean eta artisauek ere bai: "Soka egiten ibili ziren nafarrak oso pozik itzuli ziren, eta zeramika tailerrekoak itzultzeko asmoa azaldu zuen", gaineratu zigun alkateak.

> GIZARTE ZERBITZUAK

### Mexikoko emakumeen desagerpenen gaineko berbaldia

Mexikon 1993a ezkero desagertutako emakumeen gainean egingo dute berba Ciudad Juarez herritik etorritako emakume bik. *Nuestras hijas de regreso a casa* elkarteko kideak dira Elia Escobedo eta Julia Esther Cano, eta justizia eske dabiltza.

Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Sorginak emakume elkarteak antolatu dute berbaldia, eta eguaztenean, hilaren 21ean, egingo dute, 19:00etan, kultura etxean.

> INTERNET

### KZgunean hainbat ikastaro egingo dituzte gaur goizean

Gaur, egubakoitza, eta hilaren 30ean etorriko da Gatzagara KZguneko arduradun Aitor Madrid ikastaroak eskaintzera. 09:00etatik 11:00etara bitartean egongo da, eta Pilar kaleko lokalera etorritakoek aukeratuko dute zein ikastaro egin. Ordubete edo bi orduko hainbat ikastaro eskaintzen ditu KZguneak, eta edozein aukeratu ahal izango dute herritarrek.

PROMOCIONES ARAMAIXO
11 etxebizitza berri Aramaion





- Aramaio, zerbitzu guztiak dituen herria
- Eraikuntza-fase oso aurreratua
- Erabilgarriak diren 166 m²-tik gorako etxebizitzak, 89 m²-ko beheko solairua bi-hiru ibilgailurentzako garajearekin.
- 480.000 €-tik aurrera
- Lursaila eta 24m²-ko terraza



Informazio gehiago:
630 31 13 18 / 659 93 53 70 / 619 71 60 65
Nardeaga kalea 26


**ANDONI AZKARGORTA** Bazkidea.


**JUANITO ARRIARAN** Realeko zalea.


**IGOR ARENAZA** Realeko zalea.


**SALBA RODRIGUEZ** Realeko bazkidea.


**FERNANDO JUARISTI** Akzioduna.


**MIREIA GALLASTEGI** Realeko zalea.


**RAFA MUNGIA** Kirol kazetaria.


**BITTOR ARRIARAN** Realeko zalea.

**FUTBOLA** > REALA KRISIAN

# Realeko zale debagoiendarrek begi onez ikusten dute inbertsio talde txinatarren etorrera

**E.A. /X.U.** > BERGARA

Reala krisian dago. Fuentesek ekainean aurkeztu zuen dimisioa eta haren ordezko De la Peñak eguaztenean, urtarrilaren 3rako hauteskundeak aginduz. Oraingoz hautagai bakarra agertu da: Iñaki Badiola, Txinako enpresa bateko burua, klubaren akzioen %35 erosi gura duena. Testuinguru horretan, elkartearen ereduaren gaineko eztabaida sortu da: akziodun txiki asko edo akziodun bakarra, indartsua. Ibarreko hainbat zale, bazkide eta akzioduni galdetu diegu inbertitzaile txinatarren gainean.

## Andoni Azkargorta

REALEKO BAZKIDEA

"Inbertsio talde horrek badu Realean lekua. Zerbaiten beharra dago. Realak inbertsio handia behar du, dirurik ez badago ez dago kirol proiekturik. Kanpoko talde bat diru hori jartzeko prest badago, zergatik ez?

Garrantzitsua da, datorrena datorrela, Reala ondo ezagutzea, kluba, taldeak duen historia... Eta, txinatarrekin batera dagoen Badiola bertakoa da. Horrelako egoera baten aurrean, arriskutsua izango litzateke Piterman moduko bat etortzea, baina ez dirudi horrelakorik egongo denik. Ez dakit azken urteotako zuzendaritzek zertan gastatu duten horrenbeste diru: Txapeldunen Ligan izan ginen orain gutxi, diru asko hartu zuten Xabi Alonsoren kontura... Eta, hala ere, sekulako zorrak ditu Realak".

## Juanito Arriaran

REALEKO ZALEA, FUTBOLARI OHIA

"Ondo ikusten dut kanpoko talde batek Realean inbertitu gura izatea, jakinda Realak *tremendoko* zorrak dituela. Ezer egin baino lehenago, baina, egungo akziodunek eskubidea izan beharko lukete Realaren benetako egoera zein dan jakiteko.

Orain momentuan Realean ilusioa falta da. Milaka talde ikusi ditut nik, kategoria galdu eta lehenbailehen gora igotzeko sekulako indarra jartzen. Hemen ez dago horretarako ilusiorik, zuzendaritzakoek ere ez dutelako horretan sinisten, eta jendea hoztu egiten da. Hori bai, beste gauza bat ere esango dut: Iñaki Badiola horrek oraindik ez du aurpegirik eman, eta hori ez zait gustatu".

## Igor Arenaza

REALEKO ZALEA, FUTBOLARI OHIA

"Realak diru sarrera handia behar du, eta hemen inor ez dago diru hori jartzeko gertu. Nik ondo ikusten dut dirua kanpotik etortzea. Orain arteko zuzendaritzak mesfidantza sortu du, ez dute-eta Realaren egoera ekonomikoaren gainean garbi berba egin.

Ingalaterran bistan geratu da kanpotik etortzen diren inbertitzaileekin lan egiteak emaitza onak eman ditzakeela. Hor daude Liverpool, Manchester United, Chelsea... Azkenean, hemengo jendearekin eta kanpokoarekin talde polita egin daiteke. Beste kontu bat izango litzateke, esaterako, Piterman moduko pertsona bat etortzea.

Gure kasuan kooperatibak Txinara joan badira dirua inbertitzera, zergatik ez dira txinatarrak hona etorriko inbertitzera".

## Salba Rodriguez

REALEKO BAZKIDEA

"Etor daitezela txinatar horiek, eta lehenbailehen etortzen badira, hobeto! Kontuan hartu behar da, hori bai, Iñaki Badiola dela proiektu hori gauzatzen dabilena, hau da, Realaren koloreak barruan daramatzan pertsona dela. Hori oso garrantzitsua da.

Gainera, Realak orain behar duena ilusioa da. Nik kalean jendearekin berba egiten dudanean denak daude ados. Badirudi Riquelmeren fitxaketa eskura daukatela, hiru milioi euro ordaindu behar dituzte, eta hori sekulakoa izango litzateke. Olinpiar Jokoak direla-eta kamiseta mordoa salduko dituztela Txinan... Dirua, azken batean".

## Fernando Juaristi

REALEKO AKZIODUNA

"Eguazteneko dimisioarekin, erabat aldatu da egoera, eta hauteskundeei begira aukera bat baino gehiago dago. Nik Santos ikusi gura dut hautagai moduan, eta, akaso, txinatarrekin akordio batera hel daiteke, batek daki.

Bestalde, inbertsio talde txinatarraren gainean, nik oraindik ez dakit ezer ere, ez dutelako ezer aurkeztu. *El Diario Vasco*-k eman du horren berri, orain arte egon den zuzendaritzari sekulako egu-

### INBERTSIO TALDE TXINATARRAREN GAINEKO PUNTU NABARMENENAK

**> INBERTSIO TALDE TXINATARRAK AKZIOEN %35 EROSI GURA DU**

Lighthouse Consulting Limited inbertsio taldeak Realaren %35 erosteko proposamena egin dio egungo zuzendaritzari. Enpresa txinatar horren presidentea Iñaki Badiola gipuzkoarra da, garai batean Banco Santander taldeko inbertsioetako presidenteorde izan zena.

Badiolak dozena erdi bat batzar egin ditu egungo zuzendaritzarekin, baina oraindik ez du proposamen zehatzen gaineko aurkezpenik egin. Hala, Badiolak gurago izan du berak ordezkatzen duen taldearen asmoak hainbat komunikabideren bitartez eman: ETBk eta *El Diario Vasco*-k izan dute informazio hori. Badiolak ez du, oraingoz, aurpegirik eman.

**> REALAREN KAPITALA HANDITUTA GURA DUTE, AKZIOAK EROSI, KLUBAK DIRU SARRERAK IZAN DITZAN**

Inbertsio talde berriaren asmoa ez da egungo akziodunei akzioak erostea, hori adierazi du Badiolak: "Horrek ez bailuke Realera dirurik ekarriko, akzioak eskuz aldatzea izango litzateke". Badiolaren taldeak Realaren kapital handitzea egin gura du, akzioen %35aren jabe egiteko.

Talde horren asmoa da kluba aurrera eramateko gestio modelo berri bat ezartzea "anbizio handiko proiektu bat gauzatzeko". Izan ere, talde horren ustez gaur egungo zuzendaritzak ez dauka gaitasunik Realarendako diru sarrera berriak lortzeko, eta hori ezinbestekoa da maila guztietan klubak aurrera egin dezan.

**> KLUBAREN %35 EROSITA, REALAREN ZUZENDARITZAN ERABAKITZE GAITASUN OSOA IZAN GURA DUTE**

Inbertsio talde txinatarra akzio kopuru horren jabe izanda, zuzendaritza talde berria ezartzeko eskubidea izango luke. Gainera, zuzendaritza talde horrek zazpi edo zortzi lagunek osatuta egon beharko luke, ez gehiago. Hori bai, zuzendaritza taldea ondo prestatuta dauden profesional gipuzkoarrek osatu beharko luketela uste dute. Badiolaren esanetan, argi daukate Reala etxeko jendeak zuzendu behar duela; zuzendaritza talde horretan Asiako ordezkari bat edo bi izango lirateke. Proiektu argia gura dute aurkeztu, Realaren inguruan dauden sentsibilizazio guztiak batuko dituena.

**> AKZIOAK EROSI AURRETIK AUDITORIA EGITEA EZINBESTEKOTZAT JOTZEN DUTE**

Derrigor bete beharreko puntua da hori, inbertsioa non egiten duten jakin aurretik, Realaren benetako egoera zein den jakin gura dutelako.

Alde horretatik, Realak ez du dirurik ordaindu behar auditoria hori egiteko, Lighthouse Consulting Limited enpresak berak ordainduko luke-eta auditoria. Realeko egungo zuzendaritza taldea, baina, ez dago auditoria hori egitearekin ados, beste edozein akziodunek jaso ahal duen informazioa ematea baino ez dute onartu. "Realaren gaineko informazio konfidentziala da hori, eta ezin diogu edonori eman", esan du eguaztenera arte Realeko presidente zen Maria de la Peñak.

rra emanez. Baina talde horrek oraindik ez du ezer argirik esan, eta esaten ez duten bitartean, nik ez dut iritzirik emango. Batzuek diote talde horrek Realean inbertsioa egin dezakeela, eta gauzak ondo joaten direnean kluba saldu. Nik ez dut horrelakorik gura. Orain, euren proiektua luzerako bada, Realaren alde egin gura dutelako, tartean hemengo jendea dagoelako, eta esku artean proiektu sendoa badaukate, zergatik ez?".

## Mireia Gallastegi

REALEKO ZALEA, BAZKIDE OHIA

"*Denonerrealekoek* ez dute bete agindu zutena. Gezurretan ibili dira. Engainaturik eduki gaituzte: harrobia, jokalari ohiak, benetako Reala, sustraiak... Izan ere, nahiz eta akzioak atomizatuta egon eta gehienez ere %2 eduki akziodun bakoitzak, agintean egon direnen inguruan batzen da akzioen gehiengoa. Ezin dugu bota agintetik. Eta behin eta berriro saltzen digute ez dela komeni baten eskuetan egotea Reala, baina, askoren artean banatuta egon arren, denak lagunak badira, gauza bera da, ezta? Ez dut nahi Piterman bat, baina ezta 500 Piterman txiki ere.

Gauden egoeran, esperantza apurra da norbaitek dirua jarri, borondatea ipini, eta aurrera egitea. Izan txinatarra edo errioxarra. Badiolaren proposamena ez dut ezagutzen, baina esperantzarako izpia da".

## Rafa Mungia

KAZETARIA

"Realak eman du urtebetean azken 20 urteetan baino albiste gehiago. Albiste txarrak, gehienak. Realaren historiako unerik larrienean gaude eta etorkizuna ere ilun ikusten dut: zalantza askorekin. Horrek eragina dauka denean: futbol taldean, gizartean, zaleen artean... Reala ez du inork errekonozitzen. Berreskuratu egin behar da. Orain artekoa irauli egin behar da.

ESANAK

**"Inbertsio talde horrek badu Realean lekua, zerbaiten beharra dago; Realak inbertsio handia behar du"**

**Andoni Azkargorta** > Bazkidea

**"Kooperatibak Txinara joan badira dirua inbertitzera, zergatik ez dira txinatarrak hona etorriko inbertitzera"**

**Igor Arenaza** > Zalea

**"Santos ikusi gura dut hautagai moduan, eta, akaso, txinatarrekin akordio batera hel daiteke, batek daki"**

**Fernando Juaristi** > Akzioduna

**"Orain artekoa irauli egin behar da; nik ez daukat inolako beldurrik Realaren %35 edo %40 norbaitek erosteko"**

**Rafa Mungia** > Kazetaria

*Denonerrelaren* porrotaren ostean, zer? Hautagai bat badu Realak: Badiola. Kontuan hartzekoa da, ze ezin baitaiteke ametitu Reala bezalako enpresa batek zorrak dituen bakoitzean erakunde publikoen babesa eta aterpea bilatzea. Denon diruarekin ezin da jokatu. Orain batzuk prest daude dirua jartzeko eta diru sarrera berriak sortzeko. Eredu horrek funtzionatu du Ingalaterrako ligan. Hango talde indartsuen eskuetan daude eta sasoitsu daude. Oso tradiziozaleak dira ingelesak, baina gaur egun liga on, indartsu eta antolatuena da hangoa. Jendeak futbol taldeari begiratzen dio, ez jabea nor den. Nik ez daukat inolako beldurrik Realaren %35 edo %40 norbaitek erosteko".

## Bittor Arriaran

REALEKO ZALEA

"Reala guztiona dela esaten dugu askotan, inork ez duelako akzioen %2 baino gehiago. Baina zenbateraino da hori horrela? Guztiok gura genuen orain egon den taldea kanpoan, baina inork ezin izan ditu bota, eurak joan diren arte. Zenbateraino da Reala denona, atzean akzio mordoa duen taldea badago?

Futbolean, gaur egun talde asko daude kanpoko diruarekin funtzionatzen dutenak: Liverpool amerikarrena da, adibidez. Eta niri bost axola dirua nondik datorren, Txinatik edo Afrikatik. Hori bai, *DV*-k interes handia izan du txinatarren proiektuaren berri emateko. Komunikabide horrek egin zuen orain arte egon direnen alde, eta zipriztindu aurretik, eurek egin dute kanpora botatzeko indarra. Badiolak argi erakutsi beharko du proiektua; izan ere, ez naiz fida prentsan bere aurpegia erakusten ez duen horretaz. Santos hautagai ona izan daiteke, ezagutzen duelako futbolaren mundua. Zurrumurruek diote Fuentesen aldeko akzioak aldeko izan ditzakeela, txinatarrei aurre egiteko; lehen egurra eman ziotenak, orain aldeko.

INBERTSIO TALDE TXINATARRAREN GAINEKO PUNTU NABARMENENAK

**> REALARENDAKO DIRU SARRERA BERRIAK ETORRIKO LIRATEKE ASIATIK**

Inbertsioa egin gura duen talde berria konbentzituta dago Asiatik diru iturri garrantzitsuak lortu ahal dituztela Realarendako. Egin dituzten proposamenen artean, honako hauek daude:

Datorren urtean Pekinen Joko Olinpikoak egingo dituzte, eta 2010ean Expoa izango da Shangain. Hala, bi gertaera handi horien publizitatea egiteko Anoeta estadioari izena aldatuko diote (datorren urtean, Beiying 2008; eta gero, Shangai 2010). Horrekin batera, Realaren dendak irekiko dituzte hiri horietako aireportuetan, eta irudi eskubideetan ere diru sarrera handiak lor daitezke: horretarako, baina, lehenengo mailara igo behar du Realak.

**> GABONETAN BERTAN IZEN HANDIKO FITXAKETAK EGIN GURA DITUZTE**

Asiatik dirua etor dadin, inbertsio taldearendako garrantzitsua da Realak aurten bertan mailaz igotzea. Europako futbola asko jarraitzen dute Asian, baina lehenengo mailako futbola, noski.

Horretarako, talde berriaren proposamena da neguko fitxaketen bitartez jokalari garrantzitsuak ekartzea. Badiolaren esanetan, 80 jokalari baino gehiagorekin egin dute berba, eta orain momentuan inork ez du Realera etorri gura. "Baina Txinaren gainean berba eginez gero, jarrera bestelakoa da, badakite-eta Txina dela etorkizuna. Etorkizuneko proiektu bat aurkeztu diegu jokalariei, eta erantzun ona izan dugu".

**> AZAROAREN 30A BAINO LEHENAGO GURA DUTE AURKEZPENA EGIN**

Badiolaren taldeak esan du Realaren azaroaren 30eko akziodunen batzarraren aurretik aurkeztuko dituela asmoak. Urtarrilaren 3ko hauteskundeetara aurkeztuko direla ere aurreratu dute, eta, hala, abendu erdialdean aurkeztuko dituztela egin nahi dituzten fitxaketak: kirol zuzendaria, jokalariak... Izen handikoak ei dira. Oraingoz, ez dute kapital handitzea bultzatuko. Talde horren helburu nagusia da hauteskundeak irabaztea eta Reala lehen mailara igotzea aurten. Horren ostean, ekainean, kapital handitzea proposatuko lukete eta egindako kudeaketa onaren ondorioz, akziodunen babesa jaso nahiko lukete.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**
Gimnastic. Tarragona-Reala
Zapatua. 19:00. Tarragona.

**Kadeteen euskal liga**
Alaves-Aretxabaleta
Zapatua. 11:30. Gasteiz.

**Preferente maila**
Idiazabal-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Zumaia.

Ondarroako A.-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Zaldupe.

Mondra-Ordizia
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.

**Lehen erregionala**
Bergara-Ilintxa
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

**Bigarren erregionala**
BTLS-Zestoa
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Mondra-Elgeta
Domeka. 12:30. Mojategi.

Ikasberri-Aretxabaleta
Zapatua. 17:15. Garmendipe.

**Ohorezko mailako gazteak**
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 15:30. Azkoagain.

Aretxabaleta-Mondra
Zapatua. 17:30. Ibarra.

**Lehen mailako gazteak**
Eibartarrak-Bergara
Domeka. 17:00. Unbe.

Aretxabaleta B Ariz.-Eibart.
Zapatua. 15:30. Ibarra

**Ohorezko mailako kadeteak**
Bergara-Aloña Mendi
Domeka. 17:30. Ipintza.

**Lehen mailako kadeteak**
Soraluze-Aretxabaleta
Zapatua. 11:00. Ezozia.

Bergara-Arrasate
Domeka. 15:30. Ipintza.

**Infantil Txiki**
Arrasate-Eibartarrak
Zapatua. 12:00. Mojategi.

**Ohorezko mailako infantilak**
Aretxabaleta Ariz.-Urola
Domeka. 12:15. Ibarra.

Bergara-Zumaiako
Domeka. 11:00. Ipintza.

Arrasate-Eibar
Zapatua. 10:00. Mojategi.

**Lehen mailako infantilak**
Amaikak Bat-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Errotazar.

**Emakumezkoen liga**
Lagun Onak-BTLS
Zapatua. 15:30. Azpeitia.

Urola-Mondra
Zapatua. 18:00. Argixao.

Arizmendi-Bergara
Zapatua. 15:30. Almen.

**Emakumezkoak F8 kadeteak**
Zestoa-Bergara
Zapatua. 11:00. Iraeta.

**Alebinak**
Arrasate-Urko
Domeka. 11:15. Mojategi.

Bergara-Lagun Onak
Domeka. 10:00.

Aretxabaleta-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Mojategi

### ARETO FUTBOLA

**Euskadiko Txapelketa**
Kanikas Infra-Eskoriatza
Zapatua. 16:15. Barakaldo.

**Euskadiko lehen maila**
Ayete-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Donostia.

**Hirugarren maila**
UDA Izotz-Xaguaclub
Zapatua. 16:00. Aretxabale.

**Gazte maila**
Aloña Mendi-Anoetako Gaz.
Zapatua. 13:00. Azpeitia.

### SASKIBALOIA

**Lehen maila**
Mondragon Unib.-Ocaso B.
Domeka. 18:00. Iturripe.

**Gipuzkoako ligako senior maila, gizonezkoak**
Oiartzungo-Candy BKE
Domeka. 12:00. Oiartzun.

Mondragon Unib.-Tximista
Zapatua. 16:00. Iturripe.

Aloña Mendi-Internacional
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-STL Bilintx
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Gipuzkoako ligako gazte maila, gizonezkoak**
Internacional-MU
Zapatua. 16:00. Donostia.

Aloña Mendi-Krafft Atco.
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako gazte maila, emakumezkoak**
Oiarso-Bergara
Domeka. 10:00. Errenteria.

Goierri Irizar-Eskoriatza
Domeka. 12:15. Urretxu.

**Kadete maila, gizonezko.**
Take Tovar-Mond. Unibertsi.
Zapatua. 12:00. Tolosa.

MU C-Erroibide
Zapatua. 12:00. Musakola.

La Salle-MU B
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Kadete maila, emakumezkoak**
Easo Loyola-Eskoriatza
Zapatua. 12:00. Donostia.

Arizmendi Esko.-Bera Bera
Zapatua. 11:00. Almen.

Aloña Mendi-Bera Bera
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**Infantil maila, gizonezkoak**
Arizmendi-Arrasate Instit.
Zapatua. 10:30. Musakola.

Aloña Mendi-Antoniano
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

Leintz Eskola Kir.-Bergara
Zapatua. 10:30. Arrasate.

**Infantil maila, emakumezkoak**
LEK D-Iragaz ISB
Zapatua. 12:00. Musakola.

LEK B-Antoniano
Zapatua. 12:00. Arrasate.

Bergara-Zarautz
Zapatua. 12:00. Bergara.

Easo San Patricio-LEK A
Zapatua. 11:00. Donostia.

LEK E-Hondarribia Irun
Zapatua. 12:00. Musakola.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Txapelketa**
Romo-Bergara
Zapatua. 18:00. Getxon.

**Euskadiko senior mailako emakumezkoak**
Ereintza-Verkol Aloña
Zapatua. 17:30. Errenteria.

**Lehenengo territoriala**
Arrasate-Hegialde Auto
Zapatua. 16:30. Musakola.

**Bigarren territoriala**
Bergara-Allerru
Domeka. 12:15. Labegaraiet.

Leizaran-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Andoain.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Usurbil-Arrasate
Zapatua. 16:00. Usurbil.

Aloña Mendi-Egia Servi
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Gazte maila, emakumezkoak**
Bera Bera-Verkol Aloña
Zapatua. 17:30. Donostia.

Legazpi-Citroen Chap. Arra.
Zapatua. 16:30. Legazpi.

**Kadete maila, gizonezkoak**
Bergara-Hondarribia
Domeka. 10:30. Labegaraiet.

**Kadete maila, emakumezkoak**
Bera Bera-Verkol Aloña
Zapatua. 16:00. Donostia.

Host. Aiala-Bergara
Domeka. 09:30. Zarautz.

### ERRUGBIA

**Beteranoak**
Herensugeak-Eibar
Zapatua. 17:30. Mojategi.

**Emakumezko seniorrak**
Mungia-Arrasate
Zapatua. 16:00. Mungia.

**Errugbi eskola (multiki.)**
Zapatua. 10:00. Mojategi.

### PILOTA

**Gipuzkoako txapelketa**
Bergarako udal pilotalekuan, gaur, 20:00:
Bergara2-Hernani
Bergara1-Txapagain
Bergara-Txapagain
Hernani-Bergara.

Aretxabaletako pilotalekuan, gaur, 20:00:
Aretxabaleta-Mundarro.

Elgetako pilotalekuan, zapatua, 16:30:
Ozkarbi-Arrasateko.

Angiozarko pilotalekuan, zapatua, 16:30:
Arrasate1-Aretxabaleta2
Euskal Jolas-Bergara1
Arrasateko3-Bergara4
Bergara3-Arrasateko2

Eskoriatzako pilotalekuan, zapatua, 17:00:
Eskoriatza-Añorga
Eskoriatza-Ilunpe1



**Arrasateko beteranoek lagunarteko partidua jokatuko dute**
Herensugeak errugbi taldeak lagunarteko partidua jokatuko du zapatu arratsaldean Mojategin; Eibar izango da bisitaria (17:30).




Debagoieneko
# PROFESIONAL LIBERALAK

## ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

## AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

## EKONOMISTAK

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

## GESTORIAK

**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.



**> BERGARAKO BANDA**
175. urtemugako diskoa aurkeztuko du, bihar **> 45**



**> 'DEBAGOIENEAN KANTARI'**
Bihar Bergaran grabatuko dituzte saioak **> 45**

**> ITZIAR EGIDAZU**
Ingurumen kimikako ikasketak ditu eta zaletasunak ere ingurumenarekin eta osasunarekin lotuta. Besteak beste, masajeak eta akupuntura egiten ditu **> 50**






# Besaide mendi taldearen 50 urteak liburuan jasota




AZALA: ALEX AZKARATE

Jose Ramon Fernandez mondragoetarrak idatzi du Besaideren historiaren liburua

Besaideko egoitzan dago liburua salgai: 25 euro bazkideek eta 28 euro gainerakoek

**A. ARANBURUZABALA** > ARRASATE

Urriaren 26an aurkeztu zuten Arrasateko Besaide mendi taldearen 50 urteak batzen dituen liburua; hain zuzen ere, elkartearen urtemugaren bezperan. Besaideko egoitzan salgai dago: 25 euro bazkideek eta 28 gainerakoek.

Jose Ramon Fernandez mondragoetarrak idatzi du euskaraz zein gazteleraz dagoen liburua. Egunkarian irakurri zuen liburua idazteko deialdia eta urtarrilean hasi zen informazioa biltzen; ekainerako liburuaren gaztelerazko bertsioa idatzita zuen eta baita argazkiak bilduta ere. Ondoren, Mondragon Linguak euskaratu zuen.

Fernandezen hamabosgarrena da; aurrez, historia, arte eta arkitektura liburuak eginak ditu.

**LIBURUAREN EGITURA**

Liburua, anekdota bilduma bat baino gehiago, Besaideren historiaren testigantza grafikoa da eta sei kapitulutan dago banatuta.

Liburuaren zergatia eta oinarri orokorrak azaltzen dituen hitzaurrearen ondoren, mendian barneratzen du irakurlea Fernandezek, lehenengo kapituluan alpinismoaren historia du-eta oinarri.

Bigarren kapitulutik aurrera Arrasatera gerturatzen du idazleak irakurlea: Besaide elkartearen sorrera garaian zegoen Arrasaten kokatzen du lehenengo, gizartearen eta egoera ekonomikoaren analisia eginda; ondoren, elkartearen historian murgiltzen da liburuaren haria, gertaerak hamarkadaz hamarkada kontatuta.

Hastapenetatik gaur egunera arteko historia ezagututa, gaur egungo Besaideren egoera aztertzen du Jose Ramon Fernandezek bosgarren kapituluan.

Azkeneko kapituluan, berriz, elkarteko kideei ematen die idazleak hitza; hori horrela, presidente eta kideen ikuspuntutik ezagutu daiteke elkartea. > 44

(43. orrialdetik dator)

**HISTORIA HITZETAN**

Besaideren hastapenak Juventud Deportiva elkartean daude. Elkarte hartako sail bat zen, harik eta elkartearen diru gehiena futbolera bideratzen zela argudiatuz mendizale talde bat elkartu eta Juventud Deportivatik banatzea erabaki zuen arte: "1957. urteko urriko azken domekan, Toloño mendigunera egindako irteera batean mamitu zuten *konspirazio independentista*. 1962. urtera arte, baina, ez zen elkartea ofizialki eratu; izan ere, frankismoaren erdian, garaiko egoera nahasian eta sistema burokratiko konplexuan, mendi federazioak ez zituen ordura arte elkartearen estatutuak onartu", azaldu du liburuaren egileak.

1975. urtea ere aipagarria da Besaideren historian, urte hartan erosi zuten-eta egun elkartearen etxea den egoitza. Eskizaleek, berriz, 1981. urtea izango dute gogoan; urte hartan Kasino elkarte gastronomikoan egindako bilera batean jaio zen Besaideren eski saila: "Aipagarria da, era berean, hamarkada hartan (1977-1986) Besaidek 1.000tik gora bazkide zituela. Garai hartan, Besaide erreferentzia zen beste herrietako mendi taldeendako", azaldu du Fenandezek. 2004ko uztaila ere hizki larriz dago Besaideren historian, Bittor Amozarrain mondragoetarrak Gashenbrum II-ko gailurra zapaldu baitzuen: "Zortzi milakoa egin zuen lehen arrasatearra izan zen; gero etorri ziren Josu Juan Llodio eta Iban Silvarren balentriak", gaineratu du.

**"1957ko urriko azken domekan Toloñora egindako irteera batean mamitu zuten 'konspirazio independentista', elkartearen dirua futbolera bideratzen zela argudiatuta"**

Une gozoekin batera tristeak ere jaso ditu idazleak; horien artean, 1955. urtean Alpeetako Mont Blancen gertatutako istripua izan du gogoan.

**HISTORIA IRUDITAN**

200 argazki ditu liburuak; beraz, Besaideren zilarrezko ezteiak irudien bitartez ere kontatuta daude. Elkarteko artxibo, lagun eta bazkideen laguntzarekin, argazkiak samur bildu dituela dio. Garai eta era askotakoak daude: mendikoak zein herrikoak; neurri handi batean, Arrasateko biztanleriaren zati handi bat dago liburuan erretratatuta.

Argazkiez gain, dokumentuak ere batuta daude liburuan: “Sasoi hartan, mendira joateko, beharrezkoa zen Gobernazioari baimena eskatzea. Datuak gordeta izateak asko lagundu dit liburua egituratzen”, azaldu du egileak.

Gaur egun Besaidek 1.960 bazkide ditu, horietatik 1.079 federatuak. Ibarreko beste taldeen moduan, ohiko mendi eta eski irteerez gain askotarikoak dira antolatzen dituen ekintzak eta eskaintzen dituen zerbitzuak.



**ELIZA** Arizmendiarrieta, Iñarra, Justino eta Imaz Corpus egunean, 1950 inguruan.



**MARTXA ERREGULARRA** 1959. urtean Kanpanzarren egindako martxa.




**G-II KANPALEKUAN, 2006AN** Iban Silvar eta Josu Juan Llodio arrasatearrak.



**KIROL IRUDI ERROMANTIKOA** Venustiano Uranga eta haren emazte Mila.

## IBARREKO BESTE MENDI ELKARTE ETA TALDEAK

**> ALOÑA MENDI (OÑATI)**
Kirol elkartearen mendi sailean 835 mendizale daude federatuta; 1967. urtean sortua.

Antolatzen dituzten ekitaldien artean: argazki lehiaketa, boulder txapelketa, mendi astea, bigarren eskuko azoka... Horrez gain, Araozko eskalada eskolaren mantenua ere egiten dute.

**> POL-POL (BERGARA)**
Bergaran 1942. urtean eratutako taldeak 1.400 bazkide ditu.

Asko dira egiten dituzten ekimenak, horien artean: ikastetxeekin elkarlanean haurrentzako irteerak, bigarren eskuko azoka, argazki rallyak...

**> GORLA (BERGARA)**
Gorlako aterpetxearekin batera 1947an sortu zen taldeak 160 bazkide ditu gaur egun. Pol-Pol taldearekin elkarlanean prestatzen dituzte urteroko egutegiko ekimenak.

**> MURRUKIXO (ARETXABALETA)**
1987. urtean jaiotako elkarteak 500 kide ditu –350 federatu–.

Egutegi oparoa dute hauek ere, horien artean: mendi martxak, Kurtzebarri eguna, argazki lehiaketa eta mendi astea. Horrez gain, Lexargarateko aterpetxearen ardura du.

**> ZARAIA (ARETXABALETA)**
1989an sortutako taldea da eta egun 90 bazkide ditu.

Bultzatzen dituzten ekimenen artean daude, besteak beste, urtarrilaren 1ean Murugainen egiten duten urte berriari ongietorria eta ekainean San Bernardo de Metthonen ospatzen duten mendizaleen zaindariaren eguna.

**> ESKORIATZA (ESKORIATZA)**
Kirol elkartearen mendi sailean 103 mendizale federatu daude.

Antolatzen dituzten ekitaldien artean, eski irteerak daude. Azkeneko urteetan izan ez diren mendi irteerak indartzeko ahaleginetan ari dira.

**> ARROLA (ANTZUOLA)**
1972an sortu zuten taldea. Gaur egun 590 bazkide ditu.

Abuztuan izan ezik, hilero egiten dute irteera bat. Bestalde urtean eski irteera bat egiten dute, bizikleta irteera eta akanpada bat, besteak beste.

**> ORIXOL (ARAMAIO)**
Duela 30 urte sortu zuten taldea eta gaur egun 115 bazkide ditu.

Aitor Aranaren aldeko mendi irteera, eski irteerak eta erreka garbiketak egiten dituzte, esaterako.

**Edozein premiatarako:**
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria
- Jaioaurreko diagonestikoa-ekogarfia (4D )
- Endoskopia ginekologikoa
- Laguntza bidezko ugalketa
- Obstetrizia
- Nerabezaroko ginekologia

**Zure zerbitzura:**
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88



**URTEURRENA** > BERGARAKO UDAL MUSIKA BANDAREN 175. URTEURRENA

# 175. urteurreneko diskoa aurkeztuko du bandak bihar

Santa Zezilia eguna aitzakia hartuta Bergarako Udal Musika Bandak bihar aurkeztuko du 175. urteurrena dela-eta kaleratu duen diskoa, Bergarako frontoian



**UDAL MUSIKA BANDA** Erakusketa zabaldu eta diskoa aurkeztuko dute. M.A

**MIREN ARREGI** > BERGARA

San Pedroko organo-jotzaile Bidaburu maisuak bultzatutako musika talde xumea Konpainia Filarmonikoa izenarekin sortu zen ofizialki, 1832. urtean. Bada, aurten bete dira 175 urte Bergarako Udal Musika Bandak lehen urratsak eman zituenetik.

Urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi egin ditu urtean barrena –tartean Udal Bandaren historia biltzen duen liburua argitaratzea–; eta bihar, Santa Zezilia eguna aitzakia hartuta, 175. urteurren hori borobilduko duen diskoaren aurkezpena egingo dute, kontzertu baten bidez, Bergarako frontoian 20:00etan.

Biharko kontzertuan, diskoan dauden bi lan eskainiko dituzte: lehena, *1832,* musika bandako zuzendari Alfredo Gonzalezek konposatua; eta bigarrena, *Ezpata dantza*. Miguel Gonzalez Bastidaren lana da azken hori.

Diskoan –Migel Gonzalez Bastidaren omenezkoa– zazpi abesti jaso dira, eta *1832* izan ezik, gainontzeko seiak Gonzalez Bastidak berak konposatutakoak dira: aurrez aipatutako biak eta, besteak beste, *Campo de Rosas* pasodoblea, *Mendia eta Itsasoa* preludio sinfonikoa eta *San Martin* euskal estanpa. CDarekin batera DVD bat ere salduko dute,bandaren historia eta egungo kontuak biltzen dituena. Bihar bertan, diskoaren aurkezpen ekitaldian, frontoian ipiniko dituzte CDa eta DVDa salgai eta horren ondoren Bergarako kultur etxean ere eskuratu ahal izango dira, biak batera, 10 euroren truke. EAEko Elkar liburu eta disko dendetan ere egongo da salgai.

**ERAKUSKETA AROZTEGIN**

Bestalde, Barrenkaleko Aroztegin Filatelia elkartearen eta Udal Musika Bandaren urteurreneko erakusketa zabalduko dute gaur. Bandak urte hauetan guztietan jasotako sari, argazki eta antzinako musika tresnak egongo dira ikusgai; tartean, aspaldiko zinema mutuan jotzen zen kontrabaxua. Filatelia elkarteak musikaren gaineko zigiluak egin ditu.

**BERTSOLARITZA**

# Bertsoek hitzordua dute bihar Eskoriatzan

Gipuzkoako txapelketako finalerdia jokatuko dute, kiroldegian

**M.A** > ESKORIATZA

Final-laurdenetako bost saioetan bertso saio ederrak entzun ostean, Gipuzkoako bertsolari txapelketa iritsi da finalerdietara, eta, hala, bihar, Eskoriatzako kiroldegiko taula gainean izango dira: Jesus Mari Irazu, Uxue Alberdi, Jon Martin, Unai Agirre, Beñat Gaztelumendi eta Ainhoa Agirreazaldegi elgetarra. Hitzordua, 18:00etan izango da.

Bertsotan eskarmentu handia duen arren, lehen aldiz iritsi da Agirreazaldegi finalerdietara; 2003ko txapelketan final-laurdenetara iristea lortu zuen.

Sarrerak egunean bertan ipiniko dira salgai, kiroldegiko salmenta-gunean, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etan.






Bergarako 170 ume eta gaztetxo arituko dira oraingo domekan eta hurrengoan Jam aretoan egingo duten Kantari ikuskizunean

**MIREN ARREGI** > BERGARA

Aurreko asteotan Debagoieneko beste herri batzuetan egin den moduan, asteburu honetan Bergaran egingo dute Debagoienean Kantari karaoke ikuskizuna. Jam aretoa abestoki eta dantzatoki bihurtuko da domekan, han erakutsiko baitute Bergarako ume eta gaztetxoek abesten eta dantzatzen duten abilezia. 170 ume arituko dira Bergaran Kantari ikuskizunean, baina ez dira guztiak domeka honetan arituko; izan ere, hilaren 25ean ere egingo dituzte saioak Bergaran. Domekan, 16:30ean hasi eta 20:00ak bitartean igoko dira gaztetxoak Jam aretoko oholtza gainera, eta, horren harira, Goiena Telebistak lau saio grabatuko ditu egun horretan.

Bergarako Jam aretora joaten direnek entzungo dituzten kantuen artean honako hauek daude: Sorotan Beleren *Arratsalde honetan*, Oskorriren *Furra, furra* eta *Katuen testamentue*, Pirritx eta Porrotxen *Maite zaitut*, Alaitz eta Maiderren *Amets bat*, Zaramaren *Iñaki* eta, baita Bergarako Kilometroak 2007ko *Argi daukagu!* abestia ere.

Joan den asteotako Kantari ikuskizunak bikain joan dira, eta ume eta gaztetxoen aurpegietako irribarreei erreparatu besterik ez dago horretaz ohartzeko. Eta gurasoak ere harro eta pozik, seme-alabak agertokian ikusita. Esan beharra dago Jam aretorako sarrera doan izango dela.

EGITARAUA

**> NON**
Jam aretoan.
**> NOIZ**
Azaroaren 18an.
**> ORDUA**
Arratsaldean, 16:30etik 20:00etara.
**> TALDEAK**
Guztira 170 ume eta gaztetxo igoko dira oholtza gainera oraingo domekan eta hurrengoan. Antzuolako talde bat arituko da.

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
- Zubiaurre 67 m². Berritua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Ibargarai. 40 m². Berria.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- Zubieta 75 m². Txokoarekin.
- Iraburu 84 m². Terrazarekin.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- San Juan. Bifamiliarra.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Martoko 53 m². Prezio ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.

**Elgeta:**
- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**
- Artekale, 82m², ondo
- Artzamendi, 80 m², oso ondo
- Zabalotegi, 80 m², ondo
- Ibargarai, 80 m², oso ondo
- Artekale, 70 m², oso ondo
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua
- Ibarra, 130 m², aukera ona
- Zubieta 70 m², ondo
- Matxiategi, 65 m², ondo
- Arrizuri, 97 m², garajearekin
- Aranerreka, 87m², ondo
- Bidekurutzeta, duplexa, berritua
- San Anton Abad, 70m², oso ondo
- Etxebizitza berrien eraikuntza Madura, Masterreka eta Zubiaurren.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83m², berria

**ANTZUOLA**
- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01** sailkatuak@goiena.com

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.**
**PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**BERGARA**
Zerbitzaria behar da lanaldi erdirako
659 05 63 82

**BERGARA**
Enpresa batek tornulariak eta errektifikatzaileak behar ditu. Interesatuak bidali curriculuma **270 posta kutxara**

**ARRASATE**
**Okindegia - gozotegiak** zerbitzaria behar du esperientziarekin.
943 79 81 56

## LAN ESKAINTZA

**Jardun euskara elkarteak Berriketan proiekturako eta haurren euskara errefortzuetarako koordinatzailea behar du** (8 orduko lan jarduna).

**LEHIAKIDEEN BALDINTZAK:**
- Euskara ondo menderatzea
- Harremanetarako erraztasuna izatea

**BALORATUKO DA**
- Bergarakoa izatea
- Informatikako oinarrizko ezagutza izatea

**Interesatuok bidali curriculuma:**

**Jardun euskara elkartea**
Errotalde jauregia z/g (kultur etxea)
20570 Bergara
*jardun@topagunea.com*

Curriculumak aurkezteko azken eguna: **azaroaren 23a.**

Argibide gehiago:
**943 76 08 19 - 943 76 36 61**

Jardun EUSKARA ELKARTEA

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 60 m2. Bi gela, egongela, bainugela, sukalde-jangela, despentsa, berogailua. Berrituta eta jantzita. Oinezkoendako aldean. 98.300 euro. 679 80 18 80.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Duplexa salgai Otalora kalean, Arrasate erdialdean. Egongela, bi logela, sukaldea, bi komun eta 20 m2-ko terraza. Etxe nahiko berria (12 urte). 696 79 43 89.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 metro koadro. Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta sotoa. 620 15 12 12.

**Arrasate.** Grupo San Juanen etxea salgai. Eguzkitsua, 60 m2. Igogailua, ganbara eta sotoa. Deitu telefono honetara: 619 25 46 69.

**Arrasate.** Malvinetan. Hiru logela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta ganbara handia. Bodega eta garajea. Ikuspegi ederrak eta eguzkitsua. 330.000 euro. 685 70 78 03.

**Bergara.** Aranerrekan etxebizitza salgai. 75 m2, 3 gela, egongela, 2 bainugela, sukaldea, terraza, ganbara eta berokuntza zentrala. 665 71 48 30.

**Bergara.** Etxea salgai herri erdian. 70 m2, bi logela, berogailua eta igogailua. Telefonoa: 629 15 79 29.

**Bergara.** Etxea saltzen dut, Simon Arrieta plazan. Hiru logela, egongela handia, sukaldea, komuna eta bi balkoi ditu. Dena kanpora begira. 299.900 euro. 635 73 87 55.

**Bergara.** Ganbararekin duplexa egindako etxebizitza berritua salgai. Berogailuarekin eta guztiz jantzita. 50 m2. 186.000 euro. Negoziatzeko prest. 656 75 12 16.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai, bigarren solairua. Igogailua dauka, hiru gela, sukaldea, komuna eta ganbara. Aukera onean hilabete honetan. 137.032 euro (22.000.800 pta). Deitu telefono honetara: 645 71 76 25.

**Gasteiz.** Txagorritxu inguruan etxebizitza salgai. Bi logela, egongela-jangela, sukaldea eta bainugela. Berogailua eta igogailua. Bista onak. Telefonoa: 630 57 70 99.

**Oñati.** 120 m2-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. Deitu telefono honetara: 676 39 36 93.

**Oñati.** Kale zaharrean 100 m2-ko etxea salgai. Hiru logela, ganbara terrazarekin. Telefonoa: 657 79 43 29.

**Oñati.** San Lorentzon, eguzkitsua. Hiru gela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta ganbara. 312.000 euro. Garaje itxia aukeran (20 m2). 656 74 80 47.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Arrasate erdian. 65 m2, berrituta, bikote batendako aproposa. Deitu telefono honetara: 630 22 27 86.

**Arrasate.** Logela bat errentan ematen dut sukalderako eskubidearekin. Neska bada hobe. 300 euro. 696 11 01 94 edo 943 79 82 43.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. 628 26 65 77.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan. 655 70 30 37.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. 636 05 36 18.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Deitu telefono honetara: 636 05 36 18.

**Legazpi.** Itxaropen auzoan dagoen etxebizitza baten logela bat alokatzen da pertsona batentzat; emakumezkoa nahiago. Mesedez, deitu 18:00etatik aurrera. Telefonoa: 649 92 19 48.

### 106. BESTELAKOAK

**Bergara.** Gela bat ematen dut errentan, Boluko auzoan dago. Deitu telefono honetara: 670 85 86 68.

**BERGARA**
Gozogile laguntzailea behar da.
628 27 11 97

**BERGARA**
Taberna errentan ematen da.
943 76 54 75

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Santa Kruz kaleko 27zenbakian garajea saldu edo errentan ematen da. Deitu telefono honetara: 630 46 36 71.

**Bergara.** 37 metro koadroko garajea salgai daukat Zubiaurre kalean. Deitu telefono honetara: 636 65 97 81.

**Oñati.** Garajea salgai, Kale Zaharrean. Deitu telefono honetara: 657 79 43 29.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate** Garajea itxia errentan ematen dut. Unibertsitatearen ondoan. Deitu telefono honetara: 943 79 39 56 edo 669 07 14 17.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Koadrilentzako lokalak alokatzen dira. Tamaina askotarikoak. 943 76 11 21.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea gertu egunean bi orduz garbiketak egiteko.Rosi. Deitu telefono honetara: 943 77 16 01.

**Arrasate.** Emakumea prest dago nagusiak gauez zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko tabernà edota elkarteetan. Esperientziaduna. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Bergara.** Emakumea gertu adineko pertsonak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 660 78 00 73.

**Bergara.** Emakumea gertu adineko pertsonak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Telefonoa: 628 55 90 42.

**Bergara.** Mutil gaztea igeltsero eta arotz lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 671 06 16 91.

**Bergara.** Mutil gaztea igeltsero eta arotz lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. 671 06 16 91.

**Bergara.** Mutil gaztea lanerako gertu. 671 06 16 91.

**Bergara.** Pertsona bat gertu arratsaldeetan etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 650 17 74 87.

**Debagoiena.** Emakumea gertu adinekoak edo haurrak zaindu nahiz garbiketa lanak egiteko. Gauez edo egunez orduka. 695 74 05 54.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Elektroteknia eskolak jasoko nituzke. Deitu 19:00etatik aurrera. 626 32 04 72.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Eskoriatzan** DBHko 4. mailako eskola partikularrak emateko pertsona bat behar da. 635 74 34 55.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Ford Transit** salgai. 9 plazakoa. 65.000 kilometro. 2004. urtekoa. 13.200 euro. 656 77 32 86.

**Honda Civic** 1.5I LS urdina salgai. 114 ZP, 3 ate eta 98.000 km.Prezioa: 5.000 euro. 661 68 28 98.

**Jeep Wrangler.** 147 ZP, 2003koa, beltza, oso egoera onean. Ez da mendian erabili eta ikuskapen guztiak pasa ditu. 14.000 euro (negoziagarria). 679 10 95 23.

**KTM 250SX.** 2006. urtekoa. Egoera onean. 699 15 84 48.

**Ktm 125sx Krosera** salgai, egoera oso onean. Konpromiso barik proba daiteke. 605 75 54 57 edo 943 76 38 87.

**Renault Megane** Coupe salgai. 1997koa. 161.000 kilometro. Oso egoera onean. 2.500 euro. 665 71 48 30.

**Seat Toledo** turbodiesela salgai. Prezio ona. 639 96 29 51.

**Terrano II (Nissan)** 55.000km. Oso egoera onean. Beti garajean gordeta. 652 72 15 56.

**Volkswagen California** salgai, 1996koa. 189.000 km. Estrak: aire girotua, estalkia, lau bizikleta eramatekoa, CDa lau bozgolairurekin. Ez da TDI. 14.000 euro. 636 28 00 07.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Debagoiena.** 2 urteko zaldi arabiarra salgai, kartarekin. 647 64 02 81.

**Debagoiena.** Behor bat salgai, gainean ibiltzeko balio duena. 616 00 34 29.

**Euskal artzain txakurrak** salgai, 15 astekoak, iletsuak. Arrazadunak, artzaintzarako edo lagun egiteko ezin hobeak. Telefonoa: 605 70 04 75.

### 704. BESTELAKOAK

**Debagoiena.** Txakurrak edo animaliak zaintzeko gertu nago. Animalien tratuan eskarmentua daukat. Deitu telefono honetara:670 43 16 52.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**"Lur" entziklopedia.** 1993ko "Lur Hiztegi Entziklopedikoa" salgai. Prezioa adostu egin daiteke. Deitu telefono honetara:655 74 41 60.

**Biola** berri-berria salgai. Yamaha VV7 (15). Deitu arratsaldez edo gauez. Deitu telefono honetara: 686 54 28 98.

**Egurrezko sehaska** bat eta bidaian joateko beste bat saltzen ditut. Umeendako motxila ere salgai. Deitu telefono honetara: 635 73 27 84.

**Jaioberriendako** sehaska bat saltzen dut. 2004koa. 150 euro. Deitu telefono honetara: 679 25 80 12.

**Mahaia.** Egongelako mahai bat saltzen dut. 90x90 neurrikoa. Gereziondo kolorea dauka eta kristalezkoa da. Berria. 99 euro. Deitu telefono honetara: 653 72 22 54.

### 806. GALDU

**Bergara.** Azaroaren 1ean, arratsaldean, DS kontsola galdu nuen poligonoko ziburuetako bidean. Eskertuko da. Deitu telefono honetara: 617 21 34 23.

**Zilarrezko** eskumuturrekoa galdu nuen azaroaren 9an Arrasaten, Uarkape eta Arbolapeta artean. "Aritz" eta "Maria del Carmen" izenak grabatuta dauzka. Balio sentimentala. Deitu telefono honetara: 687 36 02 58.

### 808. BESTELAKOAK

**Ugarrixa elkarteak** bazkideak behar ditu Bergaran. Hileko kuota bakarrik ordaindu behar da. Deitu telefono honetara: 609 59 19 23.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

## ENPRESAK SORTZEKO "ON-LINE" IKASTAROA

HELBURUAK
- Pertsona ekintzaileak trebatzea, beren enpresa ideia aztertu ahal izateko.
- Nork bere enpresa sortzeko beharrezko ezagutzak eskaintzea.

EDUKIAK
- Sustatzailea eta ideia.
- Merkatuaren azterketa.
- Enpresaren ebaluazioa. AMIA analisia.
- Estrategiak.
- MIX marketineko estrategiak.
- Antolakuntza eta giza baliabideak.
- Legeztatzea eta abiaraztea.
- Bideragarritasun finantzarioaren azterketa.

NORENTZAT
Hainbat arrazoirengatik, bertaratzea eskatzen duten ikastaroetara joateko zailtasunak dituzten enpresa-sustatzaileentzat.

BALDINTZAK
Ordenagailu pertsonala eta Interneterako konexioa edukitzea.

HASIERA ETA AMAIERA DATAK
Kurtsoa 2007ko abenduaren 10ean hasiko da eta otsailaren 29an bukatuko da.

IZENEMATEA
**Doan**
Debagoieneko Mankomunitatea - Garapen Ekonomikorako Agentzia 943 79 30 90
Arrasateko Udala – Enplegu Saila: 943 25 20 70
Bergarako Udala – Enplegu zerbitzua: 943 77 91 24
Oñatiko Udala – Enplegu zerbitzua: 943 03 77 00

EUROPAR BATASUNA
Europako gizarte fondoa
Garapen
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

**Inguralderen laguntzarekin**

LAGUNARO – MONDRAGON
Servicios S. Coop.
MONDRAGON
CORPORACION COOPERATIVA

**LAGUNARO-MONDRAGON, LAN-ARRISKUEI AURRE EGITEKO ETA LANGILEEN OSASUNA SUSTATZEKO MCC BARRUKO KOOPERATIBAK, honako hauek behar ditu:**

## MEDIKUAK

Medikuntzan lizentziatuak nahi ditugu, zenbait lanpostuetarako Lan-Medikuntzako espezializazioa beharrezkoa izanik.

Mediku-azterketak egiteaz arduratuko da, prestakuntza-programak eta osasuna sustatzeko ekimenak kudeatuko ditu, eta osasuna zaintzeko programak planifikatu eta gauzatzeko eginkizunak izango ditu.

Lantaldean lan egiteko gaitasuna baloratuko dugu, baita Lan-Arriskuak Aurreikusteko Goi-mailako titulazioa edukitzea eta euskaldun alfabetatua izatea ere.

Kontratu mugagabea eskaintzen dugu, lan-jardun partzial edo osoarekin, lanbidean etengabeko prestakuntza eta lanean berehala hastea (Arrasaten eta Gipuzkoa eta Bizkaiko beste toki batzuetan).

**Aurrehautetsitako izangaiei bakarrik erantzungo zaie 7 eguneko epean**

Emandako datuak dagokien bezala isilekoak izango dira, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak, hots, Datu Pertsonalak Babesteko Legeak ezartzen dituen irizpideei jarraiki.

LKS
***Interesatuak bidali curriculuma 07/11/24 baino lehen, 89 posta kutxa, 20240 Ordizia, Gipuzkoa; edo seleccion@lks.es 71/07 erreferentzia aipatuz.***

MULTIOPTICAS

## OPTIKARIA eta SALTZAILEAK

**BEHAR DITU EIBARKO ZENTRORAKO**

- **Lanean berehala hasteko**
- **Formazioa enpresaren kontura**
- **Ordainsari malgua** (finkoa + komisioak + ezarritako helburuak + pizgarriak)
- **Euskaraz jakitea ezinbestekoa**

Curriculum-a eta gaur egungo argazkia bidali ondoko helbidera:
210 Posta Kutxa • 20570 BERGARA • miren@multioptinet.com



**Axier Lopez** eta **Ainhoa Inza** oñatiarrak azaroaren 10ean ezkondu ziren Arantzazuko santutegian. Ondorengo ospakizuna Zelai-Zabal jatetxean egin zuten. Orain, ezkon bidaian dira, Argentinan. Zorionak, bikote, etxekoen eta koadrilakoen partetik!



**Juan Amozarrain** *Paiko* eta **Asun Etxeberria** *Naparra* 1957ko azaroaren 15ean ezkondu ziren Gasteizen. Urrezko ezteiak ospatzen dituzten honetan, zorionak, familia osoaren eta bereziki Mikelen partetik. Muxu handi bat eta jarraitu horrela, bikote!



Arrasateko **Iker Vitoria** eta **Maider Herranz** bihar ezkonduko dira, azaroaren 17an. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean egingo dute eta eztei bidaian Las Vegasera eta Dominikar Errepublikara joango dira. Lagunen partetik zorionak eta ondo ibili, bikote!



**Mikel Agirre** eta **Arantzazu Hernandez** oñatiarrak azaroaren 3an ezkondu ziren Arantzazuko santutegian. Orain, eztei bidaian dago bikotea. Zorionik beroenak familia eta lagunen partetik eta izan zoriontsu, bikote! Muxu handi bat.



**Manuel Gonzalez** eta **Amalia Vicente** aretxabaletarrek bihar, azaroaren 17an, beteko dituzte 50 urte ezkonduta. Urrezko ezteiak ospatzeko, bihar, Salamancako Babilafuente herrian berriro ere ezkonduko dira. Ondoren, Salamancako La Dehesa, el Oso, el Madroño jatetxean ospatuko dute egun berezia. Zorionak, familia guztiaren partetik!



**Martin Arana** eta **Miren Karmele Ugarte** arrasatearrek urrezko ezteiak bete zituzten pasa den azaroaren 9an. Leintz Gatzagako Dorletako santutegian ezkondu zen bikotea. Orain, Arantzazun ospatu dute egun berezia, familia guztiarekin.



**Jabier Larrañaga** eta **Maite Mandaluniz** elgetarrak bihar, hilaren 17an ezkonduko dira Elgetako Udaletxean, 12:30etan. Ospakizuna,Itziarko Salegi jatetxean egingo dute. Lagunen partetik zorionak, bikote, eta ondo pasa eguna!

ESKER ONA

## Maria Beitia Heriz

Maximo Gabilondoren alarguna

**Aretxabaletan hil zen 2007ko azaroaren 12an, 93 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2007ko azaroaren 16an.

ESKELA

## Maria Beitia Heriz

**Aretxabaletan hil zen 2007ko azaroaren 12an, 93 urte zituela.**

GOIENAk bat egiten du
senideen saminarekin.

Aretxabaletan, 2007ko azaroaren 16an.

ESKER ONA

## Jesusa Sanchez Nozal

Julio Gonzalez Lizarralderen alarguna

**Bergaran hil zen 2007ko azaroaren 11n, 84 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2007ko azaroaren 16an.

URTEURRENA

## Jabier Iturbe Alberdi



**Lehen urteurreneko meza
eguaztenean, azaroaren 21ean, 19:00etan,
Aretxabaletako Ama Agustinen komentuan.**
—
***Zure familiak ez zaitu ahazten.***

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jesus Eguren Bengoa



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 18an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Juanita Etxabe Arregi

Eugenio Zubizarretaren alarguna

**Aretxabaletan hil zen 2007ko azaroaren 14an, 88 urte zituela.**



Amama, zure bilobek
ez zaitugu sekula ahaztuko

Zure bilobak: Irma, Eneritz, Iker, Iker, Jasone, Iraia,
Lorea, Unai, Ibon, Maite eta Mireia.
Aretxabaletan, 2007ko azaroaren 16an.

URTEURRENA

## Begoña Berriozabal Larrañaga

Cipri Muruamendiarazen alarguna



Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 18an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:
OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak
*Momentu txar horietan sortzen diren
galdera, kezka eta arazo guztiei
aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da*
Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 – 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



- Bilboko mendia
- Arabako
- Gipuzkoako herria
- Lege
- Trukea egin
- Aitzin solasa
- Harreman
- Txoriaren kantu
- Multzoa
- * Irudiko fruitua
- Basoberak
- Istu, txistu
- Merezi du
- Musika nota
- I. Nazio-artekoa
- Bete
- Poesia mota
- Iridioa
- Errep., txori mota
- Karea, bo-kalik gabe
- Naizen hau
- Soldata
- Ugari
- 1
- Potasioa
- Moduak

GOIENKARIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | | | | | | | | |
| | 7 | 2 | | | | | 5 | 8 |
| | 4 | | | 5 | 3 | | | |
| 5 | | | | 1 | 4 | | | |
| | 1 | | | | | | 7 | |
| | | | 3 | 2 | | | | 6 |
| | | | 8 | | | | 1 | |
| 7 | 9 | | | | | 8 | 3 | |
| | | | | | | | | 2 |

## hieroglifoa

Nola hil zen ?

HATZ
HETZ
HITZ
HUTZ

## hizki salda

Euskal Herriko 5 hondartzen izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | C | L | T | U | A | Ñ | O | T |
| N | R | A | I | C | H | K | M | L |
| D | E | G | A | A | A | O | R | K |
| A | T | A | S | T | N | O | I | O |
| G | I | D | Y | A | E | E | N | N |
| A | N | K | L | A | K | E | O | T |
| E | O | G | F | N | I | I | R | X |
| R | S | M | E | O | T | O | T | A |
| E | D | I | E | U | T | F | D | A |

## soluzioak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | C | L | T | U | A | Ñ | O | T |
| N | R | A | I | C | H | K | M | L |
| D | E | G | A | A | A | O | R | K |
| A | T | A | S | T | N | O | I | O |
| G | I | D | Y | A | E | E | N | N |
| A | N | K | L | A | K | E | O | T |
| E | O | G | F | N | I | I | R | X |
| R | S | M | E | O | T | O | T | A |
| E | D | I | E | U | T | F | D | A |

Jeroglifikoa: Hotzez.
Hotz ez

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 5 | 9 | 2 | 8 | 7 | 4 | 6 | 1 |
| 1 | 7 | 2 | 9 | 4 | 6 | 3 | 5 | 8 |
| 6 | 4 | 8 | 1 | 5 | 3 | 9 | 2 | 7 |
| 5 | 3 | 6 | 7 | 1 | 4 | 2 | 8 | 9 |
| 2 | 1 | 4 | 6 | 9 | 8 | 5 | 7 | 3 |
| 9 | 8 | 7 | 3 | 2 | 5 | 1 | 4 | 6 |
| 4 | 2 | 3 | 8 | 7 | 9 | 6 | 1 | 5 |
| 7 | 9 | 1 | 5 | 6 | 2 | 8 | 3 | 4 |
| 8 | 6 | 5 | 4 | 3 | 1 | 7 | 9 | 2 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | A | | I | | T |
| | | | A | R | A | B | A | R |
| | | | | T | R | A | T | U |
| | A | | T | X | A | R | A | K |
| I | N | T | X | A | U | R | R | A |
| | D | U | I | N | | A | I | T |
| L | A | | O | D | A | | K | U |
| | N | I | | A | S | K | O | |
| S | A | R | I | | E | R | A | K |



## bono fotoa



### Nongo udaletxea ageri da argazkian?

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM
Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..............................

IZEN-DEITURAK ..............................
TELEFONOA..............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Gran Feudo Chivite Nafarroako ardo gorria**
75 cl-ko botila
**3,15 €**
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
Oñatiko **IRATI DELGADO**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Azken galderaren erantzun zuzena: Aitzabal.**

KIA MOTORS

**ESKAINTZA BEREZIAK**
**Km 0 ibilgailuetan**

**KIA PICANTO:** 7.485 €tik aurrera.

**KIA RIO:** 8.755 €tik aurrera.

**KIA CEE'D:** 11.985 €tik aurrera.

**KIA CARENS:** 16.160 €tik aurrera.

**KIA SPORTAGE:** 17.240 €tik aurrera.

**KIA MAGENTIS:** 16.635 €tik aurrera.

**KIA CARNIVAL:** 24.000 €tik aurrera.

**KIA SORENTO:** 21.990 €tik aurrera.

**7 URTEKO BERMEA**

EURO NCAP www.euroncap.com

**KIA CEE'D SPORT WAGON BERRIA !**





# Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala
Erakusketa eta tailerra

TECNOCAR GIPUZKOA
Araba etorbidea z/g – Arrasate – 943 79 22 67 – Faxa: 943 71 27 38

**Adi!**
- **3** urteko garantia
- **0 km** aukera bereziak

HONDA
The Power of Dreams

**Honda Accord 2.2**
Sport Diesel
**0 km.**-dun **7** ale
24.900 €-tik aurrera
(5 urteko bermea)



**HONDA ACCORD (4 ate):**
24.000 €tik aurrera.



**HONDA CIVIC (5 ate):**
19.500 €tik aurrera.



**HONDA JAZZ:**
14.600 €tik aurrera.



**HONDA ACCORD TOURE:**
30.900 €tik aurrera.



**HONDA CIVIC HYBRID:**
25.900 €tik aurrera.



**HONDA FR-V:**
23.000 €tik aurrera.



**HONDA CR-V:**
29.000 €tik aurrera.



**HONDA LEGEND:**
61.500 €tik aurrera.



**HONDA S2000:**
44.900 €tik aurrera.

**ESKAINTZA BEREZIAK**
**Km 0 ibilgailuetan**

*Km. 0ko unitate mugatuak. AUKERA BEREZIA • Teknologia hibridoan puntako aukera.*

**Itziar Egidazu** > Langilea eta medikuntza naturalaren zalea

# "Sendagai kimikoak hartu ordez, nahiago dut nik gertatutakoekin osatu"

Mendia eta natura gustuko ditu Itziar Egidazu arrasatearrak, eta beharbada horregatik heldu zien Ingurumen Kimikako ikasketei. Zaletasunak ere ingurumenarekin eta osasunarekin lotutakoak dauzka. Tailerrean lan egin eta geratzen zaion aisialdirako denbora sendabelarrekin, ukenduekin, masajeak ematen zein akupuntura egiten pasatzen du, mendian ez badabil.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

**Ingurumen Kimika eta Plastiko eta Kautxugintza ikasketak egin ostean, sendabelarren gaineko, akupunturako, Reikiko... ikastaroak egin ditu. Ikasi zuenarekin zerikusirik ez izan arren, Ederlanen dihardu lanean, eta medikuntza naturala aisialdirako uzten du.**

**Nondik datorkizu sendabelarrekiko zaletasuna?**

Orain dela urte batzuk bi pneumonia izan nituen eta neure burua ongi zaindu ez nuenez, gero sarritan izaten nuen bronkitisa. Sendagileak antibiotikoak hartzeko esaten zidan, baina tratamenduaren amaieran egoten nintzen zuri-zuri, nekatuta, indarrik gabe eta triste. Gerora, langabezian nengoen bitartean Donostiako Aromaterapia etxean sendabelarren gaineko ikastaro bat egin nuen eta aromaterapiaren oinarriak ere irakatsi zizkiguten. Orduan ikusi nuen belarren bidez saia nintekeela gaitza sendatzen. Proba egin nuen eta lehen aldia izan zen ganoraz sendatu nintzena infusioak eta belarrekin egindako xarabeak hartuta. Orduan piztu zitzaidan zaletasuna, eta inguruan ditugun belarrak ezagutzen hasi nintzen.

**Gure inguruko sendabelarrak ezagutuko dituzu, ezta?**

Bai. Hemen inguruan hartzen ditut, eta baita Pirinioetan ere. Udalara bidean, esaterako, bide bazterrean San Joan lorea ikusten da, baina ezin da hartu. Horretarako, Udalatxera, Urbia aldera... joan behar da.

**Ukenduak zein belarrekin egiten dituzu?**

Azkena aloe verarekin egin dut, lagun batek ekarrita, baina gehienbat hemengo belarrak erabiltzen ditut: pasmo belarra, ezkaia... Zauriak orbantzeko; erredurendako; bakterien aurka; kolpeendako... izan ohi dira. Umeek ipurdia erreta izaten dutenean horrelako ukenduek azkura arintzen dute.

**Akupuntura ere egiten duzu.**

Arrasaten ikastaro baten berri izan nuen eta izena eman nuen. Oso oinarrizkoa izango zela pentsatu nuen, baina bi urte eta erdian ibili ginen eta akupuntura ez ezik Bach-en loreen gaineko ezagutzak ere jaso nituen. Yogan ere banabil, eta han sortu zitzaidan Reiki ikastaroa egiteko aukera, eta horri buruzko hainbat kontu ere ikasi nituen.









GOIENKARIA

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak?** Ingurumen Kimika eta Plastiko eta Kautxugintza. **Maniarik baduzu?** Ez naiz oso maniatikoa. **Irakurri duzun azken liburua?** *La Herbolera*. Baina orain beste hiru liburu ditut hasi eta amaitu gabe mesanotxean. **Bidaiatzeko leku bat?** Zeelanda Berria; telebistan ikusi ditut hango irudiak, eta bertatik bertara ezagutu nahi nuke. **Lasai egoteko toki bat?** Formentera. **Amets bat?** Bizitzan ni neu eta ingurukoak osasunez eta ongi bizitzearekin konformatzen naiz.

**Ikastaroak egin dituzu. Baina gero praktikan ipintzen dituzu ezagutza horiek guztiak?**

Bai. Kamilla bat erosi nuen, eta etxekoekin eta lagunekin egiten ditut praktikak. Erlaxatzeko masaje ikastaroak ere egin ditut eta orain masaje txinatarraren gainekoa egiten dihardut Aretxabaletan.

**Medikuntza alternatiboaren zalea zara, hortaz.**

Bai. Sendagileengana joaten naizenean sendagai kimikoak ematen dizkigute, arazoaren sustraietara jo eta beste irtenbide bat eman beharrean. Hortaz, nahiago dut nik neuk sendagai naturalen bidez osatu.

**Mendizalea ere bazara. Maiz joaten zara mendira?**

Gehien igotzen dudan mendia Udalatx da. Bakarrik joan arren jende asko ibiltzen da inguru hartan. Pirinioetara noizean behin joaten gara, baina neguan ez. Gainontzean, hemen inguruko mendietara: Kurtzebarrira, Txindokira, Gorbeiara...

**Natura gustuko duzulako ikasi zenuen Ingurumen Kimika?**

Almenen ikasketak amaitu eta Ingurumen Kimika ikasita, lanerako aukera zegoela esan zidaten, eta horrela hasi nintzen; baina praktikak egin nituen eta ikusi nuen lana lortzekotan oposizioak egin beharko nituela, eta ez nuen gustuko. Gero, Plastiko eta Kautxugintza ikasi nuen eta orduan lana ere industriara bideratuta zegoen eta nik nahiago nuen laborategietan jardun. Gaur egun fabrikan dihardut lanen, Ederlanen, nahiz eta ikasitakoarekin zerikusirik ez izan.

**Beste zaletasunik baduzu?**

Landareak, loreak eta animaliak gustuko ditut eta katutxo bat ere badaukat. Gainontzean, lagunekin egotea, kontzerturen batera joatea... gazteen ohiko zaletasunak ditut. Garai batean patinetan ere ibiltzen nintzen, baina orain albora utzita ditut, noizean behin joaten banaiz ere.

**Pentsatu duzu etorkizunean zaletasuna lanbide bihurtzea?**

Denborarekin agian bai, baina oraingoz tailerreko lanarekin jarraitu eta pixkanaka ikastea da asmoa. Lagunekin eta etxekoekin praktikak egiteko bai, baina kontsulta ipintzera ez naiz ausartzen. Asko daukat ikasteko nire buruarekin seguruago egoteko.



IKASLEAK Kosmodiseako lehen edizioko parte-hartzaileak. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**HEZKUNTZA** > UMEENDAKO EKINTZAK

# Ikasleei zuzendutako Kosmodisea programan izena eman daiteke

Ikasleengan informazio eta komunikazio teknologien erabilera eta talde-lana sustatzea du helburu Kosmodiseak, eta IKTen gaineko ideiekin lan egiten dute umeek

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Foru Aldundiak Kosmodisea ziberespazioko abentura programaren bigarren edizioa aurkeztu berri du.

Iaz, Debagoieneko sei ikastetxek parte hartu zuten: Aretxabaletako Kurtzebarri BHIk; Arizmendi ikastolako Arrasateko San Frantzisko Xabier eta San Viator guneek; Bergarako Aranzadi ikastolak eta Miguel Altuna institutuak; Eskoriatzako Dorletako Ama ikastolak; eta Oñatiko Rodrigo Mercado Zuazola institutuak. Aurten, izena eman ahal izango dute arazoaren 23ra bitartean, eta batzuek hala egin dute dagoeneko: Bergarako Aranzadik eta Miguel Altunak eta Eskoriatzako Dorletako Amak. Argibideak *www.kosmodisea.net*-en daude.

**TEKNOLOGIAK ERABILITA**

Kosmodisea lankidetza-jokoa da, eta informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzea du helburu. Kultura ekintzaileearen eta digitalaren balioak sustatu nahi ditu hezkuntzan. Haren ezaugarriak hauek dira: partehartzea sustatzea; WEB euskarrian oinarritzea; unibertsitatekoak ez diren gainerako hezkuntza mailetara egokitzea; eta IKTak erabiltzea.

Parte hartzeko, gutxienez lau laguneko taldea osatu behar da, ikastetxeko irakasle edo tutore batekin, eta ideiak proposatu behar dira, azaroaren 23ko mugaeguna kontuan hartuta. Ideia originalak eta interesgarriak eskatzen dituzte.

Jasotako ideien artean, arduradunek batzuk aukeratuko dituzte, taldeek lan ditzaten. Hala, adibidez, iaz, hauek landu ziren: LHn, autoen larregiko erabilera; DBHn, ziberkoadrila; batxilergoan, egunkari iraunkorra; eta heziketa zikloetan, gorrendako azpitituludun betaurrekoak.

**IAZ, 1.400 IKASLE**

Iaz, Kosmodisearen lehen edizioan, Gipuzkoako 1.400 ikaslek parte hartu zuten, eta 111 irakaslek eta 42 ikastetxek, 147 taldetan banatuta.

## teknologia berriak

> TELEFONIA MUGIKORRA

### Nokia N82, hirugarren belaunaldiko teknologia eta gaitasun multimediak dituen sakelakoa

Nokiaren N serietako sakelako berria. Hirugarren belaunaldiko Symbian sistema eragilea eta N-Gage joko plataforma erabiltzen ditu.

Hauek dira ezaugarri nagusiak: 2,4 hazbeteko pantaila, bost megapixeleko argazki kamera, Xenon flasha eta Carl Zeiss optika, GPS, wi-fia, bluetootha.

MicroSD txartelak erabiltzen ditu eta 100 megako barne memoria du. Bi gigabiteko txartelarekin saltzen da.

Salneurria: 450 euro.



Mugimendu sentsore bat du telefonoa biratzerakoan pantaila ere biratzeko.

> USB GAILUAK

### Kingston DataTraveler Mini Fun, lapitz digital dibertigarri eta koloretsuak

Kingston enpresaren USB gailu horiek duten tamaina txikiagatik garraiatzeko oso erosoak dira. Hainbat koloretan eskuragarri daude (edukieraren arabera): gigabit bat (horia), 2 GB (bioleta) eta 4 GB (gorria). Guztiek bost urteko bermea dute. Windows 2000 SP4, Mac OS X eta Linux 2.4 kernela duen sistema eragileetan erabil daitezke.

Salneurriak: gigabit batekoa 10 euro, bi GBkoa 17 euro eta lau GBkoa 40 euro.



Hainbat koloretan daude eskuragarri (edukieraren arabera).

> BILTEGIRATZEA

### Korronte-adaptadore barik dabilen 300 GBko munduko kanpoko disko gogorrik txikiena

Fujitsu enpresaren kanpoko disko gogor hori munduko txikiena da bere edukieran. 2,5 hazbeteko tamainatan 300 GBko edukiera du, baina kanpoko disko gogor horren abantailarik garrantzitsuena elikadura-iturririk gabe dabilela da. Datuak transferitzeko eta elikatzeko USB konexioa erabiltzen du.

Gainera, segurtasun kopiak egiteko softwarearekin dator.

Salneurria: 157 euro, urtebeteko bermea eta zerbitzu teknikoa barne.



Datuak transferitzeko zein elektraindarra hartzeko USB erretena erabiltzen du.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak
/aebpn
/aiastui
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gurea
/guztizeder
/hamaika
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jracing
/joseba
/lamaino-etxeberri
/larranaga
/lorelan
/korozabaleta
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/otzeta
/pando
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net



## berriak

> ILUNPEAN

### Mikel Gorosabel musikaria egongo da 'Ilunpean' saioan

Mikel Gorosabel eibartarra *Norton* goitizenarekin da ezaguna. Kontaezinak dira Gorosabelek agertokiak zapaldu dituen aldiak; EH Sukarra, Lorelei eta Nortonclub proiektuak aurkeztu ditu jendaurrean, besteak beste. Su Ta Gar taldeko abeslari Aitor Gorosabelen anaia, familiatik datorkio musikarako zaletasuna. *Ilunpean* saioan musikaren eta bere bizipenen gainean arituko dira.

> DANTZA SUELTOA

### Bergarako dantza suelto txapelketa eguaztenean, 21:47an

Irailaren 21ean Bergarako Udal Pilotalekuan jokatu zen Moises Azpiazuren omenezko dantza solteko txapelketa ere eskainiko du Goiena Telebistak. Partaideen artean Bergarako bi bikote daude: Mikel Igartuak eta Ibane Basetak eta Jon Arrillagak eta Izarne Medinak osatzen dituztenak, hain zuzen. Goienako langile Usoa Agirrek aurkeztutako saioa eguaztenean, 21:47an.

> ARRASATE IRRATIA

### Emakumeen kontrako indarkeriaren gainean jardungo dugu

Azaroaren 25ak ekartzen digu gogora Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Nazioarteko eguna dela. Ezin bestela izan eta, Arrasate Irratian landuko dugu gai hori datorren astean. Horrez gainera, geroago eta ugariagoak dira Gabonei begira antolatzen hasi diren ekimenak; horiek ere kontuan hartuko ditugu. Eta musikariekin ere egingo dugu hitzordua, musikarien zaindari Santa Zezilia egunaren harira.

> ARRASATE IRRATIA

### Zarzuela ikusteko sarrerak zozkatuko ditugu egubakoitzean

Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak beste urtebetez prestatu du zarzuela, Arrasaten taularatzeko. Oraingo honetan, M.F. Caballeroren *El dúo de la africana* lana aukeratu dute. Lau saio egingo dituzte Amaia Udal Antzokian: azaroaren 24an, 25ean eta 30ean eta abenduaren 1ean. Halakoetan ohi duenez, Arrasate Irratiak zarzuelara joateko sarrerak zozkatuko ditu. Parte hartzeko: 943 71 17 31 edo *irratia@goiena.com*.

**PIRRITX ETA PORROTX** > 'ESKERRIK ASKO' IKUSKIZUNA

# Pailazoen ikuskizunerako sarreren zozketa GOITBn

GOITBk Pirritx eta Porrotx-en 'Eskerrik asko' ikuskizuna ikusteko sarrerak zozketatuko ditu

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunek azaroaren 24an, zapatua, *Eskerrik asko* ikuskizuna eskainiko dute Eskoriatzan. Hala, ikuskizuna ikusi nahi baina oraindik sarrerarik lortu ez dutenek Goiena Telebistan dute aukera aparta; izan ere, *Eskerrik asko* ikuskizuna ikusi ahal izateko sarrerak zozketatuko ditu. Horretarako, honako prozedura jarraitu behar duzue: bidali SMS bat 5767 zenbakira GTB mezuarekin eta *Eskerrik asko* ikuskizunerako zozketan sartuko zarete. Animatu, bada, etxeko txikienek eskertuko dute-eta.




PIRRITX ETA PORROTX *Eskerrik asko* ikuskizuna. GOIENKARIA

**ERREPORTAJEA** > ESKORIATZAKO VITERI DENDA

# Julen Iriondo kazetaria Eskoriatzako Viteri dendako ahizpekin egongo da

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Mari Karmen eta Mari Mertxe Viteri dira Eskoriatzako Viteri dendako arduradunak. Aitajaunak zabaldu zuen denda, euren estimuen arabera duela 104 urte, baina dendaren gaineko dokumentazioa 1907tik aurrera lortu dute. Asteburu honetan, Eskoriatzako Udalak omenaldia egingo die Viteri dendako ahizpei, aitajaunak denda zabaldu zuenetik 100 urte pasa diren honetan. Maringo Prudencio Viterik XX. mede hasieran zabaldu zuen denda. Prudencioren lekukoa Joxe semeak eta Maritxu emazteak hartu zuten. Gaur egun Maritxuren alaba Mari Mertxe eta Mari Karmenek daramate dendaren ardura. Erretiratzean, denda itxiko dute.

Viteri denda ireki zutenean, denetarik saltzen zuten bertan: azukrea, abarkak, bakailaoa, kamisetak, labanak, txokolatea, trajeak, txapela, kortseak, arrautzak…

Gaur egun, baina, mertzerian eta jantzigintzan oinarrituta dago negozioa. Julen Iriondo Viteri ahizpekin izango da astelehenean, 21:47an.

## telebegi

**Leire Kortabarria**

### Eguna bukatzen denean

Dudarik ez daukat *Lost, Cinco hermanos, El ala oeste de la Casa Blanca* edo *Anatomía de Grey*, batzuk aipatzearren, produktu bikainak direla: baliabide tekniko handiak, istorio on eta adimentsuak, errekonozimendu eta talentu handiko aktoreak… dena daukate. Baina, gurean, ez dute gura adina arrakastarik.

Estatuan arrakasta handien duten gaueko telesail batzuk hauek dira: *Camera cafe, El comisario, Hermanos y detectives* edo, batez ere, *Escenas de matrimonio*. Zein baino zein sinpleagoak bere exekuzioan. Eta sinpleena –*Escenas*…– arrakastatsuena ere bada. Istorioak kilometro eta erdira aurresateko modukoak dira; dekoratuak, bi edo hiru; sei aktore nagusi eta gonbidatu pare bat. Ez du inbertsio ez lan handirik eskatzen; baina hortxe dago, fenomeno bihurtuta. Izan ere, eguna bukatzen denean, jendeak ahaztu egin gura du: laneko aldapa, Euriborra, bizitza pertsonaleko gorabeherak ahaztu eta barre pitin bat egitea, eta, horretarako, *vaudeville* absurdo eta sinple bat da onena. Bai, nik ere ikusten dut. Roberto eta Marina dira nire bikote gogokoena, eta zuena?

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Juan Luis Zabala idazlea, *Ilunpean* saioan, *Danbaka.com* eta *Kantari* saioetako musika kontuak, hirugarren adinekoen gainekoak *Zaharrak berri* saioan eta beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik eguaztenera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31 *irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 16**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Ur eta lur. **14:15** Animalia. **14:45**Albiste aurrerapena. **15:15**Ikusmira. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Musikantoi. **16:45** Albisteak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Teknopolis. **18:15**Ikusmira. **18:45**Albisteak. **19:15** Erreportajea . **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Gertutik. **22:15**Ilunpean. **22:45**Berriak. **23:15**Musikantoi. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Klip 28. **00:15**Emisio amaiera.

**Zapatua, 17**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. **11:00** Ikusmira. **11:30**Ikusten. **12:00** Astekoak. **12:15**Klipa. **12:30** Erreportaia **13:00** Eltze beroa **13:30** Gertutik. **14:00**Erreportajea-ttipi ttapa. **14:30**28 klp. **15:00**Eltze beroa .**16:00** Kirolari. **16:30** Illunpean. **17:00** Marrazki bizidunak. **19:00**Animalia. **19:30**Klip@. **20:00**Ur eta lur. **20:30**2x2. **21:00**Ikusten. **21:30** Erreportajea-ttipi ttapa. **22:00**Gipuzkoako bertso txapelketa Eskoriatzan . **00:30**Musikantoi. **00:30** Emisio amaiera.

**Domeka, 18**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. **11:00**Kirolari. **11:30**Musikantoi. **12:00**Ur eta lur. **12:30**Klipa.**13:00**Eltze beroa. **13:15**Klip@. **13:30**Animalia. **14:00**Gipuzkoako bertso txapelketa Eskoriatzan . **16:30**Marrazki bizidunak. **19:00**Eltze beroa. **20:00** Ur eta lur **20:30** Erreportajea. **21:00** Musikantoi. **21:30**Animalia. **22:00** Astekoak. **22:00** 2x2. **23:00** Teknopolis.**23:30**Ilunpean. **00:00** Musikantoi.**00:30**Emisio amaiera

**Astelehena, 19**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea-Ttipi TTapa. **14:15**Eltze beroa. **14:45**Berriak. **15:15**Ilunpean **15:45** Gaurkoak. **15:47** Berbaire.**16:15**Animalia. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**Hitz bitan. 1**8:15**Ikusten. **18:45**Berriak. **19:15** 2x2. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Calimero. **20:45** Berriak. **21:15**Harmaillatik. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Erreportajea. **22:15** Kirolari. **22:45**Berriak. **23:15**Harmaillatik. **22:45**Gaurkoak. **23:30**28 Klipa. **00:15**Emisio amaiera.

**Martitzena, 20**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Horry.**13:45**Gaurkoak. **13:47**Erreportajea. **14:15** Harmaillatik.**14:45**Berriak. **15:15**2x2. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Kirolari. **16:15**Eltze beroa **16:45**Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47** 28 Klipa .**18:15**Musikantoi. **18:45**Berriak. **19:15** Harmaillatik. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Horry **20:45** Berriak. **21:15**Teknopolis. **21:45**Gaurkoak. **21:47** Berbaire **22:15**Animaliak. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusmira. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Erreportajea. **00:15**Emisio amaiera.

**Eguaztena, 21**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Marrazki bizidunak: Calimero. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Ikusmira. **14:15**Eltze berioa. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animaliak. **16:15** Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Calimero. **17:45**Gaurkoak. **17:47**2x2. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Marrazki bizidunak. **19:45**Berriak. **20:15** Zaharrak berri. . **20:45** Berriak. **21:15** Hitzbitan. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Zu kazetari. **22:15**Ur eta lur. **22:45**Berriak. **23:15** Teknopolis. **22:45**Gaurkoak. **23:30** Jazmina. **00:15**Emisio amaiera

**Eguena, 22**
**13:15**Emisio hasiera. **13:20**Zaharrak berri. **13:45**Gaurkoak. **13:47** Marazki bizidunak. **14:15**Zu kazetari. **14:45**Berriak. **15:15**Berbaire. **15:45** Gaurkoak. **15:47**Animalia. **16:17**Teknopolis. **16:45** Berriak. **17:15** Horry. **17:45**Gaurkoak. **17:47**2x2. 1**8:15**Harmailatik. **18:45**Berriak. **19:15** Erreportajea-GOITB. **19:45**Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Horry. **20:45** Berriak. **21:15**Erreportajea. **21:45**Gaurkoak. **21:47**Berbaire. **22:15**Musikantoi. **22:45**Berriak. **23:15**Ikusten. **22:45**Gaurkoak. **23:30**Ilunpean. **00:15**Emisio amaiera




## Karaoke Ikuskizuna

# Bergarako Jam aretoan

Antzuola eta Bergarako umeak

## Azaroaren 18an eta 25ean

### Azaroaren 18an:

- 1. saioa: 16:30ean
- 2. saioa: 17:15ean
- 3. saioa: 18:15ean
- 4. saioa: 19:15ean

### Azaroaren 25ean:

- 1.saioa: 16:30ean
- 2.saioa: 17:15ean
- 3.saioa: 18:15ean
- 4.saioa: 19:15ean

Zatoz zure herriko kantariak animatzera!!

BABESLEA

gaztetxoen
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LAGUNTZAILEAK

2tan KARAOKEA · ingou · Aranzadi ikastola · Elkar Hezi · Arizmendi ikastola · goieskola · Txantxiku ikastola

# Azaroak 16-23

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

## Bertsolaritza



ESKORIATZA
**> Gipuzkoako bertso txapelketako lehenengo finalaurrekoa bihar jokatuko dute**
Arituko dira Jexux Mari Irazu, Uxue Alberdi, Jon Martin, Ainhoa Agirreazadegi –Debagoieneko ordezkaria–, Unai Agirre eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak. Bihar, zapatua, izango da, 18:00etan, Intxaurtxueta kiroldegian.

## Antzerkia



ELGETA
**> 'Pizti domatzailea' delako antzezlana ikusteko aukera Espaloia antzokian**
Txalo Produkzioek ekoiztutako *Pizti domatzailea* izeneko haurrendako antzezlana ikusteko aukera izango da aste bukaeran Elgetan. Hain justu ere, emanaldia etzi izango da, domekan, 17:30ean.

## Karaoke ikuskizuna



BERGARA
**> Debagoienean Kantari Bergarara iritsiko da aste bukaeran**
Bergarako 8 eta 12 urte bitartekoen txanda iritsi da. Saio bikoitza egingo dute, gainera, Bergaran: lehena etzi, domeka, 16:30ean hasita eta bigarrena hilaren 25ean, ordu berean hasita. Biak ala biak Jam aretoan izango dira.

# Musika

ARRASATE
**> Silikonay taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan**
Talde euskaldunak *Gorrotoaren indarra* diskoa aurkeztuko du. Silikonayrekin batera, Xasta taldeak ere egingo du emanaldia.
Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

BERGARA
**> 'Piano bat bertsotan' delako emanaldia Pol-Pol tabernan**
Ainhoa Ansa eta Joseba Astiazaran musikariek egingo dute emanaldi hori. Jardun euskara elkarteak antolatu du.
Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

ESKORIATZA
**> Uek taldeak kontzertua egingo du**
Hirukote horrek azkeneko laneko, *Uhinak* diskoko, abestiak egingo ditu.
Gaur. egubakoitza, 22:30ean, Inkernu tabernan.

BERGARA
**> Disko jartzaileek saioa egingo dute Ziripot tabernan**
Gonzalo Morvid eta Alkate Klorofila arituko dira gaur, egubakoitza. Bihar, zapatua, KRC arituko da.
Bial ala biak, 23:00etan.

ARRASATE
**> Bi talderen kontzertua Gure Leku tabernan**
The Crackers eta The Convicts taldeek egingo dute kontzertua.
Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

BERGARA
**> Gasteizko Obligaciones taldearen kontzertua**
Gasteiztarrekin batera Bilboko Bugatti taldeak jardungo du. Txapa Irratiak antolatu du kontzertua.
Bihar, zapatua, 23:00etan, gaztetxean.

ARRASATE
**> The Toasters AEBetako talde ezagunak kontzertua egingo du**
Reggae doinuak entzuteko aukera izango dute 3.60 aretora joaten direnek. The Toastersekin batera Deskarats taldeak ere egingo du emanaldia.
Bihar, zapatua, 23:00etan.

ESKORIATZA
**> Acapulco Gold Diggers taldeak kontzertua egingo du**
Gasteizen abiapuntua duen talde horrek rock-and-roll kontzertua egingo du.
Bihar, zapatua, 22:30ean, Inkernun.

ELGETA
**> Oi! kontzertua Espaloia Kafe Antzokian**
Donostiako Plan B, Hernaniko Afonia, Ondarroako Jonnie Gerriwelt eta Ordiziako Dunne Buggy.
Bihar, zapatua, 22:30ean.

BERGARA
**> Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua egingo du**
Santa Zezilia eguneko kontzertua egingo du. 175. urtemugaren barruan egindako diskoa ere aurkeztuko dute.
Bihar, zapatua, 20:00etan, Udal Pilotalekuan.

GERNIKA
**> Golpe de Estado oñatiarrek kontzertua egingo dute**
Sospechosos taldearekin batera egingo dute kontzertua.
Bihar, zapatua, 19:00etan, gaztetxean.

ARRASATE
**> Hainbat talderen kontzertua I. Gazte Egunean**
AGAKOk antolatu du. 10:00etan pilota txapelketa egongo da Iturripen; 14:30ean herri bazkaria egingo dute eta gero, jokoak. 19:00etan kalejira abiatuko da gaztetxetik eta 22:30ean kontzertua egongo da gaztetxean. Jardungo dute ibarreko hiru taldek: Neallta Fola, Material Rechazado eta The Motherfuckers.
Bihar, zapatua.

BERGARA
**> Musika Eskolako ikasleek Santa Zezilia ospatuko dute**
Gazteen bandak kalejira egingo du Hizkuntza Musikaleko ikasleek lagunduta. Trikitixa eta txistu taldeek plaza alaituko dute.
Hilaren 22an, eguena, 17:30ean.

BERGARA
**> Hardcore eta punk-rock melodikoa Txapa Irratiaren eskutik**
Enemy Alliance suediarrek eta Adrenalized donostiarrek egingo dute kontzertua.
Hilaren 22an, eguena, 21:00etan, gaztetxean.

PROPOSAMENA

OÑATI
**> Lisabö taldeak kontzertua egingo du gaztelekuan**



Lisabö talde ezagunak kontzertua egingo du Oñatiko gaztelekuan. Irungo taldeak azkeneko laneko –*Ezlekuak*– kantuekin batera aurreko diskoetakoak ere joko ditu emanaldi horretan. Haiekin batera beste bi taldek ere jardungo dute gaztelekuko kontzertuan: Irungo Cum taldeak eta Lapurdiko –Mendiundeko– Willis Drummond taldeak, hain justu ere.
Bihar, zapatua, 22:30ean, gaztelekuan.

# Antzerkia

ELGETA
**> 'Emeki' delako bertso kabareta hiru bertsolariarekin**
Hiru emakumezkoren saio esperimentala da. Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita eta Oihane Perea bertsolariek hartzen dute parte.
Gaur, barikua, 22:30ean, gaztetxean.

ARRASATE
**> 'Galipotx' izeneko musikala egingo dute Amaia antzokian**
Golden Apple Quartet musika taldearen eta Kanpingags antzerki taldearen koprodukzioa da. Europa erdialdeko ipuin batean oinarritutako musikala da.
Bihar, zapatua, 18:00etan.

ANTZUOLA
**> Ipuin kontalaria eta marrazkilaria elkarrekin liburutegian**
Antton Irusta ipuin kontalariak margolari baten laguntzarekin egingo du saioa.
Bihar, zapatua, 18:00etan.

# Hitzaldiak

BERGARA
**> Balkanetako egoeraren gaineko berbaldia**
*La difícil convivencia de identidades encontradas: los Balcanes* izeneko hitzaldia egingo du Juantxo Madariagak. Udal Agiritegiak antolatu du.
Hilaren 21ean, eguaztena, 18:30ean, osoko bilkuren aretoan.

ESKORIATZA
**> Berbaldia giza gorputzaren magiaz**
*Giza gorputzaren magia. Zirkulazio aparatua* delako hitzaldia egingo du M. Jose Pagaldaik.
Hilaren 21ean, eguaztena, 18:30ean, kultura etxean.

ARRASATE
**> Euskara jakin gabe nola lagun ditzakegu gure seme-alabak?**
*No sabemos euskera... ¿Como podemos ayudar a nuestras hijas e hijos* delako hitzaldia egingo dute Iñaki Eizmendi gizarte hezitzaileak eta julio Ibarra kazetariak. AEDk antolatu du berbaldia.
Hilaren 21ean, eguaztena, 19:00etan, San Andreseko parrokiako lokalean.

BERGARA
**> Mekong ibaiaren gaineko ikus-entzunezkoa**
Angel Cuerdok egingo du emanaldi hori, Kutxaren laguntzarekin.

Hilaren 22an, eguena, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

DEBAGOIENA

**> Ciudad Juarezko (Mexiko) hilketen gaineko hitzaldi sorta**

*Emakumeen aurkako indarkeria: Ciudad Juarezko feminicidioa* delako hitzaldia egingo dute Julia Esther Canok eta Elia Escobedok. *Nuestras hijas de regreso a casa* elkarte mexikarreko kideak dira biak. Hainbat herritan izango dira hitzaldiak.

Arrasate: gaur. 18:00etan, Ekinen egoitzan (Pablo Uranga 6, behea) eta hilaren 22an, 19:00etan, Kulturaten.

Bergara: hilaren 20an, 19:00etan, Miguel Altuna institutuan.

Leintz Gatzaga: hilaren 21ean, 19:00etan, kultura etxean.

Elgeta: hilaren 23an, 19:00etan, Espaloia Kafe Antzokian.

Aramaio: hilaren 28an, 17:00etan, kultura etxean.

# Erakusketak

BERGARA

**> Filatelia eta musika erakusketa batean batuta**

Batetik, Bergarako Filatelia Elkarteak zigiluak erakutsiko ditu, eta, bestetik, Bergarako Udal Musika Bandak argazkiak erakutsiko ditu.

Gautik abenduaren 16ra arte, Aroztegin.

OÑATI

**> Txantxiku ikastolaren argazki erakusketa**

Ikastolaren 40 urteak batzen dituen erakusketa da. 18:30-20:30 ordutegia du.

Domekara arte dago ikusgai.

BERGARA

**> Juanjo Altunaren ikasleek erakusketa jarri dute**

Altunaren Bergarako ikasleek erakutsiko dituzte lanak.

Hilaren 24ra arte, kultura etxean.

ARRASATE

**> Mila Carballoren pintura erakusketa**

Margolariak Harresiko paretetan zintzilikatu ditu lanak.

Hilaren 25era arte.

ARRASATE

**> 'Azala-azalaren kontra' delako erakusketa**

Gaztesareko Sextabaida gunetik antolatutako erakusketa da; Euskal Herriko gazteen eta sexualitatearen inguruko eztabaidaren harira egindako argazki erakusketa, hain justu ere.

Hilaren 30era arte, Kulturaten.

ARRASATE

**> 'Naturaren argazkiak 2007' delako erakusketa**

Naturarekin lotutako argazkiek osatzen dute erakusketa hori. 17:30-20:30 ordutegian egongo da ikusgai.

Azaroaren 25era arte, Kulturaten.

ELGETA

**> Emilio Mandalunizek erakusketa jarriko du**

Mandalunizen margolanak Espaloia Kafe Antzokian ikusi ahal izango dira.

Azaroaren 25era arte.

BERGARA

**> Nieves Medela arrasatearraren lanak Nahikari tabernan**

Arrasateko margolariak olio-lanak zintzilikatuko ditu Nahikariko paretetan.

Azaro bukaerara arte.

# Ikastaroak

ARRASATE

**> Taila ikastaroa egingo du Arrasateko Tailaginen Elkarteak**

Hobetze ikastaroa egingo dute. Azaroaren 19an hasiko dira eskolak eta 30 orduko ikastaroa izango da.

Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu: 645 70 59 13 eta 943 79 40 79 (Felix) edo 943 79 77 57 (Jose Mari).

ARETXABALETA

**> Erreflexoterapia ikastaroa antolatu du Loramendi elkarteak**

Abenduaren 1ean izango da ikastaroa, egun osokoa. Jabi Ferrandezek emango du.

Izenematea hilaren 23ra arte dago zabalik, 943 77 09 70 zenbakian edo *loramendi@topagunea.com* helbidean.

BERGARA

**> Umeen jolasak, kantuak eta ipuinak lantzeko ikastaroa**

Umeendako euskal jolasak eta kantuak eta euskarazko ipuin kontaketa lantzeko saioak dira. Eskarien arabera euskaraz edo gaztelaniaz emango dira eskolak. Izenematea da abenduaren 14ra arte.

Izenematea da Udaleko Euskara Zerbitzuan: 943 77 91 31.

# Ospakizunak

OÑATI

**> Txantxiku ikastolaren 40. urtemugako azken jaia**

Urtemuga ospatzeko antolatutako ekitaldi zerrenda itxiko du jai horrek. 16:45ean hasiko da, etxafuegoak jaurti eta gero. 17:00etan herri kirolen erakustaldia izango da eta 19:00etan, txorimalo, bertsolari eta trikitilariak. Txosna ere jarriko dute eta sagardoa eta gaztaina erreak dastatzeko aukera egongo da.

Gaur, egubakoitza, Herriko Plazan.

ESKORIATZA

**> Viteri dendakoei omenaldia egingo diete**

Mertzeria ireki zutela ehun urte bete dira. Hala, mendeurrena zoriontzeko eta egin duten lan guztia eskertzeko egingo diete omenaldia.

Bihar, zapatua, 13:30ean.

# Bestelakoak

OÑATI

**> Bidegorria aldarrikatzeko bizikleta martxa deitu dute**

Txirrinka elkarteak deitu du. Herriko kaleetan barrena bizikleta martxa egingo dute, bidegorri sarea aldarrikatzeko. Halako martxak hileko hirugarren egubakoitzetan egingo dituzte.




## Adios, pequeña, adios **

**Zuzendaria:** Ben Affleck.
**Aktoreak:** Casey Affleck, Michelle Monaghan, Morgan Freman, Ed Harris.
AEB. 2007.
110 min.

Ben Affleck-ek ez du zinema munduan ez du bakarrik aktore lana egin, gidoilaria ere bada: Matt Damonekin batera Oscar saria eskuratu zuen *El indomable Will Hunting* filmaren gidoiarengatik, eta orain gure pantailetara Affleck-ek zuzendutako *Adios, pequeña, adios* filma heldu zaigu.

*Adios pequeña, adios* filma Dennis Lehaneren –*Mistyc Rivers*-en idazlea– eleberri baten oinarritzen da eta istorioari dagokionez zerikusi handia du aipatutako *Mistyc Rivers*-ekin: Bostonen kokatuta dago, haurrek jasandako tratu txarrak eta atentziorik ezak, ustelkeria, indarkeria, nork bere kabuz zigorra ezartzea... Hori dela eta, filmean pertsonaia, gai eta egoera ugari nahasten dira istorio nagusi batean. Horrek guztiak, zinema beltzean ohi den moduan, konplexutasun handia ematen dio filmari, eta sortutako nahaspila horretan Affleck erdi galduta agertzen da.

Istorioaren giroa lizuna da, pertsonaia asko gogorrak eta zakarrak dira, baina zakartasun horrek zerbait artifiziala ematen du, ez da barnetik ateratzen eta azalekoa ematen du, eta hori kontuan edukiz, ikusten dugun guztia distantzia apur batekin jarraitzen dugu.

Pertsonaia ugari agertzen dira eta batzuk ez daude oso ondo landuta: esate baterako, protagonistaren bikotekidearen pertsonaia agertu eta desagertu egiten da filmean barrena, eta azkenean hartzen duen erabakiaren zergatia ez dago ondo garatuta eta azalduta.

Ben Affleck, zuzendari hasiberria izateko, nahiko proiektu konplexuan sartu da film honekin: horrekin ausarta dela erakusten du, baina azkenean, lortutako emaitza bide erdian geratzen da.

**Antonio Zabala**

# Zinema

**ARRASATE**
**AMAIA ANTZOKIA**

**Promesas del Este**
Egubakoitza: 22:00
Domeka: 19:30

**Ratatouille**
Domeka: 17:00.

**ARAMAIO**
**KULTURA ETXEA**

**Azur eta Asmar**
Domeka: 17:00.

**ELGETA**
**ESPALOIA**

**Los cuatrocientos golpes**
Eguaztena: 21:30.

**ESKORIATZA**
**IBARRAUNDI MUSEOA**

**Maitagarri amandrea**
Domeka: 17:00.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**Las 13 rosas**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Descubriendo a los Robinsons**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Keane**
Eguena: 20:00.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**El asesinato de Jesse james por el cobarde Robert Ford**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Michael Clayton**
17:30, 20:00, 22:30.

**Hiru Mosketariak**
16:45.

**El orfanato**
18:30, 20:30, 22:30.

**Betizu eta urrezko zintzarria**
17:00.

**Persepolis**
17:30.

**La torre de Suso**
18:30, 20:30, 22:30.

**Luz de domingo**
17:30, 20:00, 22:30.

**Un funeral de muerte**
17:00, 20:45.

**Tierra**
18:50, 22:30.

**Stardust**
Egubakoitza: 17:45.
Zapatua eta domeka: 17:00.

**El sueño de Casandra**
20:15, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Redacted**
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Once**
16:45, 20:30, 22:30.

**Oviedo Express**
18:30.

**53 dias de invierno**
17:00.

**La zona**
18:45, 20:30, 22:30.

**13 rosas**
17:00, 19:45, 22:30.

**Las aventuras amorosas del joven Moliere**
17:30, 20:00, 22:30.

**Elizabeth: La Edad de Oro**
17:30, 20:00, 22:30.

**Habitacion de Fermat**
17:30, 20:00, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**El hombre de arena**
22:40, 00:40.

**Elizabeth: la edad de oro**
12:15, 15:35, 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.

**El caso Wells**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20.

**Adios, pequeña, adios**
20:15, 22:30, 00:45.

**Lio embarazoso**
12:15, 15:35, 17:55, 20:00, 22:10, 00:10.

**Resident Evil: Extincion**
18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Saw IV**
12:15, 16:40, 18:40, 20:40.

**Stardust**
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Tierra, la pelicula de nuestro planeta**
12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

**Las 13 rosas**
19:25, 21:55, 00:20.

**El orfanato**
12:15, 15:40, 17:50. 20:00, 22:10, 00:20.

**Los seis signos de la luz**
12:15, 15:45, 17:35.

**Promesas del Este**
20:35, 22:30, 00:35.

**Movida bajo el mar**
12:15, 16:10.

**Ratatouille**
12:15, 15:40, 17:55.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Michael Clayton**
17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

**El juego del amor**
16:00, 18:15, 20:25, 22:40, 01:00.

**Cuestion de pelotas**
16:15, 18:20, 20:30, 22:35, 00:45.

**Adios pequeña adios**
20:00, 22:30.

**Los Totemwakers**
16:10, 18:10, 20:15, 22:15.

**Saw IV**
16:00, 18:05, 20:15, 22:25, 00:45.

**Invasion**
20:00, 22:20.

**Las 13 rosas**
16:30, 19:20, 22:00.

**Supersalidos**
17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**El orfanato**
16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**Nocturna**
16:20, 18:10.

**La torre de Suso**
16:00, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

**Resident Evil**
16:00, 18:00, 20:10, 22:20, 01:00.

**Shoot'Em up**
16:10, 18:05.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Ratatouille** *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Brad Bird. Marrazki bizidunak.
110 min.
Remy sagu mokofina da, eta ez da konformatzen zaborrontzietako jakiekin. Parisko jatetxe onenetako baten chefa izan nahi du.

**Adios pequeña, adios**
AEB, 2007. Zuzendaria: Ben Affleck. Aktoreak: Casey Affleck, Michelle Monaghan.
114 min.
Patric Kenzie eta Angie Gennaro detektibeak bahitutako lau urteko haur baten bila dabiltza, Boston hirian. Ikerketaren ondorioz, beren harremana, printzipioak eta bizia arriskuan jarriko dituzte.

**El caso Wells** *****
AEB, 2007. Zuzendaria: Andrew Lau. Aktoreak: Richard Gere, Claire Danes, Ray Wise.
101 min.
Errol Babbagek Gobernuarentzat lan egiten du, eta sexu delituak egin dituztenei gertutik jarraitzen die. 17 urteko neska gazte bat desagertu egin da, eta hori ikertu beharko du.

**El sueño de Casandra** ****
EB, 2007. Zuzendaria: Woody Allen. Aktoreak: Ewan McGregor, Colin Farrell, Tom Wilkinson.
108 min.
Ian eta Terry anaiek bigarren eskuko belaontzi bat erosi dute. Biak aktore gazte batekin maiteminduko dira. Bestalde, Howard osaba azalduko da eta legea haustera behartuko ditu. Horrek eragina izango du haiengan.

**El orfanato** ***
Espainia, 2007. Zuzendaria: Juan Antonio Bayona. Aktoreak: Belen Rueda, Fernando Cayo.
100 min.
Laura hazi zen umezurtz etxera itzuliko da, haur ezinduendako egoitza bat irekitzeko asmoz. Haren semea fantasiazko jokoetan sartuko da. Baina Laura ez da eroso sentituko, zerbaitek bere familia mehatxatzen duela pentsatuko baitu.

**Las trece rosas** *
Espainia, 2007. Zuzendaria: Emilio Martinez-Lazaro. Aktoreak: Pilar Lopez de Ayala, Veronica Sanchez, Marta Etura, Nadia de Santiago.
122 min.
1939. urteko apirilaren 1ean, tropa frankistak Madrilen sartuko dira. Errepresio luze eta gogorra pairatu beharko dute Errepublikaren aldekoek. 13 emakumek borrokan jarraituko dute, eta Francok haiek fusilatzeko aginduko du.

**Saw IV**
AEB, 2007. Zuzendaria: Darren Lynn Bousman. Aktoreak: Tobin Bell, Lyriq Bent.
108 min.
Kerry detektibearen hilketaren ostean, FBIko Strahn eta Perez agenteak ikertzen hasiko dira, Hoffman detektibearekin batera. Gauzak korapilatu egingo dira Rigg komandantea bahitzen dutenean.

**Stardust** **
AEB, 2007. Zuzendaria: Matthew Vaughn. Aktoreak: Claire Danes, Charlie Cox, Robert de Niro.
130 min.
Erresuma Batuko herrixka batek lurralde magiko batekin egiten du muga, baina inor ez da bertara sartzen. Gazte batek bere maiteari esango dio eroritako izar bat berreskuratuko duela, eta han sartuko da.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-11-16

# Harry Potter euskaldunena

**SEIGARREN LIBURUA EUSKARATUTA** 'Harry Potter eta odol nahasiko printzea' liburua itzuli du Iñaki Mendigurenek

**OROITZAPEN ONAK** Debagoienarekin lotura estua du Mendigurenek, 18 urte eman ditu-eta Arrasaten bizitzen

**AZKENA 2008KO UDAZKENERAKO** Azti gazte horren euskarazko azken abentura datorren udazkenean argitaratuko dute

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Kalean da dagoeneko J. K. Rowlingen *Harry Potter eta odol nahasiko printzea* liburuaren euskarazko bertsioa. Iñaki Mendiguren izan da oraingoan ere gazte horren gaineko abenturak itzultzeaz arduratu dena. Elkar argitaletxeak merkaturatu du eta 21,50 euroren truke eros daiteke ohiko dendetan.

Mendiguren jaioterrian bizi da egun, Ezkio-Itsason. Baina ederto ezagutzen du Debagoiena, 18 urte eman ditu-eta Arrasaten bizitzen. Oroitzapen onak ditu. "Bizitzako urterik onenak eman ditut han", azpimarratu du.

Urtebete kosta zaio Harry Potterren gaineko seigarren liburua euskaratzea. Lana ez da samurra izan, 600 orrialdeko liburua egin du-eta. Esfortzu hori egiteak merezi izan duela dio, "gustura" geratu da-eta emaitzarekin. Hala, itzultzaile batendako lan "polita" dela esan du.

Ez da gauza orain arte itzulitako sei liburuetatik bat bereizteko. Mendigurenen iritziz, "oso lotuta daude elkarren artean, unitate bat osatzen dute. Zazpi ataletan osatuta dagoen liburu bakar bat da". Gomendio bat ere eman die irakurleei: "Lehenengotik hasita irakurri behar dira. Ondorengoak ulertzeko aurrekoak irakurri behar dira".

**EUSKADI SARIA**

Mendigurenen itzulpenak sarituak izan dira. Hain zuzen, *Harry Potter eta sekretuen ganbera* liburuaren itzulpenagatik hiru sari jaso ditu. Euskadi saria izan da horietako bat, 2002an irabazi zuena: "Sariak erlatibizatu egin behar dira; ez dago horien zain bizi eta lan egiterik", adierazi du.

Euskaratutako liburuek duten harreraz ere hitz egin du: "Euskal liburuen merkatu urria eta liburuen orrialde kopurua kontuan izanda harrera ona dute", dio. J. K. Rowlingen istorioa "fenomeno ezohiko eta berezia izan da munduan, eta Euskal Herrian ere bai, gure tamainan", dio. Harry Potterren azken liburuaren euskarazko bertsioa 2008ko udazkenerako merkatuan izatea espero du.




**AZKEN LANA** Iñaki Mendiguren itzultzailea etxeko bulegoan, azken lana ondoan duela. GOIENKARIA

## ahobero

### "Zergatik ez zara isiltzen?"

**Juan Carlos I.a** > Erregea

Egunotako esaldi entzutetarikoa da "Zergatik ez zara isiltzen?". Hori da Espainiako errege Juan Carlos I.ak Venezuelako presidente Hugo Chavezi bota diona Txilen egin den goi-bilera iberoamerikarrean. Chavezek Espainiako gobernuko presidente ohi Jose Maria Aznarri "faxista" deitu ondoren sortu zen guztia. Hainbat ekitalditan lo ikusi izan dugu erregea, baina goibileran ez, adi-adi zegoen. Akaso hobe lo hartu izan balu.

## iturri onetik

### Abenduaren 22, 23 eta 24an artisautza azoka hartuko du Bergarako Munibe plazak

Datorren abenduaren 22an, 23an eta 24an artisautza azoka egingo dute Bergarako Munibe plazan. Herriko artisau talde batek baimena eskatu du esandako ekimena egiteko. Lehenengo aldia da horrelako zerbait egiten dena data horietan. Besteak beste, larrugintza, ehungintza, zeramika eta Euskal Herriko ohiko produktuak aurkituko dituzte bergararrek hiru egun horietan Munibe plazan.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### ArrasGates

Txiripa polita da Gates jaunaren lantegia hartuko ei duen Arrasatek erdi aroko harresiaren hiru ateak oraindik bizirik gordetzea. Baina ez da txiripa izango Microsoft Arrasatera etortzen bada: Europari begira ondo kokatuta gaude, eta berrikuntzarako ekosistema egokia ari gara sortzen.

Ez dakit, Guggenheim museoak Bilbo nola, Microsoftek berdin kokatuko ote duen Arrasate munduan. Auskalo. Baina argi izan dezagun hasieratik: horrelako enpresa bat etor daiteke gaur eta bihar joan, gaur hemen dituen abantailak bihar beste inon aurkitzen baditu. Guretzat garrantzizkoena ez da Microsoftek zer egingo duen gurean, baizik zer egingo dugun guk hura hemen dagoen bitartean, alde egiten duenean ondorioak hemen gera daitezen, gure eskuetan.

## ai, ene!



### Super Marioren berriena iritsi da Wii kontsolara

Merkatuan dago dagoeneko Super Mario heroiaren joko berriena: *Super Mario Galaxi*. Nintendoren Wii kontsolarako da hori.

http://wii.nintendo.es/2240.html





*Eramen dotoretasuna zure etxera*

gelatzu

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51